


Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko udal protokoloa



Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko udal protokoloa

1. ERREFERENTZIA ESPARRUA

1.1. Arau esparrua

- Europako Kontseiluaren Hitzarmena emakumearen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeriaren kontra..... 5
- 27/2003 Legea, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena..... 5
- 1/2004 Legea, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa..... 7
- 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa..... 9
- 3/ 2007 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako..... 9
- 2/2015 Foru araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako..... 9
- Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indakeriari aurre egiteko I. Foru Plana..... 9
- Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa 10
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Udal Plana..... 10

1.2. Esparru teorikoa

- 1.2.1. Emakumearen aurkako indarkeriaren definizioa..... 10
- 1.2.2. Emakumeen aurkako indarkeria moten definizioa eta sailkapena..... 12
- 1.2.3. Xedea eta helburuak..... 14
- 1.2.4. Printzipioak..... 14

1.3. Departamentu partaideak

- 1.3.1. Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza..... 16
 - 1.3.1.1. Prebentzioa, Haurrak eta Familia Zerbitzua..... 16
 - 1.3.1.1.1. Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzua (IMBAZ)..... 16
 - 1.3.1.2. Gizarteratze Zerbitzua..... 17
 - 1.3.1.2.1. Gizarteratzea eta laneratzea/Prestazio ekonomikoak..... 17
 - 1.3.1.2.2. GLUZ..... 18
 - 1.3.1.3. Ekintza Komunitarioko Zerbitzua..... 19
- 1.3.2. Berdintasun Bulegoa..... 19
- 1.3.3. Segurtasun kidegoak: Udaltzaingoa eta Ertzaintza..... 19



2. JARDUERA PROZEDURAK

2.1. Faseak

2.1.1. Eskaera jasotzea.....	20
2.1.2. Datu bilketa.....	21
2.1.3. Balorazioa.....	21
2.1.4. Fiskaltzari jakinaraztea.....	21
2.1.5. Segurtasun kidegoei jakinaraztea.....	22
2.1.6. Babes agindua.....	22
2.1.7. Esku hartze plana – Baliabideen kudeaketa.....	22
2.1.8. Zerbitzu arteko lankidetzeta eta koordinazioa.....	23
2.1.9. Segimendua.....	23

2.2. Arreta emateko irizpideak

2.2.1. Motak eta testuinguruak.....	23
2.2.2. Larrialdiko esku hartzea.....	24
2.2.3. Esku hartze arrunta.....	26
2.2.4. Arretaren fluxu diagrama.....	27
2.2.4.1. Larrialdiko arreta, osasun laguntza eskatzen duten lesioak dituzten emakume biktimentzat..	27
2.2.4.2. Esku hartzea krisi egoeran eta biktimak osasun laguntzarik beharrik ez duenean.....	28
2.2.4.3. Esku hartze arrunta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin.....	29

2.3. Berariazko kasuak

2.3.1. Sexu erasoa.....	30
2.3.2. Biktima adingabeak.....	32
2.3.3. Erroldatu gabeak.....	32
2.3.4. Beste administrazio bateko eskaera.....	32
2.3.5. Emakumearen indarkeriaren eraginpean dauden eta/edo indarkeria hori jasaten duten familiako kideei lagun egitea eta arreta ematea.....	33
2.3.6. Dibertsitate funtzionala duten emakumeak.....	33
2.3.7. Emakume etorkinak.....	33
2.3.8. Sexu salerosketaren eta esplotazioaren biktima diren emakumeak.....	36

3. BITARTEKOAK

3.1. Zerbitzuak

3.1.1. Udala	
3.1.1.1. Udalaren abegi etxeak.....	37
3.1.1.2. Lagun egiteko zerbitzua.....	41
3.1.1.3. Prestazio ekonomikoak.....	41
3.1.1.4. Laneratzeko programa.....	46
3.1.1.5. GLUZ (Gizarte Larrialdietarako Udala Zerbitzua).....	47



3.1.2. Diputazioa	47
3.1.2.1. Laguntza soziojuridikoa emateko programa.....	48
3.1.2.2. Arreta psikologikoa, banakakoa eta taldeka emateko programa.....	49
3.1.2.3. Berehalako harrerako foru zentroa (URRATS).....	53
3.1.2.4. Egonaldi ertain-luzeko harrera-zentroa (BIDEAN).....	53
3.1.2.5. Autonomia-etxebizitzak.....	53
3.1.2.6. Arreta psikosoziala.....	53
3.1.2.7. GLFZ (Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzua).....	54
3.1.3. Eusko Jaurlaritza	
3.1.3.1.-_Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza - Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	55
3.1.3.1.1. Telefono bidezko 24 orduko arreta zerbitzua, doakoa eta isilpekoa. 900 840 111..	55
3.1.3.1.2. Lanik ez duten eta errenta maila jakin batzuk gaintzen ez dituzten genero indarkeriaren emakumezko biktimentzako diru laguntzak izapidetzea.....	56
3.1.3.1.3. Etxebizitza eskaerak, laguntzak enplegu arloan.....	57
3.1.3.2. Lan eta Justizia Saila.....	58
3.1.3.2.1. BLZ.....	58
3.1.3.2.2. Fiskaltzari jakinaraztea	59
3.1.3.2.3. Babes agindua.....	62
3.1.3.2.4. Lan eta Justizia Sailak emandako zerbitzuak:	
• Ofiziozko txanda integrala.....	65
• Doako justizia.....	66
• Epaitegiko Lantalde Psikosoziala.....	67
• Auzitegi Baloraziorako Unitatea.....	68
3.1.4. Polizia zerbitzuak	69
3.1.5. Komunitate zerbitzuak	73
3.1.5.1. Emakumeen Etxea.....	73
3.1.5.2. Emakume elkarteak.....	73

4. INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK ARTATZEKO TOKI PROTOKOLOAREN KOORDINAZIOA.

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA..... 73

4.1. Koordinazio mahai politikoa..... 74

4.2. Koordinazio Mahai Teknikoa..... 74



5. TRESNA TEKNIKOAK

5.1. Dokumentu ereduak

5.1.1. Datuen bilketa.....	75
5.1.2. Esku hartze dokumentuak.....	75
5.1.3. Baliabideen eskaera.....	75
5.1.4. Informazio eskaera.....	75

5.2. Kontaktuen agenda

5.2.1. Donostiako Udalaren baliabideak.....	76
5.2.1.1. Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza.....	76
5.2.1.2. Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzua.....	77
5.2.1.3. Udaltzaingoa.....	77
5.2.2. Kanpo baliabideak	
5.2.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politikako Departamentua.....	77
5.2.2.2. Justizia Administrazioa.....	78
5.2.2.3. Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa.....	79
5.2.2.4. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Saila.....	79
5.2.2.5. Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila.....	79

ERANSKINAK

I. eranskina

Udaltzaingoa eta Gizarte Zerbitzuek Donostiako indarkeria matxistako kasuetan urgentziaz esku hartzeko jarduketa eta koordinazio protokoloa.....	80
--	----

II. eranskina

Lanbiderekin jarduteko protokoloa

III. eranskina

Sexu erasoetarako jarduera protokoloa, eta kontuan hartu beharreko alderdiak sexu erasoetan eta indarkeria matxistako kasuetan

IV. eranskina

Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida

V. eranskina

Dokumentu ereduak



1. ERREFERENTZIA ESPARRUA

1.1. Arau esparrua

Europako Kontseiluaren Hitzarmena emakumearen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeriaren kontra

Europar hitzarmen honekin Europa osorako araudi bat sortu nahi da, jarraibideak ezar ditzan emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan, eta gizartea berdintasunean oinarritzea susta dezan. Bereziki nabarmenduta emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktima guztientzako laguntza eta babesa.

27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena

Lege horren bidez, prozedura azkar eta sinple bat sortu nahi da, aukera ematen duena biktimak babes osoko estatutua lortu ahal izatea, babes agindua emanaz, arrisku egoerak daudenean edo delituak edo faltak diren egitateak gertatu direnean. Babes aginduak bide ematen du hauek aplikatzeko:

Kautela neurriak. Izan ahalko dira:

- **Penalak.** Helburutzat dute indarkeria jokabideak eragozteak, jokabide horiek are egitate larriagoak ez bihurtzeko. Erasotzailearen mugimendu askatasuna murrizteko neurriak dira, berriro biktimarengana hurbil ez dadin. Neurri horiek babes premia berehalakoa eta osokoa denean aplikatzen dira; neurri horien baldintzak, edukia eta indarraldia ezartzen dira. Besteak beste, hauek izan ahalko dira: erasotzailea familiaren egoitzatik irtenaraztea; gerturatzeko eta komunikatzeko debekua eta bizileku debekua; armak kentzea; biktima bulego judizialean babestea, eta biktimaren identifikazio daturik ez ematea.
- **Zibilak.** Helburutzat dute eraso pairatu duen pertsonari eta haren familiari segurtasuna, egonkortasuna eta babes juridikoa ematea. Seme-alaba adingaberik ez badago, neurri horiek ez dira hartuko, baldin eta **berariaz eskatzen** ez badira babes aginduaren eskabidean. Erasoa pairatu duen pertsonak seme-alaba adingabeak eta/edo desgaituak izanez gero bere kargura, neurri horiek biktimak berak edo haren legezko ordezkariak ez ezik Ministerio Fiskalak ere eska ditzake. Besteak beste, hauek izan ahalko dira: familiaren etxebizitzaren erabilera eta gozamina esleitzea; seme-alaba adingabeak zaintzeko eta babesteko ardua esleitzea; elikagaien prestazioa ezartzea, seme-alaben premiak asetzeko; erasotzaileak seme-alabekin duen komunikazio, bisita eta egonaldi erregimena bertan behera uztea edo komunikazioak, bisitak eta egonaldiak nola egin behar diren ezartzea; egokitzen jotzen den edozein xedapen, adingabea arrisku batetik aldentzeko edo adingabeak kalterik ez izateko.

Neurri zibilek 30 eguneko indarraldia dute. Epe horren barruan, biktimak edo haren legezko ordezkariak hala eskatuta familia prozesu bat hasten bada, hartutako neurriak indarrean egongo dira demanda zibila aurkeztu eta hurrengo 30 egunetan.

Antolamendu juridikoan ezarritako **gizarte laguntza eta babeserako neurriak**: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, **35/1995 Legearen** bidez araututako laguntza ekonomikoak, GLL, larrialdietarako beste laguntza batzuk, harrera zentroak eta pisuak, eguneko zentroa, laguntza juridikoa eta psikologikoa (doakoa eta espezializatua).



Beste edozein laguntza, biktimak laguntza eskatzen duen lurralde eremuan aplikatzekoak diren arau autonomikoetan eta legeetan ezartzen dena.

Babes agindua eskatzeko eta lortzeko prozedura:

Eskaera

Pertsona hauek eska dezakete babes agindua: etxeko indarkeriaren biktimak edo haren abokatuak, biktimaren hur-hurreko familia inguruneko pertsonak, Ministerio Fiskalak, epaileak ofizioz. Leku hauetan eska daiteke: epaitegian, zuzenean epailearen edo Ministerio Fiskalaren aurrean, polizia etxean, segurtasun indar eta kidegoen aurrean, biktimen arretarako bulegoetan edo gizarte zerbitzuetan.

Eskumena

Babes aginduaren inguruan ebazpena emateko eskumena emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak du, edo, larrialdietan, guardiako epaitegiak.

Tramitazioa:

- Entzualdia egitea. Eskaera jaso ondoren, epaileak hau egingo du:
 - Gehienez 72 orduko epean, presako entzunaldira deituko ditu *biktima* edo haren legezko ordezkaria, babes agindua eskatu duen pertsona, *erasotzailea* abokatuaren laguntzarekin eta Ministerio Fiskala.
 - Neurriak hartutako dira, adierazpenak bananduta egiteko.

- Ebazpena. Entzualdia egin ondoren, guardiako epaileak auto arrazoituaren bidez ebatziko du:
 - Zer egin behar den *babes aginduaren* eskaerari dagokionez.
 - Hartutako neurrien edukia eta indarraldia.
 - 544 bis¹ artikuluan ezarritako neurriak hartzea.

**Neurri horiek edozein agintariren eta administrazio publikoaren aurrean gauzatu ahalko dira.

¹Epaileak edo auzitegiak, modu arrazoituaren eta biktima babesteko beharrezkoa den neurrian bakarrik, erruztatuari kautelaz ezarri ahalko dio toki, auzo, udalerrri, probintzia edo beste toki erakunde edo autonomia erkidego zehatz batean bizitzeko debekua. Baldintza eta inguruabar berberetan, kautelaz ezarri ahalko dio toki, auzo, udalerrri, probintzia edo beste toki erakunde edo autonomia erkidego zehatz batzuetara joateko debekua, edo pertsona jakin batzuegana hurbildu edo haiekin komunikatzekoa, beharrezkoa den heinean.



Jakinarazpena/komunikazioa:

Epaileak *babes agindua* jakinaraziko die hauei, lekukotza osoarekin batera:

- Alderdiei: biktimari eta ustezko erasotzaileari
- Segurtasun indar eta kidegoei
- Fiskaltzari
- Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Erregistro Zentralari, inskriba dezan
- Administrazio publiko eskudunei, gizarte, osasun eta psikologia laguntza emateko neurriak hartzeko, administrazioen arteko koordinazio sistema oso baten bidez (Koordinazio Zentroa), zeinak eginkizuntzat baitu biktima informatuta mantentzea inputatuaren prozesuaren egoerari buruz, kautelazko neurrien norainokoari eta indarraldiari buruz eta inputatuaren espetxe egoerari buruz.
- Espetxe administrazioari

Azkenik, aipatu beharra dago babes agindu bakar bat egon daitekeela biktima bakoitzeko, nahiz eta beronen edukia alda daitekeen agindua eragin zuten inguruabarrak aldatzen badira.

[1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.](#)

Lege horrek aldaketa estrategiko bat ekarri du problematika horri aurre egiteko moduan, eta osoko eta diziplina anitzeko ikuspegi bat sortu du, hau guztia duena: prebentzioarekin lotutako alderdiak (sentsibilizazio eta prestakuntza neurriak), biktimei laguntza eta arreta ematearekin lotutako alderdiak eta legezko osoko erantzun bat (erasoak gertatzen diren familia edo bizikidetzak esparruan eragina duen araudi zibila, eta indarkeria adierazpenek jaso behar duten zigor erantzuna). Horretaz gainera, legean orobat aitortzen da garrantzitsua dela zuzenean edo zeharka genero indarkeriaren egoerak pairatzen dituzten adingabeei arreta ematea.

Horrela, bada, Legeak, lehendabizi, hezkuntza, publizitate, komunikabide eta osasun arloetarako sentsibilizazio, prebentzio eta detekzio neurriak ezartzen ditu.

Bigarrenik, lege horrek genero indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak sendotzen ditu, hau arautuz:

- Informaziorako eskubidea
- Gizarte laguntza osorako eskubidea: Arreta, larrialdi, laguntza eta harrera eta sendabide osorako gizarte zerbitzuak, prestazio hauek izanik: informazioa, arreta psikologikoa, gizarte babesa, emakumeen eskubideen gaineko erreklamazioen segimendua, familia unitatearentzako hezkuntza babesa, berdintasun balioei buruzko prebentzio prestakuntza, prestakuntzarako eta laneratzeko babesa.



- Doako laguntza juridikorako eskubidea: Kasu guztietan, berehalako laguntza espezializatua –ofiziozko txanda espezifikoa– bermatzen zaie biktima guztiei.
- Laneko eta Gizarte Segurantzaren eskubideak:
 - Besteren kontura lan egiten duten emakumeak: lanaldia murriztea, lan denbora beste modu batean antolatzea, mugigarritasun geografikoa, lantokia aldatzea, lan harremana etetea lanpostuaren erreserbarekin eta eteteke uneko baldintza berberetan hastea lanean, lan kontratua azkentzea langabezia prestazioa jasotzeko eskubidearekin, egoera fisiko edo psikologikoagatik justifikatutako faltak.
 - Beren kontura lan egiten duten emakumeak: kotizatzeke betebeharra sei hilabetez eteteke eskubidea; sei hilabete horiek benetan kotizatutakotzat hartuko dira. Era berean, langile horien egoera altarekin berdinez dagoela ulertuko da.
- Emakume diren funtzionario publikoen eskubideak: lanaldia murriztea, lan denbora beste modu batean antolatzea, mugigarritasun geografikoa, lantokia aldatzea, eszedentzia, egoera fisiko edo psikologikoagatik justifikatutako faltak.
- Eskubide ekonomikoak
- Abenduaren 2ko 452/2005 Errege Dekretuak, genero indarkeriaren aurkako babes orokorreko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan jasotako diru laguntza arautzen duenak, ezartzen du genero indarkeriaren biktima diren emakumeek laguntza ekonomiko bat jaso dezaketela, baldin eta errenta maila jakin bat badute eta uste bada enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituztela adinagatik, gizarte inguruabarrengatik eta prestakuntza orokorrik edo espezializaturik ez dutelako.
- Eskubide hori aitortzeko, beharrezkoa da biktimak behar adina baliabide ekonomiko ez duela egiaztatzea (lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 edo gutxiago, alde batera utzita ohiz kanpoko lansariei dagokien zatia), bai eta Enplegu Zerbitzu Publiko eskudunak txosten bat egitea, aditzera ematen duena, funtsean eta laneratzeko ibilbide pertsonala egitean, biktima horientzat ezartzen diren enplegu programa espezifikoetan sartuta (lege organiko horren 22. artikuluko xedapena) enplegua bilatzeko duen aukera ez dela funtsezko eran hobetuko.
- Gizarte laguntzak
- Lehentasunezko sarbidea etxebizitza babestuetara eta adinekoentzako egoitza publikoetara

Babes agindua, edo salbuespenez, genero indarkeriaren zantzuak daudela adierazten duen Ministerio Fiskalaren txostena, da eskubide horiek lortzeko egiaztatzea.



Legean orobat ezartzen da zigor arloko tutoretza sistema bat, eta genero indarkeriaren arloko delituak eta faltak zehazte aldera ezarri beharreko zehapenak zehazten dira (zehapen horiek aurreko legerian baino larriagoak dira).

Halaber, legean tutoretza judizialeko sistema bat ezartzen da kasu horietarako, egitura aldaketa nabarmenak dakartzanak. Aldaketa nagusia *emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak* sortzea da, etxe barruko tratatu txarregatik salaketa bat jasotzean epaileak berak neurri zibilak hartu ahal izatea erraztuz, biktimen eta haien mende dauden pertsonen babeserako eta segurtasunerako neurri judizialez gain.

Oro har, esan dezakegu lege horrek antolaketa aldaketa nabarmenak ekarri dituela, arretaren arlo guztiei eragiten dietenak: organo judizialei, segurtasun kidegoei, abokatu elkargoei eta hezkuntza, osasun, lan eta gizarte arloei. Betiere esku hartze arloen arteko lankidetzeta eta koordinazioa zeinen garrantzitsua den azpimarratuz. Esaterako, gizarte zerbitzuek segurtasun kidegoekin lankidetzan jardungo dutela jasotzen da, arriskua ebaluatzeko eta epaileari beharrezkotzat jotzen diren premiazko neurriak zein diren adierazteko.

4/2005 Lege Organikoa, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako

Lege horren III. tituluko VII. kapitulua emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa da, eta hau guztia aitortzen die biktimei: poliziaren babes egokia, laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa eta soziala, eta laneratzearen eta etxebizitzaren arloan helburu horrekin ezartzen diren gainerako neurriak.

Lege horrek berak ere, IV. kapituluko II. ataleko 43. artikuluan, lehen puntuan, laneko jazarpen sexuala eta sexista definitzen du; bigarrenean, esaten du oso diziplina hutsegite larria dela funtzionarioentzat (Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 83.b artikuluari dagokionez); hirugarrenean, aurrea hartzeko eta erauzteko politikak sustatzen ditu, azpimarratuta jarduera protokoloak egin eta aplikatu behar direla; eta, azkenik, xedatzen du EAEko administrazio publikoek laguntza juridiko eta psikologiko urgentea, doakoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuerakoa bermatu behar dietela jazarpen sexistaren biktimak direnei.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko

Lege horren helburua emakumeen eta gizonen artean tratatu eta aukera berdintasunaren eskubidea eragingarri egitea da, batez ere emakumeen bereizkeria ezabatuz, emakumearen inguruabarrak eta egoera gorabehera, bizitzako edozein esparrutan, eta, bereziki, politika, lan, ekonomia, gizarte eta kultura esparruetan eta esparru zibilean, **Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikulua** garatuz, gizarte zuzenago eta solidarioagoa lortzeko.

Lege horrek, bestalde, berriaz debekatzen ditu sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, eta jokabide horiek definitzen ditu (7., 8., 48. eta 62. artikulua). Gainera, 62. artikuluan eta azken xedapenetako seigarrenean, zehazki xedatzen du administrazio publikoen konpromisoa dela jarduera protokolo bat negoziatzea langileen legezko ordezkariekin, sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurrea hartzeko.

2/2015 Foru araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako

Foru arau horren asmoa da Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politiketan aurrera egitea, politika horiek finkatzea eta iraunkor bihurtzea, Euskal Autonomia Erkidegoko foru esparruan berdintasun arloan sortutako lehen tresna arautzailea izaki.

Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana

2013an Foru Aldundia Emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako foru politikak berrikusten hasi zen, eta horren jarraipen gisa, 2016tik 2019ra bitartean gutxienez, indarrean egongo den foru plan hau prestatu da.



[Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa](#)

Hitzarmen hori 2009ko otsailaren 3an izenpetu zuten, Gasteizen, eta Euskadiko lehen ekimena da, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntzen inplikaturata dauden erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko eta autonomia erkidego osoan jarduera jarraibide batzuk ezartzeko, biktimen arreta hobetze aldera eta erasotzailea epaitegien esku jartze aldera.

[Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Udal Plana](#)

Udal plan horrek emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna finkatu nahi du, eta aurre egin nahi dio emakumeek jasaten duten diskriminazioari.

Indarkeria matxistaren problematika zeharka agertzen da plan honetan, baina, hala ere, lerro espezifiko bat sortu zen; zehazki 3. lerroa, ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea esan zitzaiena.

Lerro horren helburuak hauek dira: balioen aldaketa sustatzea, estereotipoak eta genero rola desagerraraziz; herritarrak kontzientziaztea indarkeria matxistari buruz; indarkeria matxistari aurrea hartzea, eta haren aurka jokatzeko; eta sostengagarritasuna politika publikoen erdigunean jartzea.

[Udalaren webgunean](#) ikus daiteke.

1.2. Esparru teorikoa

[1.2.1. Emakumearen aurkako indarkeriaren definizioa](#)

Protokolo honetan, foru aldundiak indarkeria matxistaz landutako terminologia eta kontzeptua jasotzen da, eta, era berean, horrela dago jasota Gipuzkoan emakumeenganako indarkeriari aurka egiteko I. Foru Planean.

Indarkeria matxista, termino orokor moduan, genero arloko sozializazio binario eta desorekatuak eragindako indarkeria da. Terminoarean barruan, bestalde, bi indarkeria mota hauek daude:

1. **Indarkeria sexista**, zeina emakumeek emakume izateagatik jasaten dutena baita, eta emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasuna betikotzea baitu helburu.
2. **Beste indarkeria mota batzuk**, zeinak baitira genero arloko gizarte rol binarioen eta beroriei lotutako sexualitatearen arabera jokatzeko ez duten pertsonen jasaten dituztenak. Homofobia, lesbofobia eta transfobia dira.

Erabili ohi den terminoen taula, eta termino horien baliokideak EAEn eta Estatuan (Iturria: Gipuzkoan Emakumeenganako Indarkeriari Aurka egiteko I. Foru Plana).

Indarkeria sexista = Emakumeen aurkako indarkeria matxista

Indarkeria sexista = Emakumeen aurkako indarkeria (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa)

Genero Indarkeria (1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurri buruzkoa) = Indarkeria sexista bikotearen edo bikote izandakoaren barruan

Indarkeria sexista = Genero indarkeria + Familia, lan eta gizarte arloko indarkeria

Indarkeria matxista = Indarkeria sexista + (transfobia + lesbofobia + homofobia) + Genero barruko indarkeria



Jazarpen sexista = Indarkeria sexista lan esparruan, eskola esparruan, leku publikoetan eta beste batzuetan, sexu arlokoa izan gabe

Jazarpen sexista = Indarkeria sexista lan esparruan, eskola esparruan, leku publikoetan eta beste batzuetan, sexu arlokoa izanda

Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko rakundeen arteko II. akordioaren testuan (zeina indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntzen esku hartzen duten EAEko erakunde guztiek 2009an sinatu baitzuten) adierazten den bezala,

“Emakumeen aurkako indarkeriak emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko ezberdintasun egoeran ditu erroak. Desberdintasun horri, gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, banaketa horrek, emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu. Emakumeen aurkako indarkeria ezberdintasun horren beste isla bat da, ziurrenera larriena dena, baina horrez gain, gizartea kontrolatzeko funtsezko tresna da, ezberdintasun egoerari eutsi eta iraunarazi egiten baitio”¹.

Izan ere, nazioartean aitortzen da emakumeen aurkako indarkeriaren kausek lotura estu-estua dutela emakumeen eta gizonen arteko desparekotasun historiko eta egiturazkoekin, eta, horiek desagerrarazten aurrera egin ezean, aukera gutxi dagoela emakumeak indarkeria matxistik gabe bizi ahal izateko. Horregatik, gure testuinguruan ere badaukagu berdintasunaren aldeko arau esparru bat (*4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako*² eta *2/2015 Foru Araua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako*³), zeinean emakumeen aurkako indarkeria esku hartzeko funtsezko ardatzetako bat baita.

Hamarkada hauetan asko aurreratu da emakumeen aurkako indarkeriaren ikerketan, prebentzioan eta arretan egindako politika publikoei esker. Hala ere, politika horiek hobetu behar direlako kontzientzia gero eta handiagoa da, hobetze horri esker egingo baitzaie behar bezala aurre emakumeek bizi esparru guztietan (bikotea, lan mundua, ikastetxeak, aisialdirako guneak, leku publikoak...) eta bizitza osoan zehar jasaten dituzten indarkeria mota guztiei (fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexuala).

Orain arte, oro har, emakume helduek bikotearen edo bikote izandakoaren barruan jasaten duten indarkeria sexistari heldu diote bereziki politika publikoek.

Kontuan hartuta egungo baliabideek eta zerbitzuek batez ere emakumeen aurkako indarkeriari erantzuten diotela, protokolo honen ondorioetarako, indarkeria matxista terminoa honako hauek aipatzeko erabiliko da: gizonek emakumeen gainean ezarrita daukaten harreman hierarkiko eta desorekatuaren barruan, zeina inplizitua baita sexu-genero-sexualitate heteronormatiboaren sisteman, kontrol, eraso, gutxiespen edo inposizio zuzena, egiturazkoa eta sinbolikoa egiteko gauzatzen diren modu eta ekintza guztiak.

Indarkeria matxistik pertsonaren nortasuna osatzen duten intersekzio (adina, jatorria, arraza, osasun fisiko eta mentala, dibertsitate funtzionala eta abar) guztien konplexutasunaren barruan ulertu behar dira.

Indarkeria matxistik zenbait esparrutan gauzatzen dira (bikotea, familia, lan eta eskola esparrua, birtuala...), eta zenbait modutan (psikologikoa, ekonomikoa, fisikoa, sexuala...).

1 http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/es_def/adjuntos/2.acuerdo_interinstitucional.cas.pdf

2 https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2005/03/s05_0042.pdf

3 <https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/03/16/c1502351.pdf>

4 Azken urteetan, emakumezko gazteen aurkako indarkeria gero eta kezka iturri handiagoa izan da, baina oraindik ez da lortu dauden zerbitzuak laguntza emateko erreferentzia izatea bikotearen barruan indarkeria sexista jasaten duten emakumezko nerabe eta gazteentzat.



1.2.2. Emakumeen aurkako indarkeria moten definizioa eta sailkapena

Indarkeria matxistaren barruan, emakumeek pairatzen dituzten askotariko abusuak daude. Horien artean, zenbait indarkeria fisiko, psikologiko, sexual eta ekonomiko mota bereizten dira, arlo zehatz batzuetan gertatzen direnak, harreman afektibo eta sexualen esparruan eta bikote, familia, lan, gizarte eta komunitate arloetan.

Indarkeria adierazpen zehatz horiek jada agerian jarri dituzte emakumeen mugimenduek, eta nazioarte, Europa, estatu, nazio eta toki mailako araudietan jaso dira.

- **Indarkeria fisikoa:** Emakumearen aurkako edozein ekintza edo omisio, lesio fisiko bat edo kalte bat eragiten diona edo eragiteko arriskua duena.

Jokabideak: Kolpeak, ile tiraldiak, ukabildak, ostikadak, bultzadak, estutuak, masailekoak, harramazkak, atximurkadak, erredurak, hozkadak, itotze saiakerak, arma zuriekin, su armekin, beste objektu batekin... zaintza medikoak galaraztea gaixo dagoenean eta tratu txarren ondorioz lesio fisikoak dituenen, erailketa.

- **Indarkeria psikologikoa:** Nahita egiten den jokabide edo omisio oro, emakume bati desbalorizazioa edo sufrimendua eragiten diona, honen bidez: mehatxuak, umiliazioa, laidoak, obediencia edo sumisio eskaera, hitz bidezko hertsadura, irainak, bakartzea edo askatasun eremuaren mugatze oro.

Jokabideak: desbalorizazioak (kritikak, umiliazioak, deskalifikazioak, pribatuan eta/edo jendaurrean mespretxatzea, etengabe barrengarri uztea), etsaitasuna edo axolagabekeria, irainak, mehatxuzko jarrerak eta keinuak, heriotza mehatxuak emakumearen eta/edo beste familiakide batzuen aurka, seme-alabak zaintzeko eta babesteko ardurari buruzko mehatxuak, suizidio mehatxuak, larderiak/laidozko telefono deiak, mugatze jokabideak (lagunak kontrolatzea, lagunekin eta/edo familiakideekin ibiltzea galaraztea, etxetik irteteko mugak ezartzea), jazarpena eta erasoak, etxetik botatzea, jokabide suntsitzailak (ondare pertsonalak suntsitzea: balio ekonomikoa edo afektiboa duten objektuak suntsitzea, etxeko animaliei tratu txarrak ematea), sinesmen politiko edo erlijiosoaren sistema bat bortxaz ezartzea, gizonaren jokabide bortitzen errua emakumeari egozte, zelatan ibiltzea (telefono deiak, mezu elektronikoak bidaltzea, SMS...). Orobat sartzen dira kategoria horretan jokabide hauek: ez ikusiarena egitea, hitzeko komunikazioan ez erantzutea, kontaktu fisikoa modu agerian saihestea, lotsaraztea eta barrengarri uztea sentimenduak adierazteagatik.

- **Sexu indarkeria eta abusuak:** Emakumeen adostasunik gabeko edozein sexu ekintza, hala nola indarkeria, larderia, nagusikeria edo manipulazio emozionala baliatuz sexu harremanak erakustea, ikustea edo eginaraztea, kontuan hartu gabe ea erasotzaileak emakumearekin edo neska adingabearekin ezkontza, bikote edo ahaide harremana edo harreman afektiboa duen.

Jokabideak: Txiste eta txantxa sexualak, telefono dei iraingarriak, exhibizionismoa, irainak, bortxaketa (baginala, uzkiea, ahokoa), sexu erasoak, sexu abusua, sexu jazarpena, haurdunaldi behartua, biktimak umiliagarritzat jotzen dituen jokabideak bortxaz eginaraztea.

- **Indarkeria ekonomikoa:** Nahita eta arrazoirik gabe emakumearen eta, hala badagokio, haren seme-alaben ongizate fisikorako eta psikologikorako baliabideak kentzean datza, eta norberaren baliabideak edo familiaren eta bikotearen esparruan partekatzen diren baliabideak erabili ahal izatea mugatzean.



Jokabideak: Kontuetara sartzea eragozte, dirua atxikitzea, emakumeari ondare komunetan parte hartzea eragozte edo mugatzea, xantaia ekonomikoa; lanpostu baterako edo hezkuntzarako sarbidea eragozte, jabetza eskubideak ukatzea, seme-alabei mantenu pentsioak ez ordaintzea...

Indarkeria matxista arlo hauetan² gerta daiteke:

- **Bikote barruko indarkeria**: emakume baten aurkako indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa da, ezkontidea den edo izan den gizonak egina edo emakumearekin antzeko harreman afektiboak dituen edo izan dituen pertsonak.
- **Familia barruko indarkeria**: familia barruan emakumeei eta adingabeei pairarazten zaien indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa edo ekonomikoa da, familiako kideek egina, familia inguruko harreman afektiboen eta loturen esparruan. Ez da sartzen bikote barruko indarkeria (goian definitzen da bikote barruko indarkeria).
- **Lan arloko indarkeria**: lantokian lanaldian zehar gerta daitekeen indarkeria fisikoa, sexuala edo psikologikoa, edo lantokitik eta lanordutik kanpo gerta daitekeena, baldin eta lanarekin lotura badu; bi motatakoa izan daiteke:
 - Sexuagatiko jazarpena: nahi ez den jokabide bat da, pertsona baten sexuarekin lotura duena, ordaindutako lana eskuratzeko orduan, lanpostuko sustapenean, enpleguan edo prestakuntzan, helburutzat edo ondorioztat duena emakumeen duintasunaren aurka egitea eta ingurune larderiako, etsaitasunezko, apalgarri, umiliagarri edo iraingarri bat sortzea.
 - Sexu jazarpena: nahi ez den edozein jokabide hitzezko, hitzik gabeko edo fisiko, sexu izaerakoa, helburutzat edo ondorioztat duena emakumeen duintasunaren aurka egitea eta ingurune larderiako, etsaitasunezko, apalgarri, umiliagarri, iraingarri edo desatsegin bat sortzea.
- **Gizarte edo komunitate arloko indarkeria** honela adieraz daiteke:
 1. Sexu erasoak: indarkeria fisikoa eta sexu indarkeria emakumeen eta adingabeen aurka erabiltzean dautza. Indarkeria horrek berekin dakar sexua boterea erakusteko eta botereaz neurritz kanpo baliatzeko erabiltzea, aurrez pentsatuta betiere.
 2. Sexu jazarpena
 3. Emakumeen eta nesken sexu trafikoa eta esplotazioa
 4. Emakumeen genitalen mutilazioa edo hori pairatzeko arriskua: emakumeen genitalak osorik edo hein batean ezabatzea edo genitaletan lesioak eragitea dakarren edo ekar dezakeen edozein prozedura, nahiz eta emakumeak esanbidezko edo isilbidezko adostasuna eman.
 5. Ezkontza behartuak
 6. Gatazka armatuen ondoriozko indarkeria: egoera horietan sortzen den emakumeen aurkako indarkeria mota oro, hala nola eraiketa, bortxaketa, sexu esklabotasuna, haurdunaldi behartua, abortu behartua, antzutze behartua, gaixotasunak nahita infektatzea, tortura eta sexu abusuak.
 7. Emakumeen sexurako eta ugalketarako eskubideen aurkako indarkeria, hala nola abortu selektiboak eta antzutze behartuak.

² Arlo horiek bereizten eta jasotzen dituzte apirilaren 24ko 5/2008 Legeak, indarkeria matxista desagerrarazteko emakumeek duten eskubideari buruzkoak, eta Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak.



- **Beste edozein antzeko indarkeria mota**, emakumeen duintasunari, osotasunari edo askatasunari kalte egiten diona edo egin diezaiokeena.

1.2.3. Xedea eta helburuak

Protokolo honen xedea Gizarte Ongizateko departamentuak, Berdintasun Bulegoa eta Udaltzaingoa nola antolatzen diren eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin nola esku hartzen duten deskribatzea da, emakume horiei kalitatezko arreta emateko.

Helburuak:

- Udalak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin nola esku hartu behar duen zehaztea (arreta ematea, bideratzea eta segimendua egitea).
- Departamentu arteko jarduera koordinatzea, eta Udalaren esku hartzea beste zerbitzu eta baliabide batzuekin koordinatzea.
- Genero indarkeriaren arloko Udalaren esku hartzea hauetara egokitzea: «*Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa*», 2009ko otsailekoa, eta «*Genero indarkeriaren aurkako babes osoa bermatzeko neurriei buruzko legearen eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasunerako koordinazio protokoloa*», hori ere 2009an egina.

Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzuan, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta Udaltzaingoa artatutako emakumeek indarkeria matxistaren harira egindako eskaera guztiei aplikatzen zaie prozedura hori. Prozedura horretan, hauek dira egiten diren eginkizun nagusiak: detekzioa, informazioa/orientazioa, egoeraren azterketa, baliabideen kudeaketa/izapidetzea, segimendua eta ebaluazioa. Eginkizun bakoitza Donostiako Gizarte Zerbitzuen departamentuaren sistema informatizatu batean erregistratu behar da, betiere departamentu horren jarduera printzipioekin eta lanerako metodologiarekin bat.

1.2.4. Printzipioak

Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioaren arabera, inplikaturako profesionalak eta erakundeek printzipio hauei jarraitu behar diete:

- **Laguntza integrala eta pertsonalizatua.** Protokolo honek hizpide duen indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien mende dauden pertsonen arretaren bidez, indarkeria egoeraren ondoriozko premiak aseko dira, eta, horretarako, pertsona horiei zerbitzu eta prestazio egokienak eskuratzen lagunduko zaie, kasu bakoitzean gertatzen diren inguruabar pertsonal eta sozialen arabera.
- **Berdintasuna.** Biktima guztiei bermatu beharko zaie arreta, bereizkeriarik egin gabe arrazoi hauengatik: egoera zibila; orientazio sexuala; adina; sinesmena edo ideologia; gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kide izatea; maila ekonomikoa; desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala, edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial. Halaber, beren inguruabar pertsonalak eta sozialak direla eta laguntza osoki eskuratzeko zailtasun handiagoa duten emakumeek eta, bereziki, desgaitasunen bat duten emakumeek eta emakume etorkinek, haien administrazio egoera edozein dela ere, beren eskubideak benetan erabili ahal izatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.



Bereziki, desgaitasunen bat duten emakumeen informazioa eta baliabideak eskuratzeko eskubidea bermatzeko, kasu bakoitzean egin behar diren egokitzapenak egin beharko dira (garraiorako laguntzak, lagun egitea, zeinu hizkuntzako interpreteak, Braille moduan idatzitako dokumentuak, komunikazio handigarria, etab.). Halaber, atzerriko emakumeek izan ditzaketan hizkuntza oztopoak gainditzeko edo arintzeko neurriak hartuko dira. Emakume horiei gogoraraziko zaie oso garrantzitsua dela errolda eskatzea, gizarte babeserako sareko oinarritzko prestazioak eskuratzeko, eta gomendatuko zaie harremanetan jartzeko Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak etorkinei aholkuak eta orientazioa emateko daukan atzerriartasunaren arloko Euskal Zerbitzu Juridikoarekin.

- **Prebentzioa.** Bildutako jarraibideak biktimen aurkako indarkeria egoerak berriro ez gertatzeko aplikatuko zaizkie emakumeei, haien ardurapean dauden neska-mutilei eta nerabeei edo bizikidetzaren unitateko parte diren mendeko helduei.
- **Adingabeen interesaren alde egitea.** Hartu behar diren neurriak hartuko dira emakumearen ardurapean dauden adingabeak artatzeko eta babesteko, haien eskubideak, ongizatea eta osoko garapena bermatze aldera, betiere kontuan hartuta haurren eta nerabeen interes gorena, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean ezarria.
- **Ahalduntzea eta normalizazioa.** Kasu bakoitzerako neurri egokiak antolatzean, indarkeriaren biktima diren emakumeen autonomia pertsonala eta bizimodu normalizatu bat sustatzen saiatu beharko da.
- **Biktimizazio minimoa.** Protokolo honek hizpide duen indarkeria pairatu duten emakumeen bigarren mailako biktimizazioa ahalik eta gehien saihesten saiatu beharko da, eta ahalik eta gehien murriztuko dira profesionalen eta erakundeen esku hartzeak biktimei eragiten dizkieten eragozpenak.

Arreta hobetzeko helburuarekin, indarkeria matxistaren biktimen arloko interbentzioan ezinbestekotzat jotzen diren beste printzipio batzuk sartzen dira.

- **Konfiantza:** indarkeria matxista jasan duten emakume guztiei laguntza emango zaie, salaketa jarri zein ez, erabakiak hartzeko moduan egon zein ez.
- **Lehentasuna:** laguntza eskatzen duten emakumeei lehentasuneko arreta egingo zaie, eta ahal den guztia egingo da interbentzioa azkarra izateko.
- **Eraginkortasuna eta bizkortasuna:** protokolo honetan jasotako jarraibideak betetzean, antolaketa eraginkorra eta bizkorra bermatu beharko da, egoera horiei dagokien bezala ahalik eta arinen jarduteko.

Alde horretatik, protokolo honetan ezarritako jarraibideak eta ibilbideak betetzeko eta inplikaturako erakundeak koordinatzeko ekimena profesionali dagokie; erantzukizun hori ez dagokie biktimei.



1.3. Departamentu partaideak

1.3.1. Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak eginkizun eta erantzukizun hauek ditu, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen kolektiboari arreta ematean eta kolektibo horretan esku hartzean:

- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta eta aholkularitza ematea
- Larrialdietarako baliabideak ematea
- Gizarteratzeko baliabideak ematea
- Banakako arreta planak egitea
- Foru baliabideak izapidetzea: Laguntza psikologikoa eta aholkularitza juridikoa
- Kasuen segimendua eta ebaluazioa egitea

1.3.1.1. Prebentzioa, Haurrak eta Familia Zerbitzua

1.3.1.1.1.- Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzua (IMBAZ)

Zerbitzu horrek larrialdiko arreta emango du, eta, larriak ez diren kasuetan, arreta, informazioa eta orientazioa. Zerbitzu horren bidez orobat izapidetuko dira indarkeria matxistaren biktimari osoko laguntza emateko berriazko baliabideak.

Larrialdiko arreta: Biktimek lesioak izanez gero, zerbitzu medikora lagunduko zaie, eta polizia arreta eskatuko da, biktimen osotasuna arriskuan egonez gero. Biktimek laguntza medikorik behar ez badute, lehenasunezko arreta emango zaie, biktimaren aparteko egoera emozionala kontuan hartuta.

Emakumeei lagun egiteko, laguntza eta euskarri emozionala emateko, bai eta larrialdiko ostatu bat emateko ere, aukera emango diena espazio seguru bat izateko, segurtasuna bermatu eta laguntza eta euskarri emozionala emango diena.

Larrialdietan, jarduera protokoloari jarraitu beharko zaie Udaltzaingoarekin, Ertzaintzarekin eta Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzuarekin; horiek guztiak badute baliabide honen berri, bai eta kasu larriak bideratzeko jarduera protokoloaren berri ere.

Arreta, informazioa eta orientazioa: Eskubideei eta gizarte baliabideei buruzko informazioa eta orientazioa eskainiko da, eta arriskuaren larritasuna ebaluatuko da. Biktimek gizarte baliabideak eskuratzea erraztu eta ahalbidetuko da.

Zerbitzu horrek zenbait baliabide ditu, bereak eta kanpokoak, Aldundiaren eskumenekoak direnak.



Zerbitzuaren baliabideak:

- **Behin-behineko ostatua:** Donostiako Udalak larrialdietarako 5 etxebizitza ditu, tratu txarren biktima diren emakumeei ostatu emateko. Egonaldiak behin-behinekoak dira, eta 3 hilabete iraun ohi dute, baina luzatu egin daitezke, kasu bakoitzean norbanakoaren eta familiaren egoera zein den. Etxebizitza horietan 24 pertsonentzako lekua dago (adingabeak barne). Baliabide hori indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat da, baldin eta egonaldi luzeagoa aurrekusten bada, hainbat arrazoi direla medio: autonomia sustatzeko, ezin duelako beste ostatu edo etxebizitza batera joan, edo prekaritate ekonomiko eta sozialeko egoeran dagoelako. Denbora horretan, behar dituen laguntza profesionalak eskainiko zaizkio (psikologikoak, juridikoak, ekonomikoak), bizi izan duen indarkeria bizipenaren inguruan hartutako erabakien ondorio den egoerari aurre egin diezaion.
- **Diru laguntzak:** Artatutako kasuak aztertu ondoren, laguntza hauek ezarriko dira:
- **Larrialdiko txkeka:** Erabiltzaileari berehala ematen zaio, premiazko gastuetarako txkeka baten bidez.
- **Gizarteratzeko hitzarmena babesteko laguntzak:** Unean uneko edo aldizkako laguntza; beharrezkoa da premia egoera aztertzea eta ebaluatzea. Laguntza eskaera eragin zuten kausak edo inguruabarrak aldatu arte irauten du laguntza horrek.
- **Eusko Jaurlaritzaren berariazko diru laguntza:** Berariazko diru laguntza hori abenduaren 2ko 1452/2005 Errege Dekretuan araututa dago.

Jarraian, Emakumeen Aurkako Indarkeriari Aurre egiteko Foru Planaren esteka doa. Plan horretan, lege eta eskumen esparruaz gain, berariazko baliabideak jasotzen dira.

[1.3.1.2. Gizarteratze Zerbitzua](#)

[1.3.1.2.1. Gizarteratzea eta laneratzea/Prestazio ekonomikoak](#)

Zerbitzu horren helburuak funtsezko bi ardatz ditu: laneratzea eta prestazio ekonomikoak eta baliabideak ematea. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen kolektiboak lehentasunezko sarbidea du.

Zerbitzu horren barruan dago Laguntza eta Sustapen Sozialeko Programa. Pertsona jakin batzuekin esku hartzeko programa espezializatu bat da. Pertsona horiek gizarte bazterkeriako egoeran edo egoteko arriskuan daude, eta, ohiturarik, gizarte trebetasunik edo baliabide pertsonalik ez dutenez, autonomia murrizketa jakin bat dute.

Honako hauek dira programa horren helburuak: bazterkeria egoerak prebenitzea eta arintzea; gizarte bazterkeriako egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarteratze pertsonal, sozial eta lanekoa sustatzea, eta baliabide sozialak eta pertsonalak eskuratu ditzatela sustatzea, bide ematen dutenak gizarte zerbitzuen erabiltzaileek bizitza autonomorako proiektua bat egiteko.



1.3.1.2.2. GLUZ

Larrialdietako zerbitzu bat sortzea Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren arreta estrategia bat da, hau egiteko bide ematen duena:

- a) Berehalakoan gertatzen diren kasuak eta kasu larriak modu bateragarrian artatzea Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak aurreikusitako arretarekin (arreta hori ez da larrialdietarako), eta
- a) Gizarte zerbitzuetako zentroek jendeari arreta emateko duten ordutegi normalizatutik kanpo gertatzen diren egoerak artatzea

Hauek dira gizarte larrialdietarako zerbitzu baten eginkizun nagusiak: eskubide eta baliabideei buruzko informazioa ematea, premia egoerak ebaluatzea, arazoei aurre egiteko modu onenari buruzko orientabidea ematea, ostatu baliabideak eta larrialdietarako beste baliabide batzuk eskuratzeko kudeaketak egitea, eta behatoki sozial gisa jardutea gizarte premiei buruz informazio gehiago lortzeko.

Helburu horiek lortzeko GLUZ – Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua sortu da, Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren mende dagoena. Zerbitzu hori eguneko 24 orduetan dago eskuragarri, egunero, eta larrialdiak artatzeko gainerako zerbitzuekin koordinatuko da (Udaltzaingoa, Gizarte Abegi Etxea, Gizarte Larrialdien Koordinazioko Foru Zerbitzua –SFCUS,, babes zibileko zerbitzuak, osasun zerbitzuak, etab.), larrialdi egoeren ondorioz sortzen diren gizarte premiei erantzuteko. Horretarako:

- Arreta emateko prest eta aurkitzeko moduan egongo da urteko egun guztietan.
- Jarduera protokoloak egingo ditu, eta eguneratuta izango ditu.
- Larrialdiko arreta behar duen egoera gertatzen den lekura joateko modua izan beharko du.
- Zerbitzuko langileak GLUZeko kide gisa egongo dira identifikatuta, eta, alde horretatik, autonomia izango dute beren eskumenaren esparruan bidezkoak diren erabakiak hartzeko. Erabaki horiek Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzako langile guztiek eta Zuzendaritza horrek kontratatzen dituen enpresetako langile guztiek errespetatu eta babestu beharko dituzte, Zuzendaritzarekin edo Ataleko buruekin berehala egiazta daitezkeenean izan ezik.

Gizarte larrialdietarako zerbitzuak indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeen kolektiboarekin egiten duen esku hartzea modu honetara eta eginkizun hauekin egingo da:

- Indarkeria matxista oraindik detektatu edo identifikatu ez den kasuak jasotzea
- Berehalako Arretarako Zentroari jakinaraztea eta hara bideratzea
- Berehalako Arretarako Zentroaren premiei aurre egiteko unean uneko laguntza ematea, zentro horrek eskatuz gero: Laguntza eta euskarria behar duten pertsonen dagokion unean lagun egitea, epaiketa azkarretan lagun egitea eta Berehalako Arretarako Zentrora eramatea.



1.3.1.3. Ekintza Komunitarioko Zerbitzua

Zerbitzu horrek Donostiako auzoetan dauden gizarte zerbitzuetako zentroyen sareari egiten dio erreferentzia. Zentro horiek dira Donostiako gizarte zerbitzuetara sartzeko bidea.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arretaren esparruan, zerbitzu horretako gizarte langileek batik bat hiru eginkizun hauek izango dituzte:

- Egoerak detektatzea
- Biktimari eta haren familia testuinguruari buruzko informazioa biltzea
- Kasuak bideratzea

1.3.2. Berdintasun Bulegoa

Bulego horrek eginkizun hauek izango ditu:

- Kasuak detektatzea eta jakinaraztea, betiere biktimei informazioa emanez eta dokumentu eredu bat erabiliz
- Kasuak bideratzea
- Zerbitzuak eta baliabideak koordinatzea, Emakumeen Etxeko koordinatzailearen bidez
- Hileko jardueren eta urteko zerbitzuen programen berri ematea

1.3.3. Segurtasun kidegoak: Udaltzaingoa eta Ertzaintza

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei dagokienez, eginkizun nagusi hauek dituzte:

- Etxeko indarkeriaren edo genero indarkeriaren kasuekin lotutako biktimen eskariak lehenetsunez tratatzea, emakumea bere kabuz, lagunduta, udaleko gizarte zerbitzuek bideratuta edo poliziaren esku hartze baten harira joaten dela ere.
- Salatutako gertaerak ikertzea eta atestatua bideratzea. Atestatuan hau guztia jaso beharko da: biktimaren eta lekukoaren adierazpena, dagokion informazio eginbideak, egilea atxilotzea (beharrezkoa bada), armak konfiskatzea, begiz ikuskatzea, zitazio judizialak eta auzitegi medikuarenak, aurrekariak bilatzea eta beharrezkoak diren beste eginkizun batzuk.
- Erasotzailearekin jardutea eta elkarrizketak egitea, beronen segimendua egiteko eta berau kontrolatzeko. Helburua arriskua ongi ebaluatzea da, eta, beharrezkoa izanez gero, erasotzailearen jokabideak bideratu ditzaketan talde espezializatuek esku hartzea.
- Genero indarkeriaren biktima den emakumeak salaketa aurkeztean, biktima den emakumea Udaleko gizarte zerbitzuetan artatuta dagoen ala ez ikustea.



- **Biktimaren baimenarekin, Udaleko gizarte zerbitzuetako (UGZ), IMBAZeko eta GLUZeko teknikariei (gizarte langileei eta psikologoei) poliziaren esku hartzearen eta kasu zehatz bakoitzaren berri ematea, zer esku hartze egin behar den azter dezaten eta esku hartze hori egin dezaten. Komunikazio hori eta komunikazio horretarako beharrezkoa den baimena salbuetsi egingo dira, baldin eta ikusten bada biktima bizi arriskuan dagoela eta/edo haren ardurapean dauden adingabeak babesik gabe daudela.**
- **Halaber, biktimarekin lehen kontaktua izaten den unetik, bermatu egingo da biktimari modu ulergarrian eta haren unean uneko gogo aldartea guztiz errespetatuz ematen zaiola eskuragarri dituen gizarte zerbitzuei buruzko informazioa.**
- **ARRISKUA EBALUATZEA**, gizarte zerbitzuekin lankidetzan eta oinarritzat hartuta babes osoa bermatzeko neurriei buruzko legearen eraginkortasunerako koordinazio protokoloa.
- **BABES AGINDUEN SEGIMENDUA** egitea; hau da: biktimarekin banakako elkarrizketak egitea, etxera bisitak egitea, telefonoz deitzea, prebentzio zaintzak egitea eta erasotzaileak kontrolatzea.
- **GPSarekin lotutako gertakarietan esku hartzea eta berauek kontrolatzea**, helburu horrekin sortutako udal batzordearen partaidetzarekin.

2. JARDUERA PROZEDURAK

2.1. Faseak

2.1.1. Eskaera jasotzea

Eskaera JASOTZEAN hasten da prozesua. Eskaera egiteko moduak:

1. Biktimak bere kabuz egin dezake: Hitzordua emango zaio IMBAZeko teknikariarekin, behar duen arreta emateko.
2. Hirugarren pertsonak gertaeren berri eman ondoren:
 - a) Hala nola oinarritzako gizarte zerbitzuetako, Foru Aldundiko gizarte zerbitzuetako, Ertzaintzako, Udaltzaingoko, Emakumeen Etxeko, osasun zerbitzuetako eta Hezkuntzako profesionalek.
 - b) Herritarrek
 - c) Beste erakunde batzuek

Profesionalek indarkeria matxistako egoera bat detektatzen dutenean, kasua jakinaraziko dute, biktimaren baimen informatuarekin, **12311n zenbakia duen dokumentuaren** bitartez: «Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpena».

Erreferentziazko gizarte zerbitzuan FAMILIA ESPEDIENTERIK EZ badago, bi espedientetan BANATUKO da: gizonarena eta emakumearena. Bizikidetzaren unitate bat irekiko da, emakumearekin bakarrik eta, hala badagokio, haren ardurapean dauden adingabeekin.



Emakumeak dagoeneko espediente irekia badu eta IMBAZen bidez esku hartzeko eskatzen badu, honela jokatu da:

- Senarrarekin bizitzen jarraitzen badu, bizikidetzak unitateak berdin jarraituko du.
- Egiteko banaketa bat gertatzen bada, bizikidetzak unitatea banatuko da: alde batetik, emakumea eta adingabeak, baldin eta adingaberik badu, eta, bestetik, gizona bakarrik.

Edonola ere, komeni da erreferentziazko gizarte langileak eta IMBAZeko teknikariak batera egitea ebaluazioa; izan ere, hainbat egoera egon daitezke, kontuan hartu behar direnak, batik bat laguntza ekonomikoak emateari begira.

Emakumeari oinarrizko gizarte zerbitzua edo arreta emateko gunea aldatzeko aukera emango zaio. Emakumeak zerbitzu berean arreta jasotzen jarraitu nahi izanez gero, erasotzaileari beste oinarrizko gizarte zerbitzu batean edo arreta emateko gune batean emango zaio arreta.

2.1.2. Datu bilketa

Indarkeria matxistari eta/edo sexu erasoari buruzko datuak biltzerakoan, kontuan hartu behar da «Indarkeria matxistari buruzko informazioa biltzeko» ereduaren proposamena (**12306 zenbakia duen dokumentua**).

IMBAZeko teknikariak bere zeregina egiteko intereseko datu guztiak **ERREGISTRATUKO** ditu departamentuaren sistema informatikoan (INTRANET).

2.1.3. Balorazioa

Indarkeria matxistaren eta/edo sexu erasoaren biktimari buruzko datuen informazioa bildu ondoren, kasuaren balorazioa egingo dute: indarkeria mota eta kasuaren larritasuna. Helburua biktimari plan bat eskaintzea da, eta harekin plan hori adostea, haren premietara ahalik eta gehien egokituko dena eta beharrezkoak eta eskuragarriak diren baliabideak izango dituen.

Balorazioa egiteko, protokolo honetako «Balorazioa» tresna erabiliko da (**12336n dokumentua**), eta, hala dagokionean, «Bikotekideak emakumearen aurka indarkeria erabiltzeko arriskua neurtzeko protokoloa» deritzon dokumentua beteko da (**12343n dokumentua**).

Informazio gehiago: [Bartzelonako Udaleko protokoloa](#)

2.1.4. Fiskaltzari jakinaraztea

Jasotako kasuetan aldibereko faktoreak aztertu ondoren, **EGITATEAK AGINTE JUDIZIALARI (FISKALTZARI) JAKINARAZIKO ZAIZKIO**, hala ezartzen baita 2009ko otsaileko [“Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II akordioan”](#) . Horretarako, «Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpenaren» erudia erabiliko da (**12311n dokumentua**).



2.1.5. Segurtasun kidegoei jakinaraztea

Egitateak Udaltzaingoari edo Ertzaintzari jakinaraziko zaizkio, kasuen segimendua egin dezaten, batik bat arriskua handia dela, segimendu intentsiboa egin behar dela eta berriazko babes neurriak hartu behar direla balorazioa egindako kasuetan. Horretarako, «Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpenaren» eredu erabiliko da (**12311n dokumentua**). Eredu hori posta elektronikoz bidaliko da, **3.1.4 atalean** adierazten denari jarraikiz.

2.1.6. Babes agindua

Gizarte zerbitzuetan babes agindua eskatuz gero, ezarritako PROZEDURARI JARRAITU beharko zaio, **3. BALIABIDEAK**.
3.1.3.2.2 atalean jasotakoaren arabera.

2.1.7. Esku hartze plana – Baliabideen kudeaketa

IMBAZek esku hartzeko plan bat egingo du. Plan horretan, biktimarekin batera, hau ezarriko da:

- Helburuak
- Baliabideak
- Esku hartzearen iraupena
- Esku hartze planaren berrazterketa
- Amaiera
- Segimendua

Baliabide hauek eskatu eta kudeatu ahalko dira:

- Berehalako harrerako foru zentroa (URRATS), Egonaldi ertaineko edo luzeko harrera zentroa (Bidean), autonomia pisuak.
- Gizarte harrerako pisu espezifikoak
- Prestazio ekonomikoak: DSBE, GLL, Udalarenak
- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako berriazko prestazioak
- Gizarteratzeko eta laneratzeko programak
- Itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuak
- Tratu txarren eta/edo sexu erasoaren biktima diren emakumeentzako arreta psikologikoko zerbitzua (GFAk Gipuzkoako psikologoekin elkarlanean egindako hitzarmena)
- Orientazio sozial eta juridikoa (GFAk Gipuzkoako abokatuen elkargo ofizialarekin egindako hitzarmena)
- Beste baliabide sozial eta komunitario batzuk (Emakumeen Etxea, Etxez etxeko laguntza zerbitzua, haurtzaindegiak, familian esku hartzeko programak eta abar)

Baliabide horiek aplikatzeko prozedurak **3. Baliabideak** atalean zehazten dira.



2.1.8. Zerbitzu arteko lankidetzeta eta koordinazioa

Indarkeria matxistaren kasuak artatzeko eskumena duten zerbitzuek beste zerbitzu batzuen lankidetzeta eta/edo koordinazioa eska dezakete, **baldin eta egoerari aurre egiteko beharrezkoa iruditzen bazaie**. Lankidetzeta eta koordinazioa beharrezkoa izan daitezke kasu hauetan:

- Indarkeria matxistaren egoerak berekin dakarrenean haurrak babesik gabe gelditzea. Kasu horretan, **Haur eta Familia Zerbitzuari jakinaraziko zaio, ezarritako prozedurei jarraikiz. Lankidetzeta eta/edo koordinazio hori departamentuaren sistema informatikoan erregistratuko da.**
- Egoera dela eta beharrezkoa bada Udaleko edo beste erakunde batzuetako beste zerbitzu batzuen baliabide bat eskatzea. **Baliabidea bideratzeko, Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpen txostena erabiliko da (5. puntua.- Tresna teknikoak).**

2.1.9. Segimendua

Segimendua honelakoa izan ahalko da:

- Intentsiboa: Hilean lau elkarrizketa/kontaktu gutxienez (astean elkarrizketa bat). Kasu hauetan egingo da: berehala esku hartzea beharrezkoa den krisi egoeretan, kasua urgenteki bideratzea beharrezkoa denean –epemuga jakin bat dagoelako (haurdunaldia, epaiketa, etab.)– edo berehala jokatuz egoera nabarmen alda daitekeela jotzen denean.
- Erdi intentsiboa: Elkarrizketak egiten dira edo laguntzeko eta segimendua egiteko kudeaketak egiten dira hilean behin, gehienez. Emakumeek arreta intentsiboa izan ondoren atzerapenik ez izatearren eta helburuak lortzearren gizarte zerbitzuetako profesionalarekin harremanetan egon nahi dutenean gertatzen da.
- Mantentzekoa: Elkarrizketa bat edo kudeaketa bat egiten da bi hilean behin. Aurreko segimenduak egin dituzten emakumeak sartuko dira talde horretan.
- Halaber, esku hartzearen hasieran, erdibidean eta amaieran, intentsitate gutxiagoko segimendu bat egingo da emakumeen gainerako kasuekin, baldin eta larrialdi eta/edo krisi egoeran ez badaude eta/edo egon ez badira eta haien osotasun fisikoa arriskuan ez badago.

2.2. Arreta emateko irizpideak

2.2.1. Motak eta testuinguruak

Indarkeria matxistaren kasutzat joko dira tipologia hauek:

- Emakumearen aurkako indarkeria fisikoa
- Emakumearen aurkako indarkeria psikologikoa
- Emakumearen aurkako sexu indarkeria
- Emakumearen aurkako tratu txar ekonomikoa



Indarkeria matxista testuinguru hauetan gerta daiteke:

- Bikotekidea/bikotekide ohia
- Familia
- Lana
- Gizartea eta/edo komunitatea:
 - Sexu erasoak
 - Emakumeen genitalen mutilazioa edo hori pairatzeko arriskua
 - Ezkontza behartuak
 - Gatazka armatuen ondoriozko indarkeria
 - Sexu eta ugalketa eskubideen aurkako indarkeria

2.2.2. Larrialdiko esku hartzea

DEFINIZIOA

Larrialdiko esku hartzean, zenbait etapa daude:

1. Lehenik eta behin, berehala eta egokiro erantzun behar zaie biktimaren premiei, eta erasoak gelditu behar dira, biktimaren segurtasuna bermatuz.
2. Gero, elkarrizketa sakon bat egingo da, biktimaren gaur egungo egoera zein den jakiteko eta ulertzeko, eta, indarkeria zikloaren barruan zer mementotan dagoen, memento hori aprobetxatzeko, ziklo hori hauts dezakeen erabaki bat hartze aldera.
3. Kontuan hartuko da ea etxean erasotzailearekin gelditu den semea edo alaba indarkeria pairatzeko arriskuan dagoen. Haur horren segurtasuna bermatzeko beharrezkoa dena egitea lehentasun bat da.

OINARRIZKO PRINTZPIOAK

- Larrialdi egoeretan, printzipio hauen arabera jokatu behar da:
- Esku hartze azkarra: Indarkeria matxistaren biktimek egiten dituzten babes eta laguntza eskaerei ahalik eta azkarren erantzuteko modua bilatu behar da.
- Segurtasuna: Biktimei segurtasun eta lasaitasun handien ematen dieten baldintzetan egin behar da esku hartzea.
- Informazioa: Biktimei argi eta garbi jakinarazi behar zaie zein diren beren legezko eskubideak eta zer baliabide dituzten eskura, eta erabakiak beharrezkoa den denborarekin eta lasaitasunarekin hartzeko baldintzak sortu behar dira.



KASUAK

Kasu hauetan egingo da larrialdiko esku hartze bat:

- Eraso fisikoen eta/edo sexu erasoen ondorioz biktimak lesioak baditu eta lesio horiek zaintzeko osasun laguntza beharrezkoa bada, edo halako lesioak dituela uste bada, nahiz eta ikusten ez diren.
- Osasun laguntza beharrezkoa ez den arren biktimak erasotzailearekin bizitzeari utzi nahi diola adierazten badu edo biktimaren osotasun fisikoa arriskuan badago edo biktima egoera emozional larrian badago.

JARDUERA PROZEDURA

Indarkeria matxistaren eta/edo sexu erasoaren biktima den emakume batek oinarrizko gizarte zerbitzuetara, gizarte larrialdietarako zerbitzuetara edo Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeak Artatzeko Zerbitzura jotzen duenean, lehenbailehen eta lehentasunez artatu beharko da, eta, bere problematikaren arabera, honela jokatu da:

- Biktimak **lesioak** baditu eta lesioak zaintzeko **osasun laguntza beharrezkoa** bada, eskura dagoen zerbitzuaren arabera (GLUZ edo IMBAZ) artatuko da, betiere Urdaneta 13ko bulegoetan, eta Gizarteratze Zerbitzua, Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeak Artatzeko Zerbitzuarekin eta GFAko Gizarte Larrialdiekin harremanetan jarriko dira, biktimari osasun zentro batera lagun egiteko, larrialdiko esku hartzeari jarraitutasuna emateko eta beharrezkoak diren baliabideak aktibatzeke. GFaren «INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO LARRIALDIKO ARRETA» dokumentua erantsi zaio protokolo honi. Poliziak esku hartzea eskatu ahalko da, biktimaren segurtasun eta osotasun fisikoa arriskuan badago. Biktimak salaketa jarri nahi badu, salaketaren izapideak egin ondoren, biktimari jakinaraziko zaio arreta jasotzen jarrai dezakeela, eta eskuragarri dauden baliabideak eskainiko zaizkio, bere babeserako eta bere ardurapean dauden pertsonen babeserako beharrezkoak izan daitezkeenak.

Berrik gertatutako **sexu eraso** bat bada, SOS – Deiaki kasuaren berri emango zaio egin beharreko kudeaketak egin ditzan (anbulantzia bidali, poliziari esku hartzeko eskatu...), biktimari gertuen dagoen larrialdi zerbitzura lagun egingo zaio, eta esango zaio ez garbitzeko eta arropa ez aldatzeko, eta ez edateko eta jateko, baldin eta erasoak ahotik egin badira, balizko prozesu judicial baterako funtsezkoak diren frogak ez ezabatzeko, erakundeen arteko II. akordioan jasotzen denaren arabera.

Ospitalera bidaliz gero, lehenbizi ospitalera hots egingo da, arretarako antolamendua prestatzen has dadin, eta ospitalea arduratuko da egin beharreko kudeaketak egiteaz, auzitegiko medikua bertan izan dadin, azterketa medikoa egin eta laginak hartzeko. Edonola ere, auzitegiko medikuari gertaerari buruz eskura dauden datu guztiak emango zaizkio.



- **Biktimak osasun laguntzarik behar ez badu** baina erasotzailearekin bizitzeari utzi nahi badio, oinarrizko gizarte zerbitzuetako eta Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzuetako profesionalak eskaera jasoko dute, eta koordinatu egingo dira, arrisku maila zein den aztertzeko eta, horren arabera, zer udal eta/edo foru baliabide behar diren ikusteko. Elkarrizketaren helburu nagusia biktimari laguntza, euskarri emozionala, baliabideei buruzko informazioa eta bere problematikarentzako balizko irtenbideei buruzko orientazioa ematea da. Biktima polizia etxera bideratuko da, eta hara lagun egingo zaio, gertaerak salatu nahi baditu. Ikus bedi GFaren «INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO LARRIALDIKO ARRETA» dokumentua.

2.2.3. Esku hartze arrunta


Donostiako udalerrian errolatuta dauden eta/edo ohiko bizilekua duten indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak artatuko dira.

Eskaerak ez badu eskatzen urgentziazko esku hartze bat egitea, zerbitzu hau arduratuko da arreta emateaz:

IMBAZ - Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzua. Zerbitzu horrek egingo ditu **2.1 puntuan** azaldutako prozeduraren faseak.




2.2.4.2. Esku hartzea krisi egoeran eta biktimak osasun laguntzarik behar ez duenean





2.2.4.3. Esku hartze arrunta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin





2.3. Berriazko kasuak

2.3.1. Sexu erasoak

A) **POLIZIAREN JARDUNA**

LARRIALDIA ARTATZEA

- Biktimak hala eskatzen duenean edo beste pertsona edo erakunde batzuen salaketa tarteko beharrezkoa denean, polizia biktimaren etxera edo biktima dagoen lekura joango da, eta bertan geldituko da behar beste denbora. Gomendagarria izango litzateke gutxienez agenteetako bat emakumea izatea.
- Biktimari jakinaraziko zaio prozesuan zehar gizarte zerbitzuetako profesional baten laguntza eta euskarri emozionala izan dezakeela.
- Biktimak lesiorik badu, dagokion zerbitzu medikora lagun egingo zaio, eta lesioen parte ofiziala eskatzeko esango zaio, salaketa egitean aurkezteko.
- Berriki gertatutako sexu eraso bat bada, gertuen dagoen ospitaleko larrialdi zerbitzura lagun egingo zaio. Biktimari esango zaio ez garbitzeko eta ez aldatzeko arropa, eta ez edateko eta jateko, erasoak ahotik gertatu badira. Ospitalera eramanez gero, polizia taldeak bermatuko du auzitegiko medikuari ospitalean egoteko eskatu zaiola, azterketa medikoa egin eta laginak har ditzan. Halaber, auzitegiko medikuari gertaerari buruz eskura dauden datu guztiak emango zaizkio.
- Ez da aitortzen hartuko, harik eta osasun langileek azterketa medikoa egin eta biktimaren premia pertsonalak asetzen diren arte.
- Adingaberik egonez gero biktimaren ardurapean, biktimak adingabeez arduratu ezin duen bitartean, biktimak izendatutako pertsonaren tutoretzapean edo familiakoekin jarriko dira; hori ezinezkoa bada, ezarritako zerbitzu publikoekin harremanetan jarriko dira (Foru Aldundiko adingabeen zerbitzuak, udal zerbitzuak, etab.), adingabeez arduratu daitezten. Adingabea biktimatzat jotzen bada edo babesik gabeko egoeran egon daitekeela jotzen bada, txosten bat idatzi beharko da, Foru Aldundiko dagokion gizarte zerbitzuari zuzendua.

B) **GIZARTE ZERBITZUEN JARDUNA:**

Ikus «2.2.2 Larrialdiko esku hartzea» puntuko jarduera prozedura.



C) **OSASUN ARLOKO JARDUNA:**

Etxeko tratatu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioari jarraikiz, arlo horretan egin behar diren jarduerak jasotzen dira jarraian.

C.1.- BERRIKI GERTATUTAKO SEXU ERASOEN AURREAN NOLA JOKATU (72 ORDU BAINO GUTXIAGO)

- Ospitaleak beti deituko dio dagokion barruti judizialeko auzitegiko medikuari, eta hark, dagokion baimena eskuratu ondoren, ospitalera joan beharko du. Hura iritsi arte itxaron beharko da⁴, salbu eta egoera larria bada edo biktimaren bizia arriskuan badago. Ospitaleko medikuak auzitegiko medikuari lagunduko dio, azken horrek delitua ikertzen duen bitartean.
- Osasun arloko jarduna eta auzitegiko medikuarena amaitu eta, beharrezkoa denean, dagokion tratamendua ezarri ondoren, lesioen partearen eredia bete beharko da.
- Lesioen parte bete ondoren, biktimaren aurrean irakurriko da, eta lehenbailehen bidaliko da emakumeen indarkeriaren arloko epaitegira edo guardiako epaitegira, **«Bidalketa ofizioa»** eredia erabiliz. Lesioaren partearen eta «Bidalketa ofizioaren» kopia bat emango zaio eraso jasanez duen pertsonari, salbu eta horrek haren segurtasuna pertsonala arriskuan jartzen bada; kasu horretan, konfiantzazko pertsona bat izendatzeko eskatuko zaio, pertsona horrek jaso dezan. Historia klinikoan, lesioen partearen eta **«Bidalketa ofizioa»** dokumentuaren kopia bat jaso beharko da (**5. puntua.- Tresna teknikoak**).
- Larrialdietako zerbitzuen edo arreta espezializatuko zerbitzuen eskutik emandako lehen arreta amaitzen denean, beste txosten bat idatziko da, eta biktimari emango zaio. Txosten horrek aukera emango dio aurrerantzean biktima artatuko duen medikuari ospitalean ezarritako tratamenduaren segimendua behar bezala egiteko.
- Amaitzeko eta kontsulta amaitu aurretik, biktimari aholkularitza emango zaio gizarte eta babes neurriei buruz osasun zentroko balia bideen bidez (ospitaleko gizarte zerbitzuaren bidez), edo, hala badagokio, gizarte zerbitzuetako edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko profesionalekin urgenteki harremanetan nola jarri esango zaio.

C.2.- BERRIKI GERTATU EZ DIREN SEXU ERASOEN AURREAN NOLA JOKATU (72 ORDU BAINO GEHIAGO)

- Balizko kalte eta lesio fisiko eta psikikoetarako laguntza emango da, jarduera terapeutikoetarako dagokion plana abiaraziz.
- Laguntza eman eta, beharrezkoa denean, dagokion tratamendua amaitu ondoren, lesioen partearen eredia beteko da, 72 ordu baino lehenago gertatutako kasuetarako arestian adierazitako jarraibideen arabera.

³ Urgentziarako kontakturako, ezinbestekoa da profesional horien telefono zenbakia agerian eta eguneratua egotea.

⁴ Itxaronaldi horretan, biktimari etengabe lagun egingo zaio, bizi duen egoera leuntzen saiatuz.



2.3.2. Biktima adingabeak

Emakumearen aurkako indarkeria arriskuaren balorazioa egin ondoren ezartzen den larritasun mailaren arabera, biktimaren ardurapeko seme-alabak babesik gabe daudela jakinaraziko da, ofizioz, eta kasua Haur eta Familia Zerbitzuari jakinaraziko zaio, babesgabetasun maila azter dezaten eta zer baliabide behar diren ikus dezaten.

DETEKTATZEA

Indarkeria matxistak zuzenean eta zeharka adingabeengan zer ondorio eta eragin dituen identifikatzea funtsezkoa da esku hartze goiztiarra egiteko eta adingabeei beren premietara hobekien egokitzen diren baliabideak emateko.

BIDERATZEA

Kasua detektatu ondoren, IMBAZek txosten bat egingo du, adingabeak babesik gabe egoteko arriskuan daudela jakinarazteko, eta Prebentzioa, Haurrak eta Familia Zerbitzura bideratuko du, azter dezaten.

Kasua lehenbailehen eta ahalik eta modu eraginkorrenean bideratu behar da.

2.3.3. Erroldatu gabeak

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak **beren kabuz** joaten badira udal zerbitzuetara (GLUZera, oinarrizko gizarte zerbitzuetara edo IMBAZera), Udaltzaingora edo Ertzaintzara eta ez badira Donostian bizi eta ez badaude Donostian erroldatuta, kasu horietan erroldatuta dauden udalerriko gizarte zerbitzuetara bideratuko dira, esku hartzea Donostian egitea erabaki ezean, segurtasun eta konfidentzialtasun irizpideetan oinarrituta. Donostian erroldatuta ez badaude eta/edo haien egoera larria bada, larrialdia artatuko da, eta emakumearen eskaeraren balorazioa egingo dute, Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuetara bideratzeko.

2.3.4. Beste administrazio bateko eskaera

Indarkeria matxistaren biktima den emakume bati arreta emateko eskaera beste administrazio batek egiten duenean, kasu horietan **Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpen** txosten bat (**5. puntua.- Tresna teknikoak**) eskatuko zaio administrazio horri pertsona interesdunaren inguruan, egoera eta egindako eskaeraren balorazioa egin eta arreta eta laguntza emateko. IMBAZek egingo du balorazioa, eta hark erabaki beharko du zer egin, biktimaren segurtasuna eta babesa hartuz irizpide nagusizat.



2.3.5. Emakumearen indarkeriaren eraginpean dauden eta/edo indarkeria hori jasaten duten familiako kideei lagun egitea eta arreta ematea

Egoera bat detektatzen bada non bizikidetzaren unitateko kide diren lehen mailako familiako kideak emakumearen aurkako indarkeriaren eraginpean baitaude eta/edo indarkeria hori jasaten baitute, informazioa, orientazioa, laguntza eta indarkeria matxistaren biktimetzat eskuragarri dauden baliabideak jaso ahalko dituzte.

2.3.6. Dibertsitate funtzionala duten emakumeak

Ikerlanek erakusten dutenez, dibertsitate funtzionala duten emakumeak askoz eskala handiagoan dira abusuen biktima dibertsitate funtzionalik gabeko pertsonak baino. Dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako indarkeria mota batzuk ez dira hartu indarkeria matxistatzat, nagusitasuna ematen zaiolako dibertsitate funtzionalean oinarritutako diskriminazioari

1/2004 Lege Organikoaren 18.3 artikuluan, hauxe jasotzen da: “Era berean, behar diren baliabideak ezarriko dira, genero indarkeriaren biktima diren emakumeek informazio osoa eskuratzeko eskubidea izan dezaten, euren inguruabar pertsonal eta sozialengatik informazio hori eskuratzeko arazo gehiago dituztenean.”

Halaber, **1/2004 Legearen** 18.2 artikuluan ezartzen denez, desgai izateaz gain genero indarkeriaren biktima diren emakumeek euren eskubideen eta baliabide eskuragarrien gaineko informazio osoa jasotzea bermatuko da. Komunikatzeko desgaitasuna duten pertsonen berriazko arreta emango zaie, eta informazio hori eman beharko da «erraz eskuratu eta ulertzeko moduan, esaterako, zeinu mintzaira edo beste komunikazio modalitate edo aukera batzuk erabilita, sistema ordezko eta gehigarriak barne».

Artikulu horri dagokionez, desgaitasunen bat duten pertsonen eskura jarriko dira eskuragarri dauden baliabideak, eta egin behar diren kudeaketak egingo dira haien premiak zerbitzu espezializatuen bidez asetzeko (garraiorako laguntzak, lagun egitea, zeinu hizkuntzako interpreteak, Braille moduan idatzitako dokumentuak, komunikazio handigarria, etab.).

Halaber, zentro egokituak eta irisgarriak egongo dira behin-behineko harrera egiteko. Desgaitasunen bat duen emakume batek ostaturik behar badu bere babeserako, Foru Aldundiko larrialdietarako harrera baliabideetara bideratuko da.

2.3.7. Emakume etorkinak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 3. artikuluan ezartzen duenez, “Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioetarako eskubidearen titular dira Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako edozeinetan erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta legezko eta benetako bizilekua bertan badute. Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzu eta prestazioetarako eskubidearen titular dira sistemaz baliatu ahal izateko eskabidea egin aurreaurreko 12 hilabete jarraituetan Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon direla eta benetako bizilekua bertan izan dutela egiaztatzen duten pertsonak. Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoaren kalterik gabe [...]. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden pertsonak [...] gizarte premia larrikotzat definitutako zerbitzu eta prestazioez» baliatu ahalko dira.



[Genero indarkeriaren aurkako oso-osoko babes emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Legearen](#) 17. artikuluan adierazten denez, «*Genero indarkeriaren biktima diren emakume guztiek bermatuta dituzte lege honetan aitortutako eskubideak, euren jatorria, erlijioa edo beste edozein baldintza nahiz inguruabar pertsonal edo sozial gorabehera*». Horrek esan nahi du tratatu txarren biktima diren emakume etorkinek, euren dokumentu egoera gorabehera, aitortua dutela «*arreta, babes eta harrera, eta sendabide osorako zerbitzuak izateko*» eskubidea.

Hortaz, emakume etorkinak erroldatzea sustatu eta erraztu behar da; izan ere, hori da gizarte babeserako sareko oinarritzko prestazioak eskuratzeko bidea.

Era berean, [1/2004 Legean doako laguntza juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeari](#) buruz ezarritakoaren arabera, «*Etxeko tratatu txarren biktima diren emakumeek eskubidea dute, legez Espainiako lurraldean bizi ez badira ere, abokatuaren eta prokuradorearen doako ordezkaritza izateko administrazio prozesu eta prozedura guztietan lehenbiziko aldiz, halakoak jasandako indarkerian oinarritzen direnean zuzenean edo zeharka, baldin eta emakume horiek egiaztatzen badute auzitan aritzeko baliabiderik eza*».

[Abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoak, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritarrok gizartean integratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duenak](#), hauxe ezartzen du 3. artikuluko 2. puntuan: «*Atzerritarren oinarritzko eskubideei buruzko arauak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren eta Espainian indarrean dauden gai horiei buruzko nazioarteko itun eta akordioen arabera interpretatuko dira, eta ezingo da alegatu erlijio sinesmen edo uste ideologiko edo kultural kaltegarriak izatea eskubide horien aurkako ekintzak edo jokabideak egiteko*». 14.3 artikuluan dioenez, «*Atzerritarrek, haien administrazio egoera edozein dela ere, oinarritzko zerbitzu eta prestazioak jasotzeko eskubidea dute*».

Lege horren 19. artikuluko 2. puntuan, inguruabar berezietan familia berrelkartzearen ondoreak zein diren ezartzen da: «*Berrelkartutako ezkontideak bizileku baimen independentea eskuratu ahal izango du, bere premiak asetzeko adina baliabide ekonomiko dituenean. Berrelkartutako ezkontidea etxeko indarkeriaren biktima bada, aurreko baldintza bete ez bada ere, bizileku eta lan baimen independentea lortu ahal izango ditu, haren aldeko babes agindua eman denetik edo, halakorik ezean, Ministerio Fiskalak haren aldeko txosten bat egin duenetik, genero indarkeriaren zantzuak daudela adierazten duena*».

31 bis artikuluan, genero indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrek [behin-behineko egoitza eta lan baimenak](#) eskatzeko baldintzak zein diren ezartzen da:

1. «*Genero indarkeriaren biktima diren emakume etorkinek, haien administrazio egoera edozein dela ere, bermatuak dituzte genero indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan aitortutako eskubideak, bai eta indarreko legerian ezarritako babes eta segurtasun neurriak ere*».



2. «Emakume etorkin baten aurkako genero indarkeriako egoera bat salatzean agerian jartzen bada egoera irregularrean dagoela, instruktoreak bertan behera utziko du Lege honen 53.1.a) artikulua ez betetzeagatik hasitako administrazio espediente zehatzailea, zigor arloko prozedura ebatzi arte».

3. «Aurreko paragrafoan deskribatutako egoeran dagoen emakume etorkinak egoitza eta lan baimenak eskatu ahalko du inguruabar bereziengatik, haren aldeko babes agindua eman denetik edo, halakorik ezean, Ministerio Fiskalak haren aldeko txosten bat egin duenetik, genero indarkeriaren zantzuak daudela adierazten duena. Baimen hori ez da ebatziko zigor arloko prozedura amaitu arte».

«Aurrekoa gorabehera, inguruabar bereziengatik baimena emateko eskumena duen agintariak behin-behineko egoitza eta lan baimenak eman ahalko dizkio emakume etorkinari. Emandako behin-behineko baimena amaitu egingo da inguruabar bereziengatik behin betiko baimena ematen edo ukatzen denean».

4. «Zigor arloko prozedura kondena epai batekin amaituz gero, interesdunari jakinaraziko zaio eskatutako behin-behineko egoitza eta lan baimenak emango zaizkiola. Halakorik eskatu ez badu, jakinaraziko zaio inguruabar bereziengatik egoitza eta lan baimenak jasotzeko aukera duela, eta eskaera egiteko epe bat emango zaio».

«Zigor arloko prozedura amaitzean genero indarkeriako egoerarik ez dagoela ondorioztatzen bada, hasieran bertan behera utzitako administrazio espediente zehatzaileak aurrera jarraituko du».

Europar Batasuneko herritarren erregimenari dagokionez (2007ko martxoaren 28tik indarrean dagoen [otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuaren](#) bidez arautua), «egoitza eta lan baimena izango dute ezkontideak, ezkontza deuseztasunik, dibortziorik edo legezko banaketarik ez bada, erregistro publikoan inskribatutako izatezko bikoteak eta ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen 21 urtetik beherako ondorengo zuzenek, desgaitasunen bat dutenek edo haren ardurapean bizi direnek. Emakumeak ezkontza deuseztasuna, dibortzioa edo legezko banaketa lortu edo erregistro publikoan izatezko bikote gisa baja eman ondoren, 6 hilabete izango ditu egoiliar atzerritarren txartelaren ordez Europar Batasuneko egoiliarraren txartelaren eskatzeko» (erregimen orokorra).

Emakume etorkin batek aholkularitza juridikoa behar badu banaketari edo dibortzioari buruz, informazioa emango zaio eta Eusko Jaurlaritzako **Aholkularitza Juridiko Sozialerako Zerbitzura** bideratuko da. Gizarte langileak Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak zer ezaugarri dituen eta arreta jasotzeko baldintzak zein diren azalduko dio erabiltzaileari. Gizarte langileak kontsultak egin ahalko dizkio Eusko Jaurlaritzako Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuari, telefonoz edo posta elektronikoz: (tel.: **900 84 01 26**; edo helbide elektronikoa: immigrazioa-asesoria@ej-gv.es edo **944 001 900**; helbide elektronikoa: juridika@biltzen.org) kasu horretan, beharrezkoa den informazioa bilduko du etorkinaren egoerari eta egiten duen eskaerari buruz. Edo gizarte langileak telefonoa eta helbide elektronikoa zein den jakinarazi ahalko dio erabiltzaileari, kontsulta zuzenean berak egin dezan.

Emakume etorkinek ez dute lagundu diezaikeen berezko sare sozialik, eta, funtsean, horregatik daude ahulezia egoeran. Askotan, zailtasun horiei beste oztopo batzuk gehitu behar zaizkie, ekonomiarekin, hizkuntzarekin eta administrazioarekin lotuak. Faktore horiek zaildu egiten dute beren bizitza berriz osatu eta egiteko emantzipazio prozesua.



Badago DUALIA izeneko telefono mugikor bidezko teleitzulpen zerbitzu bat, Eusko Jaurlaritzarena, harrera gizartearen hizkuntza ez dakiten emakume etorkinei arreta emateko.

2.3.8. Sexu salerosketaren eta esplotazioaren biktima diren emakumeak

Pertsonen salerosketa pertsonak hartzean, garraiatzean, lekuz aldatzean eta harrera egitean datza, indarra, iruzurra edo indarkeria erabiliz edo botereaz edo zaurgarritasun egoera batez abusatuz, beste pertsona batengan agintea duen pertsona baten baimena eskuratzearren sariak edo onurak emanez edo jasoz, sexualki esplotatzeko.

Emakume bat salerosketaren biktima izan daiteke baldintza hauek betetzen baditu:

- Behartuta eta ingurune zikin batean eta higienarik gabe edo esplotatuta egiten du lan.
- Mehatxu egiten diote: esaten diote jasotzen dituen aginduak betetzen ez baditu berari eta familiari gauza txarrak gertatuko zaizkiola.
- Iraganean prostituzioan aritu bada ere, orain prostituzioan ari bada, beste pertsona batzuek hartara behartzen dutelako ari da.
- Iruzur egin diote: egiten ari ez den lan bat egingo zuela hitzeman zioten.
- Dokumentuak eramatea galarazten diote (NAN, pasaporte, egoiliar txartela, dirua).
- Hitz egiteko beldur da, beldur baita berari edo familiari zer edo zer gertatuko ote zaion.
- Indarkeria fisikoa edo sexu indarkeria pairatu du nagusien edo aginduak jasotzen dituen pertsonen eskutik.
- Ez daki zer hiritan bizi den, eta ezin du askatasunez beste hiri batera joan edo lana aldatu, hala nahi izanez gero.
- Beti joan behar du norbaitek lagunduta, etxean eta/edo lantokian norbaiten begiradapean dago beti, eta segurtasun neurri sendoak dituzte, hala nola burdin sareak eta zaintza kamerak.
- Identifikatzeko markak edo zeinuak eramatera behartuta dago.
- Gaixotasunen bat edo ondoezen bat du, baina osasun zerbitzuetan artatzea galarazten diote.

Salerosketaren biktima den emakume baten eskubideak:

Atzerriartasun Legeak 30 eguneko gutxieneko hausnarketa epe bat ezartzen du, emakumea osatu dadin eta polizia ikerketan lagundu nahi duen ala ez erabaki dezan.

Emakumeak hausnarketa denboraldia hastea erabakitzen badu, laguntza, ostatua eta babes eskainiko zaizkio. Denboraldi horretan, behar bezala jakinaraziko zaio zer egin dezakeen sexu esplotaziotik ihes egiteko, eta erabaki onenak hartzen lagunduko zaio, ingurune seguru batean.

Horretaz gainera:

- Espediente zehatzailerik badu, hala nola kanporatzeko espediente, bertan behera gelditu ahalko da behin-behinean.
- Egoiliar baimena emango zaio, ezohiko arrazoiengatik.



- Osoko laguntza eskainiko zaio, salerosketaren biktimen harreran, tratamenduan, laguntza mediko eta psikologikoan eta arretan espezializatutako gobernuz kanpoko erakundeen eskutik. Erakundea Askabide da (helbidea: babes kalea 1, Bilbo; telefonoa: 944164828).

Agintariei ikerketan laguntzea erabakiz gero, edo egoera pertsonala dela eta beharrezkoa denean:

- Emakumeak ez du erantzukizun administratiborik izango.
- Egoitza eta lan baimenak emango zaizkio Espainian.
- Nahi izanez gero, jatorrizko herrialdera itzultzen lagunduko zaio.
- Ez du dokumenturik aurkeztu beharko, baldin eta dokumentu horiek eskatuta arriskuan jartzen bada.

Salerosketaren biktima den emakume bat ezagutzen badugu edo besterik gabe giza salerosketaren aurrean nola jokatu jakiteko, deitu Eusko Jaurlaritzaren mende dagoen doako telefonora (kontsultatu EMAKUNDE). 24 orduko zerbitzu bat da, konfidentziala eta zentzumen desgaitasunetara egokitua. Aldibereko itzulpen zerbitzu bat du, itzulpenak 51 hizkuntzatarara egiten dituena.

900 840 111

Egoki denean, telefono horren bidez egoeraren ardura hartuko litzateke eta salerosketaren protokoloa abiaraziko litzateke, emakumeari harrera, babes, laguntza medikoa, ostatua eta abar emateko.

3. BITARTEKOAK

3.1. Zerbitzuak

3.1.1. Udala

3.1.1.1. Udalaren abegi etxeak

DESKRIBAPENA

Abegi etxeak babeserako laguntza bitarteko sozial bat dira, eta emakumeen eta, egonez gero, adingabeen gizarteratze autonomo eta independentea lortzea dute xede.

Zerbitzuak ostatua emango du, inolako tutoretzarik gabe, eta ez du izango hartutako pertsonak zaintzeko langilerik, baina Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzuak (IMBAZ) kasuen jarraipena egingo du. Protokoloa eskabidearekin, espedientea izapidetuz eta Zinegotzitzak erabakita abiatzen da, baina, urgentziazko egoeretan, izapide hori erabiltzaileak etxebizitzan daudenean egin ahal izatea aurreikusten da.



Hiru hilekoa da aurreikusitako egonaldirik luzeena. Nolanahi ere, egonaldia inoiz ere ez da amaituko familia etxebizitzaren erabilera esleitzen duen babes aginduari buruzko autoaren ebazpen eguna baino lehen (27/2003 Legea, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautu duena), erabiltzaileak berak amaitzeko eskatu ezean. Hiru hileko epea igarota, ostatu premia gizarte edo etxebizitza arloko beste bitarteko edo programa batzuen bidez bete ahal da, betiere premiak berriz aztertuta horrela jokatzeko komeni dela ondorioztatzen bada; bestela, hasieran erabakitako epea luzatu ahal izango da, abegi egiteko arrazoiek iranez gero.

Problematikari laguntza eta tutoretza prozesu baten bidez egiten zaio aurre, eta horren ondorio da **Banakako Esku hartze Planak** egitea, bereziak helburuetan eta zereginetan, familia unitateko kide bakoitzarentzat, bai eta familia sistemarekin lan egitea ere. Azken xedea familia bizitza **berreraikitzea eta normalizatzea** da.

HARTZAILEAK

Abegi etxeak, bai Gipuzkoako Foru Aldundiarenak bai Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzuarenak, honako baldintza hauek betetzen dituzten eskatzaileek lortu ahal izango dituzte:

- Emakumezko adindunak edo adingabe emantzipatuak, babes eta urgentziazko aldi baterako ostatatze premia badute, ohiko etxebizitza edo bizitegia utzi behar izan badute genero indarkeriagatik, eta horrelako zerbitzu baten beharra badute, dela bakarrik erabiltzeko, dela zaindu ohi dituzten beste pertsona batzuekin batera erabiltzeko.
- Beste etxebizitzarik ez izatea segurtasunez bizi ahal izateko, edo, baldin badute, etxebizitza behar bezain azkar ezin baliatu ahal izatea.
- Donostian erroldatuta egotea, Gizarte Ongizateko Zuzendaritza honetako Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzuak kontrakoa adierazi ezean, indarreko araudian, erakunde arteko lankidetzaren hitzarmenetan edo zuzendaritza horrek egokitzen jotako ohiz kanpoko kasuetan.

PRESTAZIOAK ETA LAGUNTZA BITARTEKOAK

Arretarako banakako edo familiako planaren barruan, abegi etxeen erabiltzaileek gizarte, hezkuntza eta laguntza programa bat izan beharko dute, eta erabiltzaile bakoitzaren profilerak eta beharretara ongien egokitzen diren bitarteko sozialetarantz orientatu beharko dira.

- A) Laguntza psikologikoa.
- B) Arreta eta esku hartze psikologikoa, terapeutikoa eta gizarte nahiz hezkuntza arloko indarkeria matxistaren eraginpeko seme-alabekin, indarkeriaren eragina ahalik eta gehien gutxitzeko eta indarkeriari aurrea hartzeko.
- C) Orientabide eta aholkularitza juridikoa.
- D) Diru laguntzak.
- E) Gizarteratzea, laneratzea eta autonomia ekonomikoa eta pertsonala lortzeko prestakuntza jarduerak.



F) Babestutako emakumeen ardurapeko pertsonentzako arreta bitartekoak; bereziki, haurtzaindegiak umeentzat, eta etxeko eguneko arreta zerbitzuak mendeko helduentzat.

G) Nahitaez eskolatuta egoteko adinean daudenak lehenbailehen eskolatzea.

ABEGI ETXEBIZITZAK

Bitartekoaren kokapena: IMBAZ - Urdaneta kalea, 13

Emakumearentzako **jakinarazteko helbidearen ondorioetarako**, eman helbide hau: IMBAZ - Urdaneta kalea, 13

Arreta ordutegia: 09:00-14:00.

Hitzordua eskatzeko telefonoa: 943-481400 (1411 luz.)

Genero indarkeriaren biktimentzako arretarako programen arduraduna.

Helbide elektronikoa: arantxa_arrizabalaga@donostia.eus

JARDUTEKO PROZEDURA

ABEGI ETXEBIZITZA

FASEAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	DOKUMENTAZIOA, ERREGISTROAK IRIZPIDEAK ⁷	ETA
1. SARRERA ETA ESKAERA	Oinarrizko gizarte zerbitzuguneek, Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuak, Udaleko Gizarte Abegi Etxeak eta beste erakunde eta/edo administrazio batzuek proposatuta.	IMBAZeko teknikaria		
1.1. Gizarte zerbitzuguneetatik	Bitartekoa erabiltzeko proposamena, eta hartan egon bitartean egin beharreko lanaren plana, <i>jakinarazpen-txosten</i> baten bidez. Datu interesgarriak: <ul style="list-style-type: none">• <i>URRATS eta BIDEANetik dator</i>• <i>Laguntzarik eza familian/gizartean</i>• <i>Bitarteko ekonomikorik eza</i>• <i>Babes neurriak behar ditu.</i>• <i>Kautelazko neurriak daude</i>• <i>Arriskuan dauden adingabeak egotea</i>• <i>Bitarteko eta trebetasun pertsonalak</i>• <i>Proposamena eta txostena Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzura bidaltzea</i>	Erreferentziak gizarte langilea	<i>"Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpena" txostena</i>	

⁷ Hemen ikus daitezke dokumentuak: 5.- TRESNA TEKNIKOAK



1.2. Aldunditik	<p><i>URRATS eta BIDEAN</i>en egon diren emakumeak, arazoak badituzte etxebizitza bat lortzeko, eta laguntza lutzatzeko premia badute, bizitoki normalizatu batean bizitzea bideragarria izan arte.</p> <ul style="list-style-type: none">• Bitartekoa erabiltzeko proposamena, eta hartan egon bitartean egin beharreko lanaren plana, <i>proposamen txosten</i> baten bidez.• IMBAZera igortzea.	IMBAZeko teknikaria	<i>Jakinarazpen txostena eta esku hartze plana</i>
2. ESKABIDEAREN BALORAZIOA	<ul style="list-style-type: none">• Proposamena eskatutako bitartekora egokitzen den, plaza egokien erabilgarritasuna eta beste aldagai batzuk ebaluatzea.• Egindako balorazioaren itzultze arrazoitua: baliabidea eskuratzea bidezkoa den ala ez adierazita.• Eskabidea onartzen bada, Prebentzioa, Haurrak eta Familia Zerbitzuko administrariak alta emango du GOKlan, eta zenbakitu egingo du bitartekoa.	IMBAZ GOKIko administraria	<i>Balorazioa itzultzea</i> <i>Larrialdiko etxebizitzan sartzeko ebazpena</i> <i>Alta INTRANETen; bitartekoa zenbakitzea</i>
3. HARRERA	<ul style="list-style-type: none">• Harrerako elkarriketa, eta egonaldiako kontratua sinatzea lehen hiru hilekorako, abegi etxean sartzean.• Koordinazioa egongo da beti esku hartzen ari diren profesionalekin (GLak, haur teknikariak, gizarte babeseoak...), banakako esku hartze plan bateratu bat diseinatzeko.• Esku hartzeko planaren berrikuspena.• Emakumeari itzultzea egindako balorazioa eta, egokituz gero, hiru hilekorako egonaldi kontratua berritzea.	IMBAZeko teknikaria	<i>Larrialdiko etxebizitza lagatzeko akordio arautzailea</i> <i>Egonaldia egiteko konpromisoa</i> <i>Esku hartze Planari buruzko txostena</i> <i>Esku hartze Planari buruzko berrikuspen txostena</i>
3.1. Egoteko epea lutzatzea	<ul style="list-style-type: none">• EGOTEKO EPEA hiru hilekoa da, bai eta luzagarria ere, kasu bakoitzeko ezaugarri eta beharren arabera.• Epea amaituta, egonaldia lutzatzeko aukera aztertzea.	IMBAZeko teknikaria	LUZATZEKO IRIZPIDEAK: <i>-Lortu ez diren Esku hartze Planeko helburuak</i> <i>-Ostatu egokirik ez izatea</i> <i>-Arriskuak eta segurtasunik ezak irautea</i> <i>Haurrak babesteko sarearen txostena</i>
4. ESKU HARTZEA ETA KOORDINAZIOA	<ul style="list-style-type: none">• Esku hartze osoa IMBAZeko arduradun teknikoak gainbegiraturako du	IMBAZeko teknikaria	Jarduketan Intraneteko erregistroa Jarduketak GOKI Intraneten erregistratzea
5. AMAIERA	<ul style="list-style-type: none">• Egonaldia amaitutakoan, espedientearen Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzuan (IMBAZ) geratuko da	Programen ardura duen IMBAZeko teknikaria	Jarduketak GOKI Intraneten erregistratzea <i>Itxierako txostena</i>



3.1.1.2. Lagun egiteko zerbitzua

Lagun egiteko zerbitzua bi udal bitartekotan ematen da: larrialdietako etxebizitzetan eta emakumeak ostatatze propioarekin artatzeko etxebizitzetan.

Tresna nagusia da kasuaren arduradunak erabiltzailearekin batera prestatutako Esku hartze Planaren helburuak lortzeko.

Bereziki esku hartzearen lehen fasean erabiltzen da bitartekoa, laguntza ematen baitzaio biktimari izapideak, kontsultak, eskaerak eta abar egiteko.

Ez da aplikatzen ez bada behar-beharrezkoa, erabiltzailearen autonomia sustatzen ahalegintzen baita.

HELBURUAK:

- Tratu txarren emakumezko biktimari laguntzea, emakumearen egoera normalizatzeko egin behar diren gestioetan.
- Emakumea ahalduntzea eta boteretzea, ikuspegi hezitzailea erabiliz, horrelako gestioak autonomiaz egin ditzan.
- Gestioen emaitzen berri ematea kasuaren ardura duen udal teknikariari.

3.1.1.3. Prestazio ekonomikoak

Etxeko indarkeriaren <http://boe.es/boe/dias/2003/08/01/pdfs/A29881-29883.pdf>ri jarraituta, Euskal Autonomia Erkidegoan babes agindu hori titulu gaitzailea izango da biktimak, ordenamenduak eskatzen dituen baldintzak betez gero, honako hauek eskuratzeko:

Diru sarrerak bermatzeko errenta – Baldintza espezifikoak: Diru sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko [maiatzaren 25eko 147/2010](#) Dekretuak kontuan hartu beharreko espezifikotasunak arautzen ditu:

- Urtebeteko antzintasuna erroldan eta bertan benetan bizitzeari dagokionez.
- Gutxienez 18 urte izatea.
- *Bizikidetzaren unitatea zehaztean (5. artikulua): “Etxeko indarkeriaren biktimak direnean, banantzeko edo dibortziatzeko izapide judizialak hasi ez badituzte ere, betiere zirkunstantzia hori dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren aldeko gizarte txosten bidez justifikatzen bada eta izapide horiek urtebeteko epean hasten badira, izatezko banantze egunetik zenbatzen hasita”.*
- Ez da eskatzen bizikidetzaren unitatea eratzea urtebete lehenago.
- Emakumea, indarkeriazko egoeraren ondorioz, senide, adiskide edo beste pertsona batzuen etxebizitzara bizitzera aldatzen bada, ez dira kontuan hartuko pertsona horien diru sarrerak.



- Titular bat baino gehiago egotea (10. artikulua): *“6.2 artikuluan definitutako bizitoki kolektiboen kasuan (aldi baterako harrera zentroak...), diru sarrerak bermatzeko errenta lortu ahal izango dute bertan bizi diren bizikidetza unitate guztiek, indarreko legedian prestazio ekonomikoa lortzeko xedatutako baldintzak betetzen badituzte, noski.*
- *Ez dira diru sarreratzat hartzen genero indarkeriagatik ematen diren beste laguntza batzuk (ordainketa bakarreko laguntza edo genero indarkeriagatik laneratzeko errenta aktiboa).*
- *Emakumea ez badago prestatuta lan egiteko, horretara ez konprometitzeko aukera du.*

4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzekoa.

Seigarren artikulua.– Bestela idatzi da 16. artikulua b) letra:

«b) Eskabidea aurkezteko unean, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea, eta eskabidea egin baino urtebete lehenagotik, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon izana eta benetan bertan bizi izana.

Aurretiazko gutxieneko epea betetzen bada, baina hiru urtean erroldatuta egotera iristen ez bada, gutxienez bost urteko lan jarduera ordaindua egiaztatu beharko da, lan bizitzaren agiri bidez, salbu eta pentsio publiko bat jasotzen duten edo etxean tratu txarren biktima izan diren pertsonen kasuan.

Etxebizitzako gastuetarako laguntza osagarria: Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuan xedatua kontuan hartuta.

Aldizkako prestazioa da, ekonomikoa, diru sarrerak bermatzeko errenta (modalitatea edozein izanda ere) osatzeko sortua, eta diru sarrerak bermatzeko errentaren titularren ohiko etxebizitzarekin edo bizitokiarekin zerikusia duten beharrei erantzutea du xede, ohiko etxebizitza edo bizitokia alokatzeko gastuei aurre eginez, modalitatea edozein izanda ere, hau da, errentamendua, azpierrementamendua, baterako alokairua, ostatu hartzea eta gelen alokairua.

Guraso bakarreko unitateentzako subsidioa: Diru sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 13 c) artikulua honako hau jasotzen du: *“Guraso bakarreko bizikidetza unitateei destinatutako Gizarteratzeko eta Gizarte babeserako Oinarrizko Errentaren kasuan, urteko lanbidearteko gutxieneko soldataren % 6,4ren baliokidea den hileroko subsidio batekin osatuko da prestazioa. Ondorio horietarako, guraso bakarreko unitatetzat hartuko da soil-soilik amak edo aitak eta haren ardurapeko seme edo alaba adingabe batek edo batzuek osatuta dagoena eta inolako ezkontza harremanik edo antzekorik ez duena eskaera aurkezten duenean ezta ondoren ere.*



BESTE DIRU LAGUNTZA BATZUK

- Gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL).- Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bidez, aldizkakoak ez diren diru laguntzak ematen zaizkie ohiko nahiz ezohiko gastu zehatz batzuei aurre egiteko adina baliabiderik ez duten pertsoneri gizarte bazterketari aurre egin eta bazterketa hori eragotzi edo arintzeko. Prestazio horiek, finalistak izateaz gain, mota guztietako edukizko bitarteko eta prestazio sozialen subsidiarioak eta osagarriak dira.
- Premiazko diru laguntzak.- Indarkeria matxistaren biktimek bizirik irauteko dituzten oinarrizko premiei berehala aurre egin diezaieten ematen dira, pertsona horiek gainerako laguntza ekonomikoak jasotzeko duten eskubidearen emakidak izapidetzen ari diren bitartean.
- Lan partekatuko planerako udal laguntzak.- Gizarteratzeko daukaten planaren ondoriozko jarduerak eragindako gastuetan pertsoneri/familiei laguntzeko eta larritasun ekonomikoko egoerei aurre egiteko udal laguntzak dira. Irizpideetan, lehentasuna ematen zaio babesik gabe dauden edo babesik gabe egoteko arriskuan egon daitezkeen pertsonen interesari; besteak beste, indarkeria matxistaren biktimei. Bestelako bitarteko eta prestazio sozial batzuen subsidiarioak eta osagarriak dira.
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Laneratzeko Errenta Aktiboaren programa. - Guraso edo seme-alaben aldetik genero edo etxeko indarkeria jasaten duten emakumeak laneratzeko laguntzeko programa da, eta 11 hilabetez hileko errenta jasotzea dakar berekin. Gehienez ere laneratzeko errenta aktiboaren hiru programatan sartzeko eska daiteke, betiere eskatzaileak genero indarkeriaren biktima dela justifikatu eta gainerako baldintzak betetzen jarraituz gero.

Baldintzak:

- Genero edo etxeko indarkeriaren biktima dela egiaztatzea, honako agiri hauetakoren bat aurkeztuta:
 - Epailearen babes agindua.
 - Erasotzailea kondenatzeko epaia.
 - Ministerio Fiskalaren txostena, indarkeriaren biktima den zantzuak direlako.
 - Autonomia Erkidegoaren edo Udalaren gizarte zerbitzuen ala harrera zentroaren egiaztagiria, egoeraren berri ematekoa.
- Enplegu eskaintzailatzat izen emanda egotea eta jarduteko konpromisoa sinatzea.
- Ez gainditzea norberaren irabazien muga.
- Familia unitateko kide guztien (emakumearen, dauzkan 26 urtetik beherako seme-alaben, desgaitasuna duten 26 urtetik gorakoena eta, betiere erasotzailea ez bada, ezkontidearen) hileko diru sarreraren baturaren eta unitateko kideen kopuruaren arteko zatiketaren emaitza ez izatea zenbateko jakin bat baino handiagoa.



Genero indarkeriagatiko laneratzeko errenta aktiboa ez da jotzen irabazitzat diru sarrerak bermatzeko errentari dagokionez.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) izapidetzen eta ebazten du laguntza hori.

Laguntza izapidetzea:

- Laguntzez arduratzen den bulegoa: Gros: Marino Tabuyo kalea, 12-14. Antigua: Zarautz hiribidea, 58-60. Ezinbestekoa da aurretik ordua hitzartzea 901 01 02 10 telefono zenbakian edo webgunean.
- Modu elektronikoa, orri hau erabilita: <https://sede.sepe.gob.es>

Laguntzari buruzko zeinahi galdera:

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SEPE).

Informazio orokorrekoTel.: 901 119 999

Web orria: www.sepe.es

SEPE-Gipuzkoako Zuzendaritza Probintziala

Tel.: 943 427770

Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko [abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero indarkeriaren emakumezko biktimentzako diru laguntzak. Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre](#) Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak kudeatuta. IMBAZeko teknikariek laguntza hori jakinaraz eta bidera dezakete (informazio gehiago Eusko Jaurlaritzari dagokion atalean).



LAGUNTZA	ESKAERA	ARAUTEGIA
DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA	LANBIDE	Abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa Diru sarrerak bermatzeko errentari buruzko 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa Azaroaren 24ko 4/2011 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzekoa.
ETXEBIZITZAKO GASTUETARAKO LAGUNTZA OSAGARRIA	LANBIDE	Abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa 2/2010 Dekretua, urtarrilaren 12koa, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzkoa.
GURASO BAKARREKO UNITATEENTZAKO SUBSIDIOA	LANBIDE	Abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa Diru sarrerak bermatzeko errentari buruzko 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa
GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	GIZARTE ZERBITZUG UNEAK	Abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa Gizarte larrialdietarako laguntzei buruzko 1/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa. Indarreko urteko zenbatekoen agindua Indarreko urteko udal irizpideak
LAN PARTEKATUKO PLANERAKO LAGUNTZAK	GIZARTE ZERBITZUG UNEAK	Udalak indarreko urtean diru laguntzak emateko oinarri espezifikoak
LANERATZEKO ERRENTA AKTIBOA	SEPE (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa)	1.369/2006 Errege Dekretua, azaroaren 24koa.
EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZA Ordain bakarreko diru laguntza	Eusko Jaurlaritza, IMBAZ, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua.	Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikulua.



[3.1.1.4. Laneratzeko programa](#)

DEFINIZIOA

Gizarteratze Zerbitzuak bere programa batzuk kudeatzen ditu, eta gizarteratze nahiz laneratze esparruan lan egiten duten beste erakunde batzuekin koordinatzen da. Programa horiek Udalaren gizarte zerbitzuetan artatzen diren pertsonentzat dira, baina ez dira espezifikoak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat. Hala ere, beste kolektibo batzuekin batera, emakume horiek dute **lehentasunezko sarrera** programetan. Gizarteratzeko eta laneratzeko unitateak informazio zehatza bidaltzen du urtero gauzatzen diren programei buruz, bai eta programa horietara bideratzeko prozedurari buruz ere.

HELBURUA

Gizarteratzeko eta laneratzeko bideak prestatzea eta abian jartzea, enplegu eta/edo prestakuntza bitartekoekin koordinatuta. Pertsonen beharren arabera lan ibilbideak proposatzen dira:

1. Besteren konturako enplegua bilatzeko gizarteratze eta laneratze ibilbide normalizatu bat egin dezaketen pertsonak.
2. Norberaren konturako enplegua (autoenplegua) bilatzeko gizarteratze eta laneratze ibilbide normalizatu bat egin dezaketen pertsonak.
3. Gizarteratzeko eta laneratzeko bitarteko espezifikoaren beharra duten pertsonak, arazo zehatz batzuk dituztelako: trebetasunik eza, desgaitasuna, egoera administratiboa irregularra izatea eta abar.

BIDERATZEKO PROZEDURA

Programa hauetarako sarbidea beti izaten da dena delako pertsonarentzat erreferente diren Gizarte Ekintzako teknikariek (gizarte langilea, Haurtzaro Zerbitzuko teknikaria, gizarteratzeko teknikaria edo Emakumearen Zerbitzuko teknikaria) hara bideratzen dutelako. Erreferentziako teknikariak aztertu eta beharra zehazten du. Zenbaitetan, prozeduraren ondorioz, kanpoko baliabide batera bideratzen dute pertsona, zuzenean, eta, besteetan, fitxa soziolaborala eta pertsonari buruzko informazioa bidaltzen dizkiote gizarteratzeko teknikariari, udal baliabideen arabera egokitzeko.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei gagozkiela, [Lanbide-rekin lan egiteko protokolo](#) bat ezarri dugu, arreta, argibideak eta norabideak emateko zein laguntza ekonomikoak kudeatzeko. (II. eranskina)

Itzulpen eta interpretazio programa, DUALIA enpresa



EUDELeK eta Eusko Jaurlaritzak sinaturiko hitzarmenaren bidez emandako zerbitzua. Telefono bidezko interpretazioa, beste hizkuntza batetik gaztelaniarakoa, normalean, hiru hiztunen artean. Bi egoera hauek izaten dira:

- a) Telefono deia: pertsona batekin telefonoz hitz egitea eskatzen dute
- b) Elkarrizketa: baten batekin hitz egitea eskatzen dute

6 telefono terminal daude (oinarrizko gizarte zerbitzuetan, Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuan, Neguko Aterpea kudeatzeko Harrera Zentroan, Udaltzaingoan), Zuzendaritzako edozein profesionalak erabili ahal izateko, beharra izanez gero.

Telefono horren bidezko hitzarmenak ez du bermatzen 24 orduan zerbitzua hizkuntza guztietan ematerik. Zenbait hizkuntzatan beharrezkoa da zerbitzua erreserbatzea telefono orokorrean dei eginda.

[3.1.1.5. GLUZ \(Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua\)](#)

Oinarrizko gizarte zerbitzuguneeK eta Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzuak erabiltzailerik hartzen ez duten orduetan, Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua arduratuko da larrialdi egoeran den erabiltzailea lehen aldiz hartzeaz, eta harremanetan jarriko da Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuarekin.

Lehenengo harreran, honako hauek egingo ditu:

- Biktima aurrez aurre eta berehala artatzea.
- Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuarekin harremanetan jartzea, arreta eman diezaioten.
- Gero, Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzua eginiko larrialdiko arretaren jakitun jartzea.

[3.1.2. Aldundia](#)

Hurrengo estekan Emakumeen Aurkako Indarkeriari Aurre Egiteko Foru Plana dago

[Indarkeria matxistaren aurka egiteko Foru Plana](#)



[3.1.2.1. Laguntza sozial eta juridikoa emateko programa](#)

DESKRIBAPENA

Orientazio juridikoko prestazioa da, indarkeria matxistaren egoerei heltzeko eta irtenbidea emateko informazioa eta orientazioa eskaintzen dituena, tresna juridikoen bidez.

Programaren barruan, indarkeria matxistaren biktimak diren eta arlo juridikoan eta zuzenbide-arloan familiari zuzendutako baliabideen inguruko legezko informazioa eta aholkularitza nahi dituzten emakumeei arreta ematen zaie. Zerbitzuak osotasunetik erantzuten die tratu txarraren eta sexu-askatasunaren aurkako ustezko egintzen ondorioz sortzen diren aholkularitza soziojuridikoaren beharrei, zer esparrutan gertatu diren alde batera utzita.

GEROAGOKO LAGUNTZA JURIDIKOA

Aholku horiek jaso ondoren, artatutako pertsonak salaketa jartzea erabakitzen badu, laguntza juridikoa jasoko du une horretatik aurrera, eta ofiziozko txanda horretako zaintzako abokatuaren esku hartzea eskatu beharko du, salaketa jartzeko, dela polizia etxean dela epaitegian. Une horretatik aurrera, txandako arauak baliatuko dira, bai profesionalen izendapenari dagokionez, bai kasuan kasuko eduki ekonomikoei dagokienez. . Doako justiziarako eskubidea onartzen ez bazaio, abokatuaren ordainsariak ordaindu beharko ditu.

HARTZAILEAK

Laguntza juridiko espezializatua genero indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu askatasunaren aurkako delituen biktima guztientzat izango da, laguntza juridikoa behar badute, salaketa bat jartzeko, edo babes agindua eskatzeko.

LAGUNTZA SOZIAL ETA JURIDIKOA EMATEKO PROGRAMA

Informazioa eta errekurtsua izapidetzea: IMBAZ - Urdaneta kalea, 13

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara

Hitzordua eskatzeko telefonoa: 943-481400

Bitartekoaren kokapena: Gizarte Politiketako Departamentua – Zarategi pasealekua, 99 - Txara eraikina, 2 - Donostia - 20015

Telefono zenbakia: Telefono zenbakia: 943 112 576 – 943 112 572



JARDUTEKO PROZEDURA			
LAGUNTZA SOZIAL ETA JURIDIKOA EMATEKO PROGRAMA			
FASEAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	DOKUMENTAZIOA, ERREGISTROAK ETA IRIZPIDEAK ⁹
1. SARRERA ETA ESKAERA	<ul style="list-style-type: none">Erabiltzailearen ekimenez.Udaleko gizarte zerbitzuek proposatuta.	Hitzarmena: Gipuzkoako Foru Aldundia / Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa	
1.1. IMBAZek eskatuta	<ul style="list-style-type: none">Zerbitzuaren berri ematea IMBAZen artatutako pertsonari. Adostasuna eskatzea, hartara informazioa bidaltzeko dagoen egoerari buruz.ESTRANETen laguntza juridikorako eskabidea betetzea.Alta ematea GOKIn; bitartekoa zenbakitzea.Datu base espezifikokan erregistratzea.	IMBAZeko teknikaria	<i>Laguntza juridikoaren eskaera ESTRANETen</i> Bitartekoa zenbakitzea Erregistroa datu base espezifikokan
2 ZERBITZUAREN JARRAIPENA	Zerbitzuaren jarraipena egingo da biktimaren bidez, jakiteko ondorengo prozedura judicial penala eta/edo zibila hasten den.	IMBAZeko teknikaria	

[3.1.2.2. Arreta psikologikoa, banakakoa eta taldeka emateko programa](#)

DEFINIZIOA

Zerbitzuak arreta ematen die indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei, bai banakako bai taldeko esku-hartzearen bidez, haien ahalduntzea sustatu eta, horrela, beren bizitzaren kontrola hobetearren.

Zerbitzuak indarkeria sexistaren ondorioz sortzen diren behar psikoemozionalei heltzen die, zer esparrutan gertatu diren alde batera utzita: bikotea, familia, gertuko ingurunea, kalea, lan-esparrua,...

Halaber, zerbitzuak arreta ematen die emakume biktimen seme-alabei, uste baitugu horiek ere amaren aurkako indarkeriaren biktima zuzenak direla, geroago *haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legean* ezarri den bezala.

⁹ Hemen ikus daitezke dokumentuak: 5.- TRESNA TEKNIKOAK



Biktimarentzako laguntza psikologikoa:

- Lehen fasea, azterketa eta balorazioa: hiru ordutan azterketa, balorazioa eta proposamena egingo dira, eta Udaleko gizarte zerbitzuekin koordinatzeko beste ordu bat ere izango da. Fasearen xedea da hasierako diagnostikoa egitea, zehatz dezan eskatzailea tratu txarraren biktima den bizikidetzaren esparruan eta/edo sexu askatasunaren aurkako delituren bat jasan duen, eta, horrenbestez, egokia ote den tratamendu terapeutiko espezializatuarekin jarraitzeko.
- Bigarren fasea, tratamendu terapeutikoa: gehienez ere tratamenduko 45/60 minutuko 18 saio izango dira, bai eta Udaleko gizarte zerbitzuekin koordinatzeko ordubeteko bi saio ere. Salbuespen moduan, tratamendu saioen kopurua handitu ahal izango da.

Erasotzailearentzako laguntza psikologikoa:

- Lehen fasea, azterketa eta balorazioa: hiru ordutan azterketa, balorazioa eta proposamena egingo dira, eta Udaleko gizarte zerbitzuekin koordinatzeko beste ordu bat ere izango da. Fasearen xedea izango da hasierako diagnostikoa egitea erabakitze eskaera egin duen erasotzailea egokia den tratamendu terapeutiko espezializatua egiteko.
- Bigarren fasea, tratamendu terapeutikoa: gehienez ere tratamenduko 45/60 minutuko 18 saio izango dira, bai eta Udaleko gizarte zerbitzuekin koordinatzeko ordubeteko bi saio ere. Salbuespen moduan, tratamendu saioen kopurua handitu ahal izango da.

HARTZAILEAK

Indarkeria matxistaren biktima izandako pertsona guztiak izan ahal izango dira programan bildutako prestazioen onuradun, baldin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi badira, edo lurralde horretan jaiotako familia berriz biltzeko arrazoiak edo arrazoi sozialak argudiatzen badituzte.

Salbuespen moduan, aurreko baldintzak betetzen ez dituzten indarkeria matxistaren biktimak ere artatu ahal izango dira gertaerak Gipuzkoan izan badira.



Laguntza psikologikoa 1. azterketa eta balorazio fasean jaso beharra argudiatzeko, interesdunak aurretiazko salaketa egin izana egiaztatu ahal izango du, edo lesio parte bat izan, baina baldintza horien ordeztosten bat erabili ahal izango da, gizarte zerbitzuen ustez indarkeria matxistaren biktima izandako pertsonari laguntza hori eman behar zaiola adierazten duena.

Bigarren fasean, tratamendu terapeutikoan, laguntza psikologikoa jasotzeko, halaber, ez da ezinbestekoa izango aurretik salaketa jartzea, edo lesioen parte izatea, baina kasu horretan, aurreko baldintza horren ordeztosten bat egin beharko du 1. azterketa eta balorazio fasearen ondoren, eta bertan adierazi jarraitu edo eten behar den artatutako pertsonaren tratamendua, lehen saioetan eskatutako balorazio elementuen bidez indarkeria matxistaren biktima izan ahal izan den erabakita.

Programa Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzuak bideratzen du.

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA EMATEKO PROGRAMA

Informazioa eta errekurtsua izapidetzea: IMBAZ - Urdaneta kalea, 13

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara

Hitzordua eskatzeko telefonoa: 943-481400

Genero indarkeriaren biktimentzako arretarako programen arduraduna. Helbide elektronikoa: arantxa_arrizabalaga@donostia.eus

Bitartekoaren kokapena: Gizarte Politikako Departamentua- GFA- Zarategi pasealekua 99, Txara II eraikina

Telefono zenbakia: 943 112 576 – 943 112 572



JARDUTEKO PROZEDURA

INDARKERIA MATXISTAREN EMAKUMEZKO BIKTIMEI ETA GIZONEZKO ERASOTZAILEEI LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA EMATEKO ZERBITZUA

FASEAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	DOKUMENTAZIOA, ERREGISTROAK ETA IRIZPIDEAK ¹⁰
1. SARRERA ETA ESKAERA	<ul style="list-style-type: none"> Erabiltzailearen ekimenez. Udaltzaingoa eta/edo Ertzaintzak proposatuta. Udaleko gizarte zerbitzuek proposatuta. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin eta gizonezko erasotzaileekin esku hartzen duten beste eragile batzuek proposatuta (abokatuek, osasun zerbitzuek, beste profesional batzuek). 	Gipuzkoako Foru Aldundia	NA, AIZ, pasaportearen fotokopia. Alta eskaera GFAko erregistro bateratuan.
1.1. IMBAZek eskatuta	<ul style="list-style-type: none"> Indarkeria matxistaren biktimei dagokien informazioa eta balorazioa biltzeko fitxa betetzea. Informazioa- IMBAZeko teknikariak bitartekoaren, eskubideen eta betebeharren berri emango dio erabiltzaileari, eta informazioa konfidentziala dela adierazi. Artatutako pertsonaren eskabidea- Idatzizko eskaera egingo du Udalaren inprimaki batean. Erregistroa espediente zenbakitzailean.- IMBAZeko administrari laguntzaileak eskabidea erregistratuko du. Laguntza psikologikoa jasotzeko eskabidea betetzea, eta gizarte txostena eranstea ESTRANET bidez, GFAk psikologoa aukera dezan. 	IMBAZeko teknikaria IMBAZeko teknikariak Administrari laguntzailea	<i>Txosten eredu:</i> "Informazio bilketa" <i>Bitartekoa zenbakitzea</i> <i>Laguntza psikologikoaren eskaera - ESTRANET</i>
2 BALORAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> Hasierako baloraziorako lehen hiru saioak eginda, psikologoak IMBAZeko teknikariarekin koordinatzeko bilera eskatzen du, kasua aztertu eta tratamendu proposamena egiteko. Hasierako balorazio txostena GFAko Gizarte Politikako Departamentura bidaliko da, eta ebazpenaren zain egon behar da. Txosten horri IMBAZeko teknikariaren beste bat gehitzen zaio. Ebazpena tratamendua egitearen aldekoa bada, programan jasotako 18 saioak egingo dira. <p>Ebazpenak idatzizkoak dira, eta ESTRANETen ere kontsulta daitezke.</p>	IMBAZeko teknikaria Hitzarmeneko psikologoa GFAko Gizarte Politikako Departamentua Indarkeria Matxistaren Biktima den Emakumea Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua	<i>Hasierako balorazioaren txosten eredu.</i> <i>Laguntza psikologikoa onartzeko edo ez onartzeko ebazpena.</i>
3 TRATAMENDUA	<ul style="list-style-type: none"> Tratamenduaren erdira iristean, koordinazio bilera egingo da hitzarmeneko psikologoarekin. 18 saioak amaitzen direnean, bukatutzat joko da esku hartzea, eta itxierarako koordinazio bilera egingo da. Itxierako txostena GFARI igorriko zaio. 	IMBAZeko teknikaria Hitzarmeneko psikologoa	<i>Itxierako txostenaren eredu.</i>
4 LUZAPENA	<ul style="list-style-type: none"> Psikologoak eskatuta, beharrezkotzat jotzen bada tratamendua luzatzea, txostena egingo da, eta koordinazio bilera ere egingo da IMBAZeko teknikariarekin. Luzapen txostena GFARI bidaliko zaio, ebatz dezan. Ebazpena aldekoa bada, tratamenduaren luzapena guztira bederatzi saioa izango da. 	IMBAZeko teknikaria Hitzarmeneko psikologoa	<i>Luzapenaren aldeko txosten eredu.</i>
5 TRATAMENDUA REN AMAIERA	Tratamendua amaituta, azken koordinazio eta itxiera saioa egingo da psikologoarekin, hasierako helburuen norainokoa eta amaierarako arrazoia aztertzeko.	IMBAZeko teknikaria Hitzarmeneko psikologoa	<i>Itxierako txostenaren eredu.</i>

¹⁰ Dokumentu horiek atal honetan ikus daitezke: 5.- TRESNA TEKNIKOAK



[3.1.2.3. Berehalako harrerako foru zentroa \(URRATS\)](#)

Gipuzkoan, Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak daukan zerbitzu batek erantzuna ematen die Gipuzkoako Lurralde Historikoan izaten diren etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren emakumezko biktimen segurtasun eskaera urgenteei, eta, azterketa egin ondoren, egoera dela eta beharrezkoa bada, laguntza ematen dio harrerako bitartekoari, biktima bizi den lekuaren arabera.

Foru Aldundiak Larrialdietarako harrerako foru zentroa dauka (Urrats), berehala har ditzan etxebizitza utzi behar duten Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima guztiak. Toki hori urteko egun guztietako 24 orduetan izaten da irekita, eta beraz, noiznahi har ditzake tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima izan diren pertsonak. Zentro horretan, kasuaren balorazioa egin eta baliabide egokiago batera igortzea proposatuko dute. Zentroko egonaldia 30 egunekoa izango da gehienera, eta beste 30 egunez ere luza daiteke eragozpen handiko kasuetan, aurrez Gipuzkoako Foru Aldundian dagokion sailarekin adostuta.

[3.1.2.4. Egonaldi ertain-luzeko harrera-zentroa \(BIDEAN\)](#)

Egonaldi ertaineko edo luzeko harrera-zentroa da, indarkeria matxistaren biktimak diren eta osoko esku-hartze espezializatua behar duten emakumeen babes- eta aldi baterako ostatueskaerei erantzuten diena.

Egonaldiaren denborazko muga sei hilabetekoa da, eta egokia bada luzatu egin daiteke, baldin eta beharren beste balorazio baten arabera gomendagarria bada.

[3.1.2.5. Autonomia-etxebizitzak.](#)

Iraupen laburreko ostatua eskaintzen diete emakume biktimei eta haien bizikidetzta-unitateei, harrera-zentro batetik igaro eta gero, baldin eta intentsitate handiko babes-neurrien beharrik ez badago eta suspertzeko eta indarkeria sexistaren egoera gainditzeko helbidea berehala erabilgarri ez badago.

Aldi baterako da. Egonaldia sei hilabetera luza daiteke gehienez, baina salbuespen gisa, iraupen bera duen beste aldi batez luza liteke.

[3.1.2.6. Arreta psikosoziala](#)

Zerbitzu sortu berria da, emakumeei egoera hauetan arreta eskaintzen diena:

- *Segurtasun, kontzientziazio eta laguntza Programa*, hainbat arrazoiengatik harrerazentroan bizi ez diren baina balorazioaren arabera indarkeria jasateko arrisku handia duten eta haientzat berriazko plan bat prestatu eta abian jartzeko beharrea dauden emakumeentzat.
- *Jarraipen Programa*, egonaldi labur edo ertaineko zentroan egonaldia amaitu eta banakako edo familiarri zuzendutako arreta-planaren jarraipenaren beharra duten emakumeentzat, ahalduntzeko ibilbidean aurrera jarraitzearen.



[3.1.2.7. GLFZ \(Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzua \)](#)

Gizarte larrialdietarako foru zerbitzuak larrialdietan udal zerbitzu sozialen ordutegitik kanpo sartzen diren biktimak artatuko ditu. Biktimak behar dituen bitarteko eta zerbitzu guztiak eskatuko ditu.

Indarkeria Matxistaren Biktima den Emakumea Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzuak

INDARKERIA MATXISTAREN EMAKUME BIKTIMA BABESTEKO ETA GIZARTERATZEKO ZERBITZU			
Zerbitzuburua	Francisco Javier Leturia Arrazola	943.11 25 48	fleturia@gipuzkoa.eus
Kudeaketa administratiboa - Sarearekiko koordinazio administratiboa - Datu Gordeketa	Amaia Ruiz	943. 11 37 50	aruiz@gipuzkoa.eus

GIZARTE LARRIALDIE ETA INDARKERIA MATXISTAREN EMAKUME BIKTIMEN LAGUTNZA ERREKURTSOAK			
Arreta psikologikoko programa	Maite Higuero	943.11 25 76	mhiguero@gipuzkoa.eus
Arreta psikologikoko programa Zerbitzuko beste programa eta errekursoetarako laguntza	Josune Turrientes	943. 112518	jturrientes@gipuzkoa.eus
Kudeaketa Ekonomikoa eta Dokumentala	Lourdes Urrutia	943.11 25 41	lurrutia@gipuzkoa.eus
Gizarte larrialdietako koordinazio programa Arreta soziojuridikoko programa	Maite Uranga	943.11 31 76	muranga@gipuzkoa.eus
URRATS berehalako edo egonaldi laburreko harrera zentrua BIDEAN egonaldi ertaineko harrera zentrua Eskuhartze Psikosoziala Autonomia pisuak /	Naiara Guibelalde	943.11 39 51	nguibelalde@gipuzkoa.eus
Kudeaketa Administratiboa	M ^a José Gómez	943.11 25 75	mjgomez@gipuzkoa.eus

<http://gizartepolitika.eus/eu/indarkeria-matxistaren-biktimak>
<http://gizartepolitika.eus/eu/gizarte-larrialdien-koordinazioko-foru-zerbitzua>



3.1.3. Eusko Jaurlaritza

3.1.3.1.- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza - Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Genero indarkeriaren biktimetako diru laguntzak kudeatzen ditu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak, bai eta 24 orduko 900 840 111 telefonoaren bidezko informazio eta arreta zerbitzu espezializatua ere. Gainera, harena da emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako aholkularitza eta arreta osorik kudeatzea, lehendakariak abenduaren 2an onartutako 34/2013 Dekretuko 3. artikulua xedaturikoaren ondorioz.

Helbidea:

Donostia-San Sebastián, 1

01010 VITORIA-GASTEIZ

Tel.: 945 019 327 / 945 019 316

Helbide elektronikoa: violenciacontramujeres@euskadi.eus

Web orria: <http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-servsoci/es/>

3.1.3.1.1. Telefono bidezko 24 orduko arreta zerbitzua, doakoa eta isilpekoa. 900 840 111

HARTZAILEAK:

Biktimak diren emakumeak: bikotekideak edo bikote ohiak egindako indarkeria mota guztiak, familia barruko genero indarkeria, laneko sexu jazarpena eta/edo sexuaren ondoriozkoa, sexu erasoak, behartutako prostituzioa eta sexu esplotaziorako pertsona trafikoa. Senideak edo hurkoak nahiz hainbat arreta zerbitzu publikotako profesionalak.

EZAUGARRIAK

- Egunean 24 orduan eta urtean 365 egunean zabalik.
- Berehalakoa, anonimoa, isilpekoa eta doakoa da, eta ez da agertzen telefono fakturan.
- Artatzen duten profesionalak prestakuntza egokia dute arloan. Laguntza psikologiko espezializatua eta aholkularitza juridikoa ematen dira genero indarkerian eta familia zuzenbidean espezializatutako abokatu baten bidez.
- Oso ondo dakite zer bitarteko dauden autonomia erkidego osoan, eta, bitarteko horiekin koordinatuta jarduteaz gain, haietara bideratzen dituzte iristen zaizkienak.
- 51 hizkuntzatan artatzen dute, eta Telesor bidez aritzen dira entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasuna duten pertsonekin.
- Zeinahi emakumez arduratzen da zerbitzua, dena delakoaren administrazio egoera gorabehera.



3.1.3.1.2. Lanik ez duten eta errenta maila jakin batzuk gainditzen ez dituzten genero indarkeriaren emakumezko biktimetzako diru laguntzak izapidetzea

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak izapidetzen eta ebazten ditu Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan xedatutako diru laguntzak.

Genero indarkeria (bikotekideak edo kide ohiak egindakoa, soilik) pairatu duen emakumeak irabazi nahikoak ez jasotzea aldi baterako arintzea du oinarritzko helburutzat, bizirik irauteko gutxienezko baliabide batzuk emanda, haien bidez erasotzailearengandik emantzipatu eta egoera egonkortzeko.

Baldintza orokorrak:

- Behin betiko amaituta egotea erasotzailearekiko harremana.
- Genero indarkeriaren biktima delako indarreko egiaztagiria izatea (epailearen babes agindua, kondenatzeko epaia edo, salbuespen moduan, eskatzailea genero indarkeriaren biktima delako zantzuak daudela adierazten duen Ministerio Fiskalaren txostena), eta agiri horrek urtebetetik gorako iraupena ez izatea egiaztagiriaren hasiera datatik.
- Gutxienez sei hileko antzintasuna erroldan eta EAEn benetan bizitzeari dagokionez.
- Langabezian egotea.
- Familia unitateko kide guztiek lortutako hileko diru sarreren baturak ez gainditzea diru muga jakin bat.
- Ez jasotzea (ez eta lehenago jaso izana ere) Laneratzeko Errenta Aktiboa genero indarkeriagatik. Bateriaezinak dira.

Laguntzari buruzko zeinahi galdera:

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailsa, Eusko Jaurlaritza

Posta helbidea: Donostia-San Sebastián kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

Telefonoak: 945 019327 (Ana Aldekoa) edo 945 019316 (Susana Barrio)

Helbide elektronikoa: violenciacontramujeres@euskadi.eus

Web orria: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2014/ayuda_victimas_violencia_genero/r45-ayuss/es/



Goian adierazitako loturan, argibide orokorrak lor daitezke, laguntzaz eta administrazio prozeduraz, bai eta beharrezko agiriak aztertu eta eskabideak deskargatu ere.

Laguntza izapidetzea:

- Eusko Jaurlaritzaren egoitza, Zuzenean zerbitzua (Andia kalea, 13, Tel.: 012). Inprimakiak eskuratu eta eskabidea aurkez daiteke.
- Udalaren gizarte zerbitzuguneak. Donostian erroldaturiko emakumeentzat, Donostiako Udaleko Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzua (Urdaneta kalea, 13, Tel.: 943 481400)
- Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (Kalkutako Teresa plaza, 1, Tel.: 900 100 928)
- Izapidetze telematikoa: ikusi gorago aipatutako web orria.

3.1.3.1.3. Etxebizitza eskaerak, laguntzak enplegu arloan

ETXEBIZITZA:

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruz 2006ko urriaren 4an emandako aginduak esaten du ezen aginduaren aplikazio esparruaren barruan daudela, Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 1. artikulua xedatu bezala, genero indarkeriaren biktima izandako emakumeak, elkarrekin bizi gabe ere bikotekideen aldetik pairatu badute indarkeria hori.

Agindu horrek ekintza positiboko neurriak jasotzen ditu emakume horientzat:

- Egoera larri eta ohiz kanpokoetan, alokairuan esleitzea, ohiz kanpoko larritasuna ondokoak oinarri aztertuta: eskatzailea udal edo foru harrera etxeen erabiltzailea izana, egonaldia bete eta haietan irautea ezinezkoa dela egiaztatu ondoren; etxebizitza denbora tarte egoki batean bilatu eta lortu ez izana; eta egokitzeko moduko gizarte edo familia sarerik ez izatea.
- Halaber, agindu horretan xedatzen denaren arabera, beste neurri baten bidez eskatzaileak jabeak den etxebizitza trukatu ahal izatea bideratzen da, epaileak hartarako baimena eman badu.
Harremanetarako telefonoa:

Harremanetarako teknikaria: Nagore Otazua

Harremanetarako telefonoa: 945 01 63 60. Helbide elektronikoa: [Nagore Otazua Olano](mailto:Nagore.Otazua.Olano)

[Dirección de Planificación y Procesos Operativos de Vivienda](#)

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

[Gobierno Vasco](#)

[Tel. 945 016 360](tel:945016360)

n-otazua@ej-gv.es



Halaber, esleipena egitean, baremazio prozedura bat erabili da, hemen arautua: Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa (*Etxebide Agindua* izeneko).

Alokairuko etxebizitza eskatzaile moduan izena eman dezakete Etxebiden genero indarkeriaren biktimek. Genero indarkeria egiaztatuz gero, bi urtean 10 puntu gehiago izango dituzte baremazio orokorrean. Gainera, ez du zertan gutxienezko irabazirik egiaztatuturik eta ez diote eskatuko eskatzen duen udalerrian erroldatuta egon beharrik.

Eskabideak izapidetzeko:

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendaritzaren Lurralde Ordezkaritza

Andia kalea, 14, 20004 Donostia

Telefono zenbakia: 012/ 943022810

ENPLEGUA:

Enpleguari dagokionez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ibilbide pertsonalizatuak eskaintzen dizkie bere bulego sarean enplegu eskatzaile moduan izena emanda dauden genero indarkeriaren biktimei laneratzea lor dezaten, eta lehentasuna ematen die enplegu eta prestakuntza programetan sar daitezen, zertarako eta daukaten enplegagarritasuna hobetzeko eta, horrenbestez, lan merkatuan errazago sartzeko helburu nagusiarekin.

[3.1.3.2. Lan eta Justizia Saila](#)

[3.1.3.2.1. BLZ](#)

Zerbitzu doako, isllpeko, banako eta pertsonalizatu hau jartzen du Eusko Jaurizaitzako Justizia Zuzendaritzak genero indarkeriaren biktima diren emakumeen esku, salaketa jarrita dutela zein ez. Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan (BLZ) zer egin dezaketen biktimek:

- orientabideak jaso, salaketa bideratu aurretik, eta salaketa izapidetzearen gainean egon, prozesua fiskalizatu arte.
- orientabideak jaso delituak eragindako ondorioetarako ebazpenik egokienaz.
- argibideak jaso auzi izapideei buruz, haietan bermatzen diren eskubideez, doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubideaz eta izan ditzaketen laguntza ekonomiko eta baliabide sozialez.
- laguntza psikologiko eta soziala jaso.
- beharrezko izanez gero, osasun edo gizarte zerbitzu eskudun egokietara bideratua izan.
- prozesu horietan guztietan laguntza izan; batez ere, auzitegietan.

Argibide gehiago:

<http://www.justizia.net/asistencia-victima>

Justizia Jauregia. Kalkutako Teresa plaza 1, 1. solairua, 20012 DONOSTIA. Tel.: 900100928 (doakoa) / 943000768



JARDUTEKO PROZEDURA			
BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA – AHOLKULARITZA JURIDIKOA ETA LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA			
FASEAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	DOKUMENTAZIOA, ERREGISTROAK ETA IRIZPIDEAK ¹¹
1. SARRERA ETA ESKAERA	<p>Erabiltzailearen ekimenez.</p> <ul style="list-style-type: none"> Erabiltzailearen ekimenez. Udaltzaingoak edo Ertzaintzak proposatuta. Udaleko gizarte zerbitzuek proposatuta. <u>Genero indarkeriaren biktima diren emakumeekin edo gizonezko erasotzaileekin esku hartzen duten beste eragile batzuek proposatuta (abokatuek, osasun zerbitzuek, beste profesional batzuek).</u> 	Biktimari Laguntzeko Zerbitzua	
1.1. Udalaren gizarte zerbitzuek eskatuta	<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzua proposatzea Udalaren gizarte zerbitzuetan artatutako pertsonari. Adostasuna eskatzea, zerbitzuetara informazioa bidaltzeko dagoen egoerari buruz. Telefono deia BLZra, lehen hitzordua hitzartzeko. “Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpena” txostena betetzea. Erabiltzaileak sinatutako originala espediente sozialean gordetzea. Txostena enkriptatzea, eta posta elektronikoz BLZra igortzea. Datu base espezifikoan erregistratzea. 	Erreferentziazko gizarte langilea eta/edo IMBAZeko teknikariak	<p>“Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpena” txostena</p> <p>INTERESEKO DATUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Hitzorduaren eguna eta ordua -Emakumezko biktimaren datuak -Pairatutako tratu txar eta/edo eraso mota -Seme-alabak izatea -Erasotzailearekin batera bizitzea -Bananduta egotea -Babes agindua -Erreferentziazko gizarte langilearen izena
2. Jarraipena	Jarduketak eta jarraipena BLZrekin koordinatzea.	Erreferentziazko gizarte langilea eta/edo IMBAZeko teknikariak	<i>Jarduketan erregistroa GOKIn</i>
3. Tratamenduaren amaiera	Intraneten erregistratzea	IMBAZeko teknikariak	

¹¹ Dokumentu hauek 5. puntuan ikus daitezke: 5.- TRESNA TEKNIKOAK-

3.1.3.2.2. Fiskaltzari jakinaraztea

Lanbide sekretua lanbideen (gizarte lana, psikologia, polizia eta abar) **Deontologia Kodean** jasota dago. Lanbide sekretua profesionalaren eskubidea eta betebeharra da, eta eskubide eta betebeharrorik lanbide zerbitzuak emateari utzi ondoren ere irauten dute. Profesionalak isilpean gorde behar du erabiltzaileek edo bezeroek jakinarazi, adierazi dioten guztia, bai eta lanbidean aritzean ikasi duen guztia ere. Lanbidean esku hartzeko beharretarako baino ez dira bildu eta jakinarazi behar datuak.



Hala ere, lanbide sekretua ez da urratzen honako kasu hauetan:

- a) Lanbide jarduera taldean eginez gero, betiere jakinarazten dena beharrezkoa bada lanbidean esku hartzeko.
- b) Beste esparru tekniko edo diziplina batzuetako profesionalakiko harremanean eta lankidetzan, betiere elkarlan hori esku hartze profesionalaren barruan gertatzen bada.
- c) Lanbide sekretuari eutsita kalte egiten bazaio erabiltzaileari/bezeroari, pertsona horren ezgaitasun fisiko edo psikikoaren ondorioz, edo hirugarrenen interesei kalte egiten bazaie, ezgaitzat jota egon zein ez.

Bestalde, **Prozedura Zibilaren Legearen** ondorioz (262. eta 544. ter artikulua), laguntza erakunde edo entitate publikoen edo pribatuen eta haietan diharduten profesionalen betebeharra da Epaitegiari edo Ministerio Fiskalari jakinaraztea ikasi dituzten eta etxeko indarkeria izan daitezkeen egitateak.

Alde horretatik, honako hau esan behar da: *“... Salatzeko betebeharraren eta sekretua gordetzekoaren arteko gatazkan, isiltasun betebeharrari eusteak erabiltzailearen intimitatea babesten badu, eta salatzeko betebeharrak biktimaren bizitzeko eskubidea, osotasun fisikorakoa, aske izatekoa eta sexu askatasunerakoa, azken horiek nagusitu behar zaizkio aurrekoari”* (Virginia Mayordomo Rodrigo, 2002).

Hala ere, delitu izan daitezkeen egitateak agintariei jakinarazteko legezko betebeharra arrazoizkotasun irizpideekin bete behar da, eta betiere gogoan izanda **esku hartzearen xede nagusiak biktimaren osotasuna eta segurtasuna zaintzea izan behar duela**, eta indarkeriarik gabeko bizitza normalizatura itzul dadila lortzea. Horretarako, egitateak agintari eskudunari jakinarazi baino lehen, azpimarratu behar da komeni dela biktimak berak jartzea salaketa, edo babes agindua eskatzea, eta azaldu behar zaio salatzeko ez dela eskubidea bakarrik, bai eta harremana hausteko modu bat ere. Era berean, profesionalak biktimari azaldu behar dio egitateak Epaitegiari edo Fiskaltzari jakinaraztera behartzen duela Legeak, profesionala den aldetik, eta agindu hori ez betetzeak zigor ardurak ekar diezazkiokeela. **Horrek ez du eragozten** kasuaren jakinarazpen hori **geroratu ahal izatea, biktimaren osotasun eta segurtasun pertsonalari eragiten dioten gorabeherak daudela ikusten bada, eta, horrenbestez, izapide hori atzeratzea komeni bada.**

FISKALTZA

Kalkutako Teresa plaza, 1 (Atotxa) – 2. solairua

20012 Donostia

Telefono zenbakia: 943 000717



JARDUTEKO PROZEDURA			
FISKALTZARI JAKINARAZTEA			
FASEAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	DOKUMENTAZIOA, ERREGISTROAK ETA IRIZPIDEAK ¹²
1. JAKINARAZPENA	IMBAZeko profesionalen ekimenez.	Donostiako Entzutegiko Fiskaltza	
1.1. Biktima ados egonik.	<p>TRATU TXARRA AITORTZEA, baina arazoak salaketari edo babes aginduaren eskaerari ekiteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> Gizarte txostena betetzea eta biktimaren sinadura eskatzea. Fax bidez bidaltzea Probintzia Entzutegiko fiskalburuarentzat. Kopia bidaltzea kasuan kasuko zerbitzuko burutzara. JAKINARAZTEA BETI emakumezko biktimari egitate hori, bai eta zer ondorio dituen ere: espediente judiziala irekitzea eta biktimak nahiz erasotzaileak hitzordua izatea epailearekin 24 orduko epean. 	IMBAZeko teknikariak	<p>Gizarte txostena</p> <p>Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpen txostena</p>
1.2. Emakumea ados egon gabe.	EMAKUMEZKO BIKTIMAK ADIERAZTEN DU ARRETA HERTSIKI SOZIALA JASO NAHI DUELA, ETA EZ DUELA NAHI BERE KASUA JAKINARAZTEA agintari judizialari.	IMBAZeko teknikariak (GT, psikologoa)	
1.2.1 Arriskua neurtzea jakinarazpenerako	<p>Jakin arazpenak kasuaren bilakaeran dituen ondorioak aztertzea.</p> <p>BALORAZIO IRIZPIDEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Bikotekideak emakumearen aurka indarkeria erabiltzeko arriskua neurtzeko protokoloa (12343n dokumentua). Zer ondorio dituen jakinarazpenak emakumearekin eta/edo familiarekin esku hartzeko erabakitako planean. Norberaren osotasunari eta segurtasunari eragiten dieten gorabehera. Zer egin erabakitzea: jakinarazpena egin edo atzeratu. 	IMBAZeko teknikariak eta esku hartzen ari diren beste profesional batzuk	
1.2.2 Jakinarazpena berehala eginez gero	<p>SI JAKINARAZPENA INTERESDUNAREN NAHIAREN AURKA EGITEN BADA.</p> <ul style="list-style-type: none"> Egitateak agintari eskudunari (Epaitegia) jakinarazi baino lehen, azpimarratu behar da komeni dela biktimak berak egitea salaketa Udaltzaingoan eta/edo Ertzaintzan, edo babes agindua eskatzea, eta azaldu behar zaio salatzea ez dela eskubide bat bakarrik, bai eta pairatzen ari den indarkeriazko harremana hausteko modu bat ere, eta Justizia Administrazioaren babes mekanismoak baliatzeko modua ere bai (erasotzailea urrutzea, polizia babesa, aitak semearen edo alabaren gainean dituen eskubideak etetea, etxebizitzaren erabilera, mantenu pentsioa eta abar). Biktimari BETI azaltzea Legeak behartzen duela egitateak Epaitegiari jakinaraztera, eta agindu hori ez betetzeak zigor ardurak ekar diezazkiokeela. Jarduketa gizarte espedientean erregistratu eta deskribatzea. Kopia kasuan kasuko burutzara bidaltzea, Fiskaltzara helaraz dezan. Kopia Udaltzaingora eta/edo Ertzaintzara bidaltzea. 	IMBAZeko teknikariak	<p>Jakin arazpen txosten instituzionala</p> <p>Jarduketan erregistroa GOKIn</p> <p>ETA ESPEDIENTEA</p>
1.2.3 Udaltzaingoari eta/edo Ertzaintzari jakinaraztea	EMETIERE UDALTZAINGOARI eta/edo ERTZAINZARI jakinarazten zaio	IMBAZeko teknikariak	Bidalketa txostena

¹² Dokumentu hauek 5. puntuan ikus daitezke: 5.- TRESNA TEKNIKOAK-



3.1.3.2.3. Babes agindua

DEFINIZIOA:

2003ko abuztuaren 2an jarri zen indarrean **Espainiako Estatu osoan [Ley 27/2003 de 31 de julio, reguladora de la Orden de Protección Integral contra la violencia de genero.](#)**

Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren xedea da **Instrukzio Epaitegian gauzatutako prozedura azkar eta soil** baten bidez honako hauek lortu ahal izatea:

- Biktimarentzako babes estatutu integral bat.
- Kautela neurri zibil eta penalak aplikatzea
- Ordenamendu juridikoan laguntza eta babes soziala emateko xedatutako neurriak.

OHARRA: Ikus erreferentzia esparrua (arau esparruko 1.1 puntua)



JARDUTEKO PROZEDURA			
BABES AGINDUA ESKAERA UDALAREN GIZARTE ZERBITZUETAN			
FASEAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	DOKUMENTAZIOA, ERREGISTROAK ETA IRIZPIDEAK ¹³
1. ESKAERA	<ul style="list-style-type: none"> Biktimaren beraren ekimenez. Biktimarekin ahaidetasun lotura duten pertsonak (Zigor Kodearen 153. artikulua arabera) Epaileak ofizioz erabaki dezake, edo Ministerio Fiskalak eskatuta. 		
1.1 Harrera Udalaren gizarte zerbitzuetan/IMBAZen	<p>BIKTIMAK UDALAREN GIZARTE ZERBITZUETAN/ IMBAZ-EN DAGOELA babes agindua eskatu nahi duela adierazten duenean.</p> <ul style="list-style-type: none"> Babes agindua Udaltzaingoa edo Ertzaintza eskatzeko aholkua ematea, epaitegira dagokion atestatu edo txostenarekin joan dadin. ORIENTABIDEA EMATEA BETIERE honako hauetatuz: <ul style="list-style-type: none"> <i>Babes agindua salaketa baten baliokidea da.</i> <i>Babes aginduak nahitaezkoa du beti polizia atestaturik.</i> <i>Ebazteko, alde guztiek agertu behar dute (biktimak eta erasotzaileak).</i> <i>Epaileak emandako ebazpenaren arabera (aldekoa, kontrakoa, egokitutako neurriak) aplikatuko da.</i> <i>Eskaeraren ondorioak: kautela neurri penalak (atxilotzea, urruntzea...), kautela neurri zibilak (etxebizitzaren erabilera, seme-alaben bisita eta zaintza erregimena...) eta gizarte laguntza emateko neurriak.</i> <p><i>Babes estatutu integratuean aipatutako neurri guztiak ezarri ahal izango ditu Epaitegiak.</i></p>	IMBAZeko teknikariak	
1.1.1. Udaltzaingorik edo Ertzaintzaren komunikazioa eta lankidetzaren	<p>Biktimari adostasuna eskatzea, biktimaren egoerari buruzko datuak eta arriskua neurtzeko nahiz neurri judizialak hartzeko interesgarritzat jotzen dituen beste batzuk jakinarazteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <i>Bidalketa txostena</i> betetzea, informazio osagarria eskatzeko Udaltzaingori edo Ertzaintzari. Beharrezkotzat jotzen bada, edo larrialdiko arreta kasuetan, laguntza eskatuko zaio Udaltzaingori edo Ertzaintzari. 	IMBAZeko teknikariak	Txostena: "Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpena"
1.1.2. Udaltzaingorik edo Ertzaintzaren izapidetzea	<p>PERTSONAK BABES AGINDUA UDALAREN GIZARTE ZERBITZUETAN ESKATU NAHI DUELA ADIERAZTEN DU.</p> <ul style="list-style-type: none"> Adieraztea zeinen garrantzitsua den legelariak laguntza ematea eskaera betetzeko, eta ofiziozko txandako legelari baten doako aholkua jasotzeko eskubidearen berri ematea. <p>ONARTZEN BADU</p> <ul style="list-style-type: none"> Ofiziozko txandara deitzea, abokatu baten presentzia eskatzeko, abokatu laguntza eman dezan. (IKUS OFIZIOZKO TXANDAREN PROZEDURA) Aholkuak eta laguntza eskaera betetzeko. Jatorrizko eskaera guardiako epaitegira bidaltzea. Eskaeraren kopia eskatzaileari ematea. Eskaeraren kopia bat gordetzea espediente sozialean. 	IMBAZeko teknikariak Laguntzen duen legelaria	<i>Babes aginduaren eskaera eredia</i> <i>Jarduketan erregistroa GOKIn</i>

¹³ Dokumentu hauek 5. puntuan ikus daitezke: 5.- TRESNA TEKNIKOAK-



JARDUTEKO PROZEDURA			
BABES AGINDUA ESKAERA UDALTZAINGOAREN ZERBITZUAN EDO ERTZAINZAN			
FASEAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	DOKUMENTAZIOA, ERREGISTROAK ETA IRIZPIDEAK ¹⁴
1. ESKAERA	<ul style="list-style-type: none"> Biktimaren beraren ekimenez. Biktimarekin ahaidetasun lotura duten pertsonak (Zigor Kodearen 153. artikulua araberak) Epaileak ofizios erabaki dezake, edo Ministerio Fiskalak eskatuta. 	UDALTZAINGOA edo ERTZAINZTA	
1.1. Hartzea	<p>BIKTIMAK UDALTZAINGOAREN EDO ERTZAINZAREN LOKAL BATEAN DAGOELA babes agindua eskatu nahi duela adierazten duenean. [1]</p> <ul style="list-style-type: none"> Babes agindua atestatur egiten denean eskatzeko aholkua ematea, epaitegira gainean daramala joateko. ORIENTABIDEA EMATEA BETIERE honako hauetatik: <ul style="list-style-type: none"> <i>Babes agindua salaketa baten baliokidea da.</i> <i>Babes aginduak nahitaezkoa du beti polizia atestatur.</i> <i>Ebazteko, alde guztiek agertu behar dute (biktimak eta erasotzaileak).</i> <i>Epaileak emandako ebazpenaren arabera (aldekua, kontrakoa, egokitzat jotako neurriak) aplikatuko da.</i> <i>Eskaeraren ondorioak: kautela neurri penalak (atxiloztea, urruntzea...), kautela neurri zibilak (etxebizitzaren erabilera, seme-alaben bisita eta zaintza erregimena...) eta gizarte laguntza emateko neurriak.</i> <p>ATZERRIKO EMAKUMEZKO ETORKIN BAT BADA, eta Espainian bizitzea erregularizatu gabe badu, babes agindua eska dezake, edo dagoen egoerari buruzko salaketa jarri. Kanporatzeko espediente ireki daiteke, baina hori etenda geratzen da ebazpen judiziala eman arte. Ebazpena aldekua bada, emakumeak bere eta seme-alaben administrazio egoera erregularizatzeko eskubidea izango du.</p> <p><i>Babes estatutu integralean aipatutako neurri guztiak ezarri ahal izango ditu Epaitegiak.</i></p>	UDALTZAINGOA edo ERTZAINZTA	
1.2. Informazioa eta izapideak Udalararen gizarte zerbitzuekin/IMBAZekin	<ul style="list-style-type: none"> Biktimari adostasuna eskatzea, biktimaren egoerari buruzko datuak eta arriskua neurtzeko nahiz neurri judizialak hartzeko interesgarritzat jotzen dituen beste batzuk jakinarazteko (POSTA ELEKTRONIKOAREN BIDEZ). Udalararen gizarte bitartekoen informazio eginbidea bideratzea, atestatur sartzeko, edo txostena izapidetzeko behar diren datuak betetzeko. 	UDALTZAINGOA edo ERTZAINZTA	Bidalketa txostena
1.3. Izapidetza Udaltzaingoan edo ERTZAINZAN	<p>PERTSONAK BABES AGINDUA UDALTZAINGOAREN EDO ERTZAINZAREN INSTALAZIOETAN ESKATU NAHI DUELA ESATEN DU</p> <p>Adieraztea zeinen garrantzitsua den legetariak laguntza ematea eskaera betetzeko, eta ofiziosko txandako legetari baten doako aholkua jasotzeko eskubidearen berri ematea.</p> <p>ONARTZEN BADU</p> <ul style="list-style-type: none"> Ofiziosko txandara deitzea, abokatu baten presentzia eskatzeko, aholkua eman dezan. (IKUS OFIZIOSKO TXANDAREN PROZEDURA) Aholkuak eta laguntza eskaera betetzeko. Jatorrizko eskaera guardiako epaitegira bidaltzea. Eskaeraren kopia eskatzaileari ematea. Eskaeraren kopia bat gordetzea espediente pertsonalean. 	UDALTZAINGOA edo ERTZAINZTA	<p><i>Babes aginduaren eskaera</i></p> <p><i>Jarduketan erregistroa babes programan</i></p>

1

⁴ Hemen ikus daitezke dokumentuak: 5.- TRESNA TEKNIKOAK



3.1.3.2.4. Lan eta Justizia Sailak emandako zerbitzuak:

Lan eta Justizia Sailak, honako zerbitzu hauek ematen ditu:

- [Ofiziozko txanda integrala](#)

DEFINIZIOA

Erasotzen dieten unetik biktimak babesteko bitartekoak bermatzeko eta gehitzeko xedearekin sortu zen, eta polizia jarduketa beretan esku hartzen du, bai eta bidera daitezkeen prozesu judizial zibil eta penalen esparruan ere.

Laguntza juridikoa presentziazkoa izango da, eta ordu eta erdiko gehieneko epean gauzatu ahal izango da legelariaren bulego profesionallean, Udalaren gizarte zerbitzuan, polizia etxean edo epaitegian. Erabateko salbuespena izango da aholkularitza telefono bidez ematea.

Berehalako eta doako laguntza juridiko eta espezializatuaren barruan honako hauek egongo dira:

- Presentziazko aholkularitza, salaketa jarri eta babes agindua eskatu baino lehen, hala egokituz gero.
- Laguntza salaketa egitean, bai eta babes agindua eskatzean ere.
- Babes agindurako agertzea, bai eta epaiketa azkarrean ere, agerraldian bertan edo ondoko egunetan gertatuz gero.
- Aholkularitza doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea aitortzeko eskaeran.

HARTZAILEAK

Etxeko eta/edo genero indarkeriaren biktima guztiak, instalazio polizialeatik, judizialeatik edo gizarte zerbitzuetatik aholkua jasotzeko nahia adieraziz gero.

OFIZIOZKO TXANDA INTEGRALA

Bitartekoaren kokapena: Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa

Helbidea: Mandasko Dukea pasealekua, 11

Ofiziozko txandaren telefono zenbakia: 902 103 908



JARDUTEKO PROZEDURA			
OFIZIOZKO TXANDA INTEGRALA			
FASEAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	DOKUMENTAZIOA, ERREGISTROAK ETA IRIZPIDEAK ¹⁶
1. ESKAERA	<u>Instalazio polizialeatik, judizialeatik edo gizarte zerbitzuetatik.</u>	Gipuzkoako Abokatuaren Elkargo Ofiziala	
1.1. IMBAZetik eta Udaltzaingotik	<ul style="list-style-type: none"> Jakinaraztea komeni dela legelariaren laguntza izatea, eta honako hauetan legelariaren jarduera doakoa izateko aukera dagoela: Aholkularitza, salaketa jarri eta/edo babes agindua eskatu baino lehen. <u>Laguntza salaketa egitean eta/edo babes agindua eskatzean.</u> <u>Babes agindurako agertzea, bai eta epaiketa azkarrean ere, agerraldian bertan edo ondoko egunetan gertatuz gero.</u> Emakumezko biktimari aholkularitza erabili nahi duela adierazteko eskatzea. Telefono deia ofiziozko txandara. 	ERTZAINZAKO edo Udaltzaingoko Zerbitzuko instrukziogilea	Jarduketan Intraneteko erregistroa
2. JARRAIPENA	<ul style="list-style-type: none"> Emakumezko biktimari prozedura judizialen jarraipena egiten duen legelariaren izena eskatzea, bai eta harremanetarako telefono zenbakia ere, emakumeak adostasuna adierazi ondoren. Telefono deia legelariari, prozeduren egoerari buruzko informazioa eskatzeko, bitartekorik egokienak ezartzearen. Informazioa ematea legelariari emakumearen eskura jarritako zerbitzuen eta bitartekoen izapidetze egoerari buruz, bai eta prozesuen bilakaeran garrantzizkoak diren beste datu batzuei buruz ere. 	Udaleko gizarte zerbitzuko gizarte langilea eta IMBAZeko teknikariak edo Udaltzaingoko Zerbitzuko instrukziogilea	Jarduketan erregistroa Intraneten <i>Atestaturak edo txostenak</i>

¹⁶ Dokumentu horiek atal honetan ikus daitezke: 5.- TRESNA TEKNIKOAK

- [Doako justizia](#)

Abokatu laguntzaren barruan sartzen da, era berean, ofiziozko txandako abokatu bat, biktimari defentsa integrala emateko berezitua, izendatzea, ekin beharreko prozedura penal eta zibiletarako. Hartarako, **biktimak Ez du zertan doako justiziarik eskatu Orientazio Juridikoko Zerbitzuan, 1/1996 Legearen aldaketa onartu arte bezala. Orain, doako abokatu laguntza jasotzeko eskubidea du genero indarkeriaren salaketa egin eta auzia izapidetu bitartean. Ezinbesteko baldintza da absoluzio epaia ez ematea eta/edo auzia ez artxibatzea.**

DOAKO JUSTIZIARAKO ESKUBIDEA APLIKATZEKO IRIZPIDEAK

DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOKO 1/1996 LEGEA

Azken aldaketa, 2013-02-23an

2. artikulua. *Aplikazio eremua.*



g) Auzitan jarduteko baliabideak alde batera utzita, doako laguntza juridikorako eskubidea, berehala emango dena, aitortzen zaie hauei: batetik, genero indarkeria, terrorismoa edo gizakien salerosketa kasuak ematen direnean, kasu horien biktimei edo kasu horien ondorioz sortutako biktimei; eta bestetik, adingabeei eta ezintasun psikikoak dituzten pertsoneri, abusuen edo tratatu txarren biktimak direnean.

Halaber, biktima hiltzen denean, eskubide honen bidez kausadunak ere lagunduko dira, baldin eta erasotzaileak ez badira.

Doako justiziaren eskubidea emateko, biktimak izango dira puntu honetan aipatutako delituetako batengatik salaketa edo kereila bat jartzen dutenak edo zigor arloko prozedura bat hasten dutenak; eta biktimak izaten jarraituko dute zigor arloko prozedura indarrean dagoen bitartean, edo amaitu ondoren, zigor epaia ematen bada. Doako justiziaren eskubidea galdu egingo da, absoluzio epai finkoa ematen bada edo zigor arloko prozedura amaitutzat jotzen bada, eta ez da beharrezkoa izango ordura arteko doako zerbitzuen kostua ordaintzea.

- [Epaitegiko Lantalde Psikosoziala](#)

Justizia Sailburuordetzaren mendeko organo tekniko bat da, jurisdikzio guztietako epaitegiei, auzitegiei eta fiskaltzei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematen diena bere espezializazio esparruan eta, bereziki, zigor eta familia arloko jurisdikzioan.

Osaera

Kideak psikologoak, gizarte laguntzaileak, hezitzaileak eta administrariak dira. Talde batdago lurralde historiko bakoitzean: Bizkaian, Bilboko eta Barakaldoko eraikin judizialean dauzka egoitzak; Gipuzkoan, Donostiako eraikin judizialean; eta Araban, Gasteizkoan.

Eginkizunak

Epaitegiko Lantalde Psikosozialak honako eginkizun hauek betetzen ditu bere mugapeetan:

- a) Aritu txostenak egitea, psikologikoak, psikosozialak, gizarte eta familia arlokoak eta gizarte eta hezkuntza arlokoak, organo judizialek eta fiskalek eskatuta, bai eta defentsarako ere, epaiketan.
- b) Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko Legeak xedatuaren arabera, "talde teknikoak" gauzatu beharrekoak diren eginkizunak betetzea.
- c) Elkarlanean aritzea magistratuekin eta fiskalekin adingabearen mesederako froga/ekintza prozesalean.
- d) Legeak berariaz xedatutako beste esku hartze batzuk.

Aditu eginkizunetan, taldea espezialista da honako haueetan:

1. Adingabeei lotutako kontuak: adingabeen zigor erantzukizuna (aholkularitza, laguntza teknikoa eta bitartekaritza).
2. Familia Zuzenbideko prozedurak
3. Ebaluazio psikikoak eta gizarte eta familia arlokoak, batez ere delitu sexualen eta etxeko indarkeriaren biktima izanez gero, eta lekukotzaren eta salaketaren azterketa
4. Nortasunari buruzko azterketa osagarriak eta psikometria, egozgarritasuna ebaluatzeko eta ezgaitasun kasuetan.



Koordinazioa beste zerbitzu batzuekin

Biktimei buruzko aditu txostenetan, koordinazioa errazteko eta biktima inolako beharrik gabe ez molestatzeko, barne protokolo bat prestatu da Epaitegiko Lantalde Psikosozialaren eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren artean, eta horren arabera, bakoitzak dauzkan eginkizunak gorabehera, adin nagusiko biktimei buruzko txostenak Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko zuzendariordetzei eskatuko zaizkie, eta, adingabeei dagozkienak, berriz, Epaitegiko Lantalde Psikosozialari. Biak koordinatu egingo dira, eta kasuan kasuko arloari dagozkion txostenak eskatzaileari igorriko zaizkio.

Era berean, koordinazio iraunkor eta noranzko biko aurreikusita dago delituaren biktimari laguntzeko zerbitzuekin.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANTALDE PSIKOSOZIAL JUDIZIALAK

GIPUZKOAKO LANTALDE PSIKOSOZIAL JUDIZIALA

Donostiako Justizia Jauregia
Kalkutako Teresa plaza 1, 1. solairua
Telefonoa: 943004353- Faxe: 943 000706
20012 DONOSTIA

BIZKAIKO LANTALDE PSIKOSOZIAL JUDIZIALA

Bilboko Justizia Jauregia
Barroeta Aldamar kalea, 10, 8. solairua
Telefonoa: 94 401 67 30- Faxe: 94 401 69 98
48001 BILBO

Barakaldoko Justizia Jauregia

Bide Onera plaza, zenbakirik gabe, 1. solairua
Telefonoa: 94 400 10 00- Faxe: 94 400 10 72
48902 BARAKALDO

ARABAKO LANTALDE PSIKOSOZIAL JUDIZIALA

Gasteizko Justizia Jauregia
Gasteiz etorbidea, 18, 1. solairua
Telefonoa: 945004833- Faxe: 945004858
01008 GASTEIZ

- [Auzitegi Baloraziorako Unitatea](#)

Osoko auzitegi baloraziorako unitateak aditu organoak dira, auzitegi medikuntzako institutuetakoz zerbitzu klinikoaren mende daude, eta edozein aditu jarduerari dagokion eginkizuna baino ez dute betetzen. Hau da, aholkua ematen diete epaileei, epaimahaiei eta, oro har, agintari judizialei.

Osoko auzitegi baloraziorako unitateak genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarria oinarri hartuta sortu ziren, eta beren eginkizunak, Euskal Autonomia Erkidegoan, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko auzitegi klinikako zerbitzuei lotuta dago.



Gipuzkoak emakumeen aurkako indarkeria arloan eskumena duten epaitegiek osoko aditu txostenak lortzeko egindako eskariei erantzuten die, eta biktimen (emakumeen eta seme-alaben) nahiz inputatuen auzitegi ebaluazioa egiten du.

Xedea eta jomuga

Eginkizunen esleitze horren xedea genero indarkeriari erantzun espezifikoko bat ematea da, arloan prestatutako profesionalen jardun espezializatuaren beharra baitu fenomeno horrek, arazoaren osoko balorazioa egin ahal izateko, eta, horrenbestez, Justizia Administrazioaren instituzioen eta biktimak babesteko erakundearen jarduna sustatzeko.

Osaera eta egoitzak

Diziplina anitzeko hiru taldek osatuko dituzte osoko auzitegi baloraziorako unitateak, eta talde horietako kideak psikiatrian aditu diren auzitegi medikuak, gizarte langileak eta psikologoak izango dira. Lurralde historikoek bana izango dute.

OSOKO BALORAZIO FORENTSEKO UNITATEA

GIPUZKOAKO OSOKO BALORAZIO FORENTSEKO UNITATEA

Donostiako Justizia Jauregia
Kalkutako Teresa plaza 1, 1. solairua
20012 DONOSTIA

BIZKAIKO OSOKO BALORAZIO FORENTSEKO UNITATEA

Bilboko Justizia Jauregia
Barroeta Aldamar kalea, 10, 2. solairua
48001 BILBO

ARABAKO LANTALDE PSIKOSOZIAL JUDIZIALA

Gasteizko Justizia Jauregia, behe solairua
Gasteiz etorbidea, 18
Telefona: 945 004 892
01008 GASTEIZ

3.1.4. Polizia zerbitzuak

Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren Ezarpenaren Jarraipen Batzordeak segurtasun indar eta kidegoek jarduteko eta etxeko nahiz genero indarkeriaren biktimak babesteko protokolo bat ezarri du, eta horrelako kasuetan Udaltzaingoa jardutea zehazten du protokolo horrek; horregatik, Donostian ekintza horiek eta larrialdiko gizarte zerbitzuek nola uztartu adieraziko da ondoren.

Askotariko egoeratan izan daiteke genero indarkeria, eta beharrezkoa izan daiteke poliziek eta gizarte zerbitzuek esku hartzea, baina, nolahi ere, honako hauek dira edozein jardunetan kontuan hartu beharreko oinarriko printzipioak:



- **Azkar esku hartzea.** Genero indarkeriaren biktimen babes eta laguntza eskaerei ahalik eta azkarren erantzuteko modua bilatu behar da.
- **Segurtasuna.** Biktimei ahalik eta segurtasun eta lasaitasun handiena eman diezaiekeen moduan esku hartu behar da.
- **Informazioa.** Biktimei argi adierazi behar zaie zer legezko eskubide dituzten eta zer bitarteko erabil ditzaketen, eta egoera egokia sortu behar da, pertsonak behar den denbora eta lasaitasunarekin har ditzan erabakiak.

Segurtasun kidegoen (Udaltzaingoa eta Ertzaintza) eta gizarte zerbitzuen arteko **elkarlana** honela zehazten da:

1.- Udaltzainak eta Ertzaintzako kideak erabilgarri egotea honako hauek egiteko:

- Laguntza ematea IMBAZeko profesionalei artatzen ari diren indarkeria matxistako kasuetan, informazioa bildu behar bada hirugarrenek edo biktimak berak jakinarazitako gertaerak egiaztatzeko.
- Gizarte zerbitzuetako profesionalei babesa ematea honako egoera hauetan, arriskua (erreala edo litekeena) dagoela iritiz gero:
 - Udalaren gizarte zerbitzuetan egiten diren elkarrizketetan laguntzea.
 - Etxe bisitetan laguntzea.
- Udalaren gizarte zerbitzuek eta Udaltzaingok batera ondorioztatutakoaren arabera arriskuan (egiazkoa edo litekeena) dagoen emakumezko biktimari lagun egitea eta babes ematea honako hauek direla eta:
 - Bizilekura laguntzea norberaren gauzak jasotzeko (agindu judizialaren arabera).
 - Epaitegira laguntzea.
- Biktimaren eta erasotzailearen erabilera komuneko baliabide eta zerbitzuetara laguntzea (osasun zentroa, laguntza psikologikoa emateko zerbitzua, lanpostua...).

Udaltzaingok eta Ertzaintzak jarduera horiek abian jar ditzatela eskatzeko, dokumentu hau erabiliko da: **Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpena (5.- Tresna teknikoak. 5. 1. 3. atala)**

2.- Informazioa zabaltzea eta/edo egiaztatzea arriskua neurtzean.

Udaltzaingoa bezala Ertzaintzan ere, salaketa jartzen duen edo babes agindua eskatzen duen emakumea hartzen duen agenteak emakumea Udalaren gizarte zerbitzuren batean artatzen ari diren ikertuko du, eta emakumeari baimena eskatuko dio zerbitzuekin harremanetan jartzeko.

Gizarte zerbitzuei beti egingo zaie jakinarazpen hori, bi helbururekin:

- **Informazioa eskatzea arriskuaren balorazioa osatzeko (Informazioa eskatzeko txosten eredu (5.- Tresna teknikoak. 5. 1. 4. atala)).**



- **Poliziaren esku hartzea jakinaraztea, gizarte zerbitzuak informazioa aztertu eta bidezko ekintzak egin ditzan, emakumeari behar den arreta psiko-soziala emateko.**

Esku hartze polizialaren jakinarazpen hori beti egingo da, emakumea gizarte zerbitzuetan artatuta egon zein ez. IMBAZeko arduradunarekin jarriko da harremanetan (943-481400/943.481411), Udalaren gizarte zerbitzuen ordutegian (08:00etatik 15:00etara, astelehenetik ostiralera).

Bestalde, Udalaren gizarte zerbitzuek konpromisoa hartzen dute emakumearen bizileku aldaketa jakinarazteko biktimarekin esku hartze poliziala izaten ari den polizia kidegoari, bai eta erreferentziazko profesionaletan gerta daitezkeen aldaketak jakinarazteko ere.

Udalaren gizarte zerbitzuetako profesionalek Udaltzaingoak eta Ertzaintzak eskatutako informazioa emango dute, salaketari erantsitako atestatua idazteko, egoeraren arriskua neurtu eta epaileari proposamen egokiak egitearren.

JARDUTEKO PROZEDURA			
BABESA ETA LANKIDETZA UDALTZAINGOAREN, ERTZAINZAREN ETA UDALAREN GIZARTE ZERBITZUEN ARTEAN			
FASEAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	DOKUMENTAZIOA, ERREGISTROAK ETA IRIZPIDEAK¹⁸
1.- SARRERA ETA ESKAERA	<u>Udalaren gizarte zerbitzuen bidez.</u>	Udaltzaingoa eta/edo Ertzaintza	
1.1.- Informazioa zabaltzea	<ul style="list-style-type: none"> • Eskaera betetzea eskatutako informazioa zehaztuta. <i>Eskaera egiteko arrazoia</i> atalean, eskatzen diren kontuak adieraztea. • Posta elektronikoz bidaltzea IMBAZeko arduradunari. • Udaltzaingoko edo Ertzaintzako erreferentziazko pertsonari bidaltzea (Burutza Unitateko ofizialak). Telefono deia eskaera jaso dela egiaztatzeko. 	Udaltzaingoa eta/edo Ertzaintza Udaltzaingoa Ertzaintza IMBAZeko teknikariak	<i>Bidalketa txostena</i> <i>Jarduketan erregistroa Intraneten</i>
1.2.- Babesa Udalaren gizarte zerbitzuetako profesionalei	<ul style="list-style-type: none"> • Posta elektronikoa bidaltzea (jaso izanaren adierazpenarekin) Udaltzaingoa eta/edo Ertzaintzako erreferentziazko pertsonari, udaltzainak/ertzainak elkarrizketa nahiz etxe bisita batean egoteko eskatuta. • Zerbitzua egingo dela telefonoz deituta egiaztatzea. 	IMBAZeko teknikariak	<i>Lehenbailehen</i>
1.3.- Biktimari laguntzea	Emakumezko biktimarentzat dagoen arriskuaren arabera beharra aztertuta, behar den lekura.	UDALTZAINGOAE/ERTZAINZAK	
1.3.1.- Garaiz	<ul style="list-style-type: none"> • Telefono deia Udaltzaingoa edo ERTZAINZAKO erreferentziazko pertsonari, biktimari laguntzeko eskatzeko honako hauetan: • Etxera, norberaren oinarriko gauzak jasotzeko. • Epaitegira. • Polizia instalazioetara, salaketa egiteko. • Zerbitzu edo baliabideetara. • Emakumearentzat zer arrisku dagoen aztertu ondoren, behar den lekuetara. Arriskua neurtu ondoren, Udaltzaingoa/ERTZAINZAK erabakiko du laguntza nola egin. 	IMBAZeko teknikariak UDALTZAINGOAE/ERTZAINZAK	<i>Lehenbailehen</i>
1.3.2.- Jarraitua	<ul style="list-style-type: none"> • Posta elektronikoz bidaltzea Udaltzaingoko edo Ertzaintzako erreferentziazko pertsonari laguntzak egiteko arrazoia eta egutegia. • Telefono dei bidez egiaztatzea zerbitzua egingo dela. 	IMBAZeko teknikariak	<i>Lehenbailehen</i>
1.4.- Koordinazio bilerak	BALORAZIOA <ul style="list-style-type: none"> • Biktima babesteko prozesuan. • Prozesua amaituta. 	UDALTZAINGOAE/ERTZAINZAK IMBAZeko teknikariak	

¹⁸ Dokumentu horiek atal honetan ikus daitezke: 5.- TRESNA TEKNIKOAK



JARDUTEKO PROZEDURA

BABESA ETA LANKIDETZA UDALTZAINGOAREN, ERTZAINZAREN ETA UDALAREN GIZARTE ZERBITZUEN ARTEAN

FASEAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	DOKUMENTAZIO A, ERREGISTROAK ETA IRIZPIDEAK ¹⁹
1. INFORMAZIOA ZABALTzea ETA/EDO EGIATZATZEA ARRISKUA NEURTZEAN	Udaltzaingoan edo Ertzaintzan Atestatua idazteko izandako elkarrizketan emandako datuak ez direla aski edo egiaztatu behar direla uste izanez gero.	UDALTZAINGOA / ERTZAINZTA	
1.1.- Eskaera	<p>Gizarte zerbitzuen arreta ordutegian</p> <ul style="list-style-type: none"> Emakumeak berak ez badu ematen informazioa, IMBAZera deituko da, jakiteko artatzen ari diren ala ez. Adostasuna eskatzea emakumeari datuak eskatzeko, bai eta IMBAZi ere. Telefono deia IMBAZeko arduradunari (ez badago, IMBAZeko erdi mailako teknikaria arduratuko da) eta/edo erreferentziatzeko goi mailako teknikariari (ez badago, zonaldeko arduradunari egokituiko zaio ardura), zer informazio behar duten zehazteko. Gehiago zehaztu edo bete behar diren aurrekarien eskabidea posta elektronikoz bidaltzea, betiere emakumearentzako arrisku maila neurtzeko xede nagusiarekin. 	Udaltzaingoko edo ERTZAINZAKO atestatuatarako agentea eta/edo Burutzako ofiziala	<p><i>Informazioa eskatzeko txostenaren erredua</i></p> <p><i>Jarduketan erregistroa Intraneten</i></p>
1.2.- Informazioa itzultzea	<p>Jakinarazpen txostena betetzea, eta posta elektronikoz igortzea lehenbailehen eta/edo atestatua Epaitegira igortzeko aurreikusitako epearen barruan.</p> <p>IRADOKIZUNAK EGIN DAITEZKE epaileak gizarte esparruan hartu beharreko neurriei²⁰ buruz (adibidez: familia elkarguneak)</p>	IMBAZ GZZ	<i>Bidalketa txostena</i>
1.3.- IMBAZen ekimenez	<p>Emakumezko biktimen IMBAZen dagoenean salaketa egiteko edo babes agindua eskatzeko (Polizian egiteko aholkua ematea).</p> <ul style="list-style-type: none"> <u>Adostasuna eskatzea</u>, biktimaren egoerari buruzko datuak eta arriskua neurtzeko edo neurri judizialak hartzeko interesgarritzat jotzen dituen beste datu batzuk jakinarazteko. Jakinarazpen txostena betetzea; emakumeari emango dio, atestatua hartzen duen agenteari helaraz diezaion. Xedea da emakumearen, semeen eta/edo alaben segurtasuna sustatzea, eta daukaten egoerari egokituakoa neurriak har daitezkeen lortzea. <p>DATU INTERESGARRIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Tratu txar mota. Erasotzailea deskribatzea (adierazi datuak emakumearen kontakizunetik atera diren, edo egiaztatuta dauden): nortasun ezaugarri azpimarragarriak, lan egoera, mendekotasunak, buruko osasun arazoak... Biktima deskribatzea: nortasun ezaugarri azpimarragarriak, lan egoera, motibazioa, beldur sentimenduak, mendekotasun afektiboa, osasun arazoak, familia eta/edo gizarte laguntza... Familia taldea: bananduta, adingabeko semeak eta/edo alabak, tratu txarren biktimak dira... Etxebizitza eta ondarea. <p>Beharrezkotzat jotzen bada arriskua dagoelako (egiazkoa edo litekeena), patruila jartzeko eskatuko zaio Udaltzaingoari edo Ertzaintzari, emakumea gizarte zerbitzutik polizia etxera eramateko.</p>	IMBAZ	<p><i>Jarduketan erregistroa Bidalketa txostenaren</i></p> <p><i>Ikus Udaltzaingoa/Ertzaintza aldizka lagun egitea</i></p>

¹⁹ Dokumentu horiek atal honetan ikus daitezke: 5.- TRESNA TEKNIKOAK

²⁰ Hemen jasoa: 1/2004 Legea, abenduaren 28koa, *Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa*, 18.4. artikulua.



3.1.5. Komunitate zerbitzuak

3.1.5.1. Emakumeen Etxea

Udal ekipamendua da, ahalduntzeko ekintza eta gogoetarako gune bat emakumeentzat.

Baliabide honen helburu nagusia da emakumeentzako gune bat sortzea, emakume elkarten eta talde feministen arteko harremana sustatzeko, bai eta, erabakiak hartzean eta politikan esku hartzean, emakume bakoitzaren gaitasuna nahiz gaitasun kolektiboa sustatzea ere.

Emakumeen Etxeak zerbitzu eta baliabide hauek ditu:

- Etxearen zerbitzu eta jarduera bereziak eta beste elkarte batzuek sustatutakoak.
- Baliabide iraunkorrak.
- Epe luzeko jarduerak.

Bitartekoaren berri emango zaie artatutako pertsoneri, eta, hala egokituz gero, bitartekora bideratuko dira, proposatzen diren jardueretan eta zerbitzuetan parte hartu ahal izateko. Horretarako, harreman eta koordinazio lan egokiak izango dira BERDINTASUN Atalarekin, horren mende baitago Emakumeen Etxea, bai informazio eguneratua izateko, bai bideratzeak egin eta artatzeko.

3.1.5.2. Emakume elkarteak

Egun, luzea da Donostiako emakume elkarten zerrenda²¹, eta elkarte horiek sustatzen dituzten zerbitzuak eta jarduerak, batzuetan, interesgarriak edo egokiak izan daitezke indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen kolektiboarentzat. Gainera, abiapuntua izan daitezke indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat.

Elkarte horietako batzuek Berdintasunerako Emakumeen Kontseilua osatzen eta hartan parte hartzen dute. Kontseilu hori parte hartzeko udal organo bat da hiriko elkarte eta kolektibo feministentzat.

4. INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK ARTATZEKO TOKI PROTOKOLOAREN KOORDINAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Erakunde sinatzaileen arteko koordinazioa hobetzeko eta protokolo honen edukien gauzatzearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, koordinaziorako gune hauek izango dira: Koordinazio Mahai Politikoa eta Koordinazio Mahai Teknikoa.

²¹ Dokumentu horiek atal honetan ikus daitezke: 5.- TRESNA TEKNIKOAK



4.1. Koordinazio mahai politikoa

Osaera:

Gizarte Ekintza, Berdintasun eta Babes Zibil arloetako zinegotitzak.

Eginkizunak:

- Protokolo hau eta indarrean dagoen bitartean egokitzat jotako aldaketak onartzea, bai eta Mahai Teknikoak aurkezten dituen urteko ebaluazioak onartzea ere.
- Indarkeria matxistaren arazoan zeinek bere esparruan esku hartzeko ardura duten zerbitzuen lana dinamizatzea eta babestea.
- Departamentu bakoitzari dagozkion erabakiak hartzea, Koordinazio Mahai Teknikoak egindako txostenak eta proposamenak aztertu ondoren.
- Atalen arteko koordinazioa bermatzea, eta gaian eskumena duten beste erakunde batzuekiko lankidetzat sustatzea.
- Protokoloa benetako beharretara egokitzeko behar diren udal baliabideak sustatzea.
- Erabakia hartzea ofiziozko salaketen kasuan, jarri behar direla iritiz gero.

Funtzionamendua:

Koordinazio Mahai Politikoa urtean behin bilduko da, Mahai Teknikoak txosten egokiak egin ondoren.

4.2. Koordinazio Mahai Teknikoa

Osaera:

- Gizarte Ekintza Saileko Prebentzio, Haur eta Familia Zerbitzuko Burutza.
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak artatzeko zerbitzuko teknikaria.
- Berdintasun Ataleko Burutza
- Berdintasuneko teknikaria
- Udaltzaingoa
- Ertzaintza
- Gipuzkoako Foru Aldundia

Mahai horretan bitarteko espezializatuen beste arduradun batzuk sartu ahal izango dira, Diputazioa, Justizia, Abokatuen Elkargoa..., beharrezkotzat jotzen denean.

Eginkizunak:

- Sailen arteko jarduketan koordinazioa sustatzea, protokoloaren helburuak lortzeko.
- Adierazleak prestatzea eta kudeatzea, parte hartzen duten arloek ebaluazio koordinatua eta etengabea egin dezaten, Udalaren jarduerara jarritako helburuetara etengabe egokitu ahal izateko.



- Aldian behin biltzea informazioa trukatzeko, beraien artean eta beste erakunde batzuekin koordinatzeko, eta gertatzen diren indarkeria matxistako kasuak aztertzeko. Bereziki, laguntza ibilbidea utzi dutenen kasuak hautemango dituzte, eta arrazoiak aztertuko dituzte jarduteko estrategiak prestatzeko, eta, era berean, segurtasunerako arrisku handiko adierazleak dituzten kasuak ere hautemango dituzte. Datuen konfidentzialtasuna errespetatuko da beti, eta baimena eman duten pertsonen informazioa baino ez da edukiko.
- Gertatzen diren indarkeria matxistako kasuen jarraipena egin ahal izateko behar den informazioa kudeatzea eta ematea, eta egoera denboran zehar nola aldatu den aztertzea.
- Urteko prestakuntza plana egitea eta koordinatzea.
- Beharrei buruzko txostenak egitea, esku hartzeko programa indarkeria matxistari lotutako premia aldakorretara egokitu ahal izateko.

Funtzionamendua:

- Koordinazio bilerak: Mahai Teknikoa sei hilean behin bilduko da, edo kideetako batek eskatuz gero.
- Aktak: bilera bakoitzaren akta egingo da, non aztertutako gaiak eta bertaratuen sinadurak jasoko baitira.
- Gizarte Ongizate Saileko Prebentzio, Haur eta Familia Zerbitzuko Burutzaren ardura izango dira deia egitea, gai zerrenda, bileren edukia eta bileren akta idaztea, protokolo honetako Koordinazio Mahai Politikoak hartzen diren erabakien berri izan dezan.
- Txostenak: Urteko txostena egitea bakoitzaren jarduera esparruari buruz.

5. TRESNA TEKNIKOAK

5.1. Dokumentu ereduak

5.1.1. Datuen bilketa

- 12306n dokumentua: Indarkeria matxistari buruzko informazioa biltzea. IMBAZ.
- 12336n dokumentua: Balorazioa

5.1.2. Esku hartze dokumentuak

- 12307n dokumentua: Esku hartze Plana.
- 12312n dokumentua: Esku hartzearen amaierako dokumentua.

5.1.3. Baliabideen eskaera

- 12311n dokumentua: Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpena.
- 12343n dokumentua: Bikotekideak emakumearen aurka indarkeria erabiltzeko arriskua neurtzeko protokoloa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko dokumentua: Udalaren Gizarte Txostena

5.1.4. Informazio eskaera

- 12313n dokumentua: Indarkeria matxistaren biktimari buruzko informazioa eskatzea.
- 12314n dokumentua: Baimena indarkeria matxistaren biktimari buruzko informazioa eskatzeko eta/edo transmititzeko.

Dokumentuen eredu guztiak III. eranskinean daude.



5.2. Kontaktuen agenda

5.2.1. Donostiako Udalaren balibideak

5.2.1.1. Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza

- **PREBENTZIOA, HAURRAK ETA FAMILIA ZERBITZUA**

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak artatzeko zerbitzua

Helbidea: Urdaneta kalea, 13

Tel.: 943- 481400

- **KOMUNITATE EKINTZAKO ZERBITZUA**

Helbidea: Urdaneta kalea, 13

Tel.: 943- 481403

Helbide elektronikoa: eusmjose_larrea@donostia.eus

- **GIZARTERATZE ZERBITZUA**

Gizarteratzeko eta laneratzeko programa

Harremanetarako profesionala: Iñigo Estomba

Helbidea: Urdaneta kalea, 13

Tel.: 943- 481454

Helbide elektronikoa: iestomba@donostia.eus

- **ADINEKOAK ETA EZGAITASUNA ZERBITZUA**

Zerbitziburua: Almudena Esteberena

Helbidea: Urdaneta kalea, 13

Tel.: 943-481517

Helbide elektronikoa: almudena_esteberena@donostia.eus

- **ARRETA ETXERIK GABEKOENTZAT ETA GIZARTE LARRIALDIETARAKO - GIZARTE LARRIALDIETAKO UDAL ZERBITZUA**

Arduraduna: Marga Martinez

Helbidea: Urdaneta kalea, 13

Tel.: 943-481965

Helbide elektronikoa: marga_martinez@donostia.eus



[5.2.1.2. Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzua](#)

BERDINTASUN BULEGOA

- **EMAKUMEEN ETXEA**

Harremanetarako profesionala: Ana Txurruka

Helbidea: Okendo 9

Tel.: 943- 483470

Helbide elektronikoa: berdintasuna@donostia.org

- **EMAKUMEEN ELKARTEAK**

Web orri nagusia

www.donostia.eus/Asociaciones

[5.2.1.3. Udaltzaingoa](#)

Harremanetarako profesionala: Patxi Anguera

Helbidea: Easo kalea, 41

Tel.: 943- 481324

Helbide elektronikoa: euspatxi_anguera@donostia.

5.2.2. Kanpo baliabideak

[5.2.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politikako Departamentua](#)

- **BABES PSIKOLOGIKOA / LAGUNTZA JURIDIKOA / EMAKUMEAK HARTZEKO ZENTROA - URRATS**

Arduraduna: Patxi Leturia

Helbidea: Zarategi pasealekua 99, behe solairua

Harremanetarako telefono zenbakia: 943- 112572

Helbide elektronikoa: abarcena@gipuzkoa.eus

- **GIZARTE LARRIALDIETARAKO FORU ZERBITZUA**

Helbidea: Ondarreta, 11

20018-DONOSTIA

Telefono zenbakia: 943 224 411

112aren bidez

- **LARRIALDIETARAKO FORU ALDUNDIKO HARRERA ZENTROA. URRATS**

Telefono zenbakia: 943 224 411

Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzua, Udaleko Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzua eta Gizarte Larrialdiak direla bide.



5.2.2.2. Justizia Administrazioa

- **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO EPAITEGIA – DONOSTIA**

Helbidea: Justizia Jauregia, Kalkutako Teresa plaza 1, 2.a
Tel.: 943 004383

- **GUARDIAKO EPAITEGIA – DONOSTIA-**

Helbidea: Justizia Jauregia, Kalkutako Teresa plaza 1, behe solairua
Tel.: 943 000720

- **FISKALTZA**

Helbidea: Justizia Jauregia, Kalkutako Teresa plaza 1, 2. solairua
Tel.: 943 004350

- **BABES AGINDUEN KOORDINAZIO ZENTROA - BILBO**

Helbidea: Bilboko Justizia Jauregia, Barroeta kalea 10, 8. solairua
Tel.: 94-4016726
Faxa: 94- 4016965
Helbide elektronikoa: CCVMujer@aju.ej-gv.es

- **BIKTIMA ARTATZEKO ZERBITZUA - DONOSTIA**

Helbidea: Justizia Jauregia, Kalkutako Teresa plaza 1, 1. solairua
Tel.: 943 000768 / 900 100928 (doakoa)
Faxa: 943 004376
Helbide elektronikoa: sav20-1@aju.ej-gv.es

- **ORIENTAZIO JURIDIKOKO ZERBITZUA**

Helbidea: Justizia Jauregia, Kalkutako Teresa plaza 1, 4. solairua
Tel.: 943 004356 / 943 000865
Helbide elektronikoa: soj.gi@aju.ej-gv.es

- **ATXILOTUARI LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUA**

Helbidea: Justizia Jauregia, Kalkutako Teresa plaza 1, behe solairua
Tel.: 943 000769

- **AUZITEGIKO KLINIKA ZERBITZUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI MEDIKUNTZAKO ERAKUNDEKO GIPUZKOAKO ZUZENDARIORDETZA**

Helbidea: Justizia Jauregia, Kalkutako Teresa plaza 1, behe solairua
Tel.: 943. 004350



[5.2.2.3. Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa](#)

- **LEGELARIEK LAGUNTZA EMATEKO OFIZIOZKO TXANDA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN, ETXEKO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMENTZAT**

Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren bidez.

Helbidea: Mandasko Dukea 11, behea

Tel.: 943-440118

Helbide elektronikoa: secretaria@icagi.net

[5.2.2.4. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Saila](#)

- **ETXEVIDE**

Helbidea: Andia kalea, 14

Tel.: 943-022829

[5.2.2.5. Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila](#)

- **ERTZAINZA**

Helbidea: Cristina Infantaren kalea, 28, Donostia

Tel.: 943 538606

Faxa: 943 538601-2



ERANSKINAK

I. ERANSKINA

[Udaltzaingoak eta Gizarte Zerbitzuek Donostiako indarkeria matxistako kasuetan urgentziaz esku hartzeko jarduketa eta koordinazio protokoloa.](#)

Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren Ezarpenaren Jarraipen Batzordeak segurtasun indar eta kidegoek jarduteko eta etxeko nahiz genero indarkeriaren biktimak babesteko protokolo bat ezarri du, eta horrelako kasuetan Udaltzaingoak jardutea zehazten du protokolo horrek; horregatik, Donostian ekintza horiek eta larrialdiko gizarte zerbitzuek nola uztartu adieraziko da ondoren.

Askotariko egoeratan izan daiteke genero indarkeria, eta beharrezkoa izan daiteke poliziek eta gizarte zerbitzuek esku hartzea, baina, nolana ere, honako hauek dira edozein jardunetan kontuan hartu beharreko oinarrizko printzipioak:

- **Azkar esku hartzea.** Genero indarkeriaren biktimen babes eta laguntza eskaerei ahalik eta azkarren erantzuteko modua bilatu behar da.
- **Segurtasuna.** Biktimei ahalik eta segurtasun eta lasaitasun handiena eman diezaiekeen moduan esku hartu behar da.
- **Informazioa.** Biktimei argi adierazi behar zaie zer legezko eskubide dituzten eta zer bitarteko erabil ditzaketen, eta egoera egokia sortu behar da, pertsonak behar den denbora eta lasaitasunarekin har ditzan erabakiak.

Genero indarkeriako kasuetako urgentziazko esku hartze sozialaren definizioa

Genero indarkeriako kasuetako urgentzia sozialeko esku hartzea biktima berehala babesteko beharrak eragindakoa da, eta behar horren ondoriozko jarduketa guztiak biltzen ditu, zeinak hasi eta bi egunetik bost egunera bitarteko epean gauzatuko baitira (laguntzea deklarazioa hartzean, orientazio eta euste emozionala, osasun zentroetara laguntzea...).



Urgentziako esku hartzean jarduteko ardura duten gizarte zerbitzuak

Gizarte esparruan, Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzua da Udaltzaingoak eta Ertzaintzak zeinek bere eskumenen esparruan daukaten esku hartzea osatzeko eta jarduteko ardura duen zerbitzua.

Gizarte urgentziako zerbitzuen ekintzak genero indarkeriaren urgentziako kasuak artatzean:

- Babestea eta berehala orientatzea bertaratuta.
- Polizia instalazioetara eta instalazioetan laguntzea eta egotea deklarazioa hartzean, biktimak salatzea erabakitzen badu, eta babes hori berriaz eskatzen badu.
- Biktimari lege-aholkularitza egokia ematen zaiola bermatzea.
- Osasun laguntzako zerbitzuetara laguntzea.
- Biktimak ostaturik behar badu, eskaera egingo zaie Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzuari eta Gizarte Larrialdiei, eta Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuari, berriz, oinarrizko gizarte zerbitzuen ordutegitik kanpo bada.
- Epaietara laguntzea. Epaiaketa salaketa jarriko eta 72 orduko epean egingo da.
- IMBAZek Udaltzaingoari eskatuta babes neurriak hartzeko eskaerak beti Udaltzaingoko Herritar Babesa eta Polizia Judiziala Ataleko Burutzaren bitartez bideratuko dira.
- IMBAZek babes neurriak hartzeko Ertzaintzari egindako eskaerak genero indarkeriaren biktimen jarraipena egiteko agenteen bidez bideratuko dira beti.
- Aurrekoetatik erator daitezkeen beste jarduketak batzuk.

Udaltzaingoaren ekintzak genero indarkeriako kasuetan artatzean:

- Biktimari legezko zer eskubide dituen eta zer gizarte baliabide dauden esango zaio.
- Biktimak gizarte laguntza behar badu edo, behar ez badu ere, beharrezkotzat jotzen bada laguntza hori ematea, IMBAZera deituko da oinarrizko gizarte zerbitzuen ordutegiaren barruan, eta Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzura ordutegi horretatik kanpo, zerbitzu horietako teknikari bat polizia etxera edo gertaeren lekura joan dadin, eta behar diren ekintzak egin dituzan bere jardueraren esparruaren barruan (aurreko puntuan deskribatua).
- Salaketa izapidetzea.
- Babes aginduaren kudeaketa.



- Arriskua neurtzeko behar bada, IMBAZeri eskatzea IMBAZek aurrez artatu eta ezagututako indarkeria egoerei edo jarduketei buruzko txostena.
- Biktimaren bizitza eta/edo osotasun fisikorako arriskua neurtzea.
- Arriskuaren neurketaren jarraipena egiteko elkarrizketak, biktimak larrialdietako bizitokietan ostatatuta daudela, eta haien espedientea Udaltzaingoari badagokio, Udaltzaingoko jarraipen agenteak egingo ditu Udaltzaingoaren instalazioetan.
- Biktima babesteko neurriak hartzea:
 - Babesa ospitaleratuz gero. (Osakidetzaren protokoloaren arabera).
 - Babesa etxebizitzaren eta Epaitegiaren arteko bidean, edo beste leku batzuetara joatean.
 - Babesa Epaitegian egon bitartean.
 - Babes osoa eguneko ordu guztietan.
- Agintari Judizialak erabakitako kautela neurriak aplikatzea.
- Biktimaren egoeraren aldizkako jarraipena.
- Babes plan bereziak erabiltzea, babes osoa emateko neurriak hartu ezean.


II. ERANSKINA

Lanbiderekin lan egiteko protokoloa

LANBIDEREKIN LAN EGITEKO PROTOKOLOA, INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO

Bilera: 2014ko apirilaren 2an

Parte hartzaileak: Cristina (Groseko Lanbide)-Emma eta Larraitz (Antiguako Lanbide)-Pilar eta Arantxa (ELZ Emakumearentzako Laguntza Zerbitzua-Udaleko gizarte zerbitzua)-Marijo Villoria (Udaleko Gizarteratze Zerbitzua)



GENERO INDARKERIAREN ARLOKO LANBIDETAKO TUTOREAK/ORIENTATZAILEAK:

-Gros: Cristina Ibañez: cristina.ibanez@lanbide.net

Josefa Sánchez: josefa.sanchez@lanbide.net. DSBerako hitzordua hartzeko tel.: 945 160 600

-Antiguo:

-Emma Lasalvia: emmacarlota.lasalvia@lanbide.net. Tel.: 943023836

-Larraitz Zalla: larraitz.zalla@lanbide.net. Tel.: 943596270

EMAKUMEARENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA-GIZARTE EKINTZA-DONOSTIAKO UDALA

-Pilar Ibazeta: pilar_ibazeta@donostia.org. Tel.: 943481400

-Arantxa Arrizabalaga: arantxa_arrizabalaga@donostia.org. Tel.: 943481400

III. ERANSKINA

SEXU ERASOAK EMATEN DENERAKO JARRAITU BEHARREKO PROTOKOLOA

Oinarrizko informazioa

- Bortxakeri Matxistaren Biktimei zuzendutako Udal Zerbitzuak normalean ez du aurretik ezagutzen sexu erasoaren biktima. Erasoak, gehienetan, famili edota bikotearengandik kanpo ematen dira. Eta askotan, biktimak ez dira arriskupean sentitu erasoak jaso arte.
Bi gertakari ezberdinak dira, faktore ezberdinengatik eraginda.
- Bortxakeria espero ez duen edozein pertsona bezala, normalean biktima hospitalera edota poliziarara joaten da lehenbizikoz, bi zerbitzu hauek egiten duten lana, kasu hauen aurreneko momentutan nagusitzen delako: Egoera fisikoaren azterketa eta gertatutakoaren ikerketa.
- Bi zerbitzu horiek (osasun eta poliziala) Gizarte Zerbitzuek eskaini diezazkieten laguntza eta baliabideen berri ematen diote biktimari. Normalean, biktimak gertatutakoa gainditzeko bere denbora behar du eta bere erritmo eta gainditze prozesua errespetatu behar da. Berak aukeratu behar baitu eskainitako laguntza noiz eta nola jaso behar duen.
- Normalean, zenbait komunikabidek gertatutakoaren informazioa (gehienetan partziala, zatitua, informazio iturri bakar batetik lortua, kontrastatu gabea) lortzen dute Udalak eta Udal Zerbitzuek ezer jakin baino lehen. Komunikabide hauen helburua, berri bat ematea da, ez biktimaren egoera, bere intimitatea edo abian jarri diren osasun edota polizi lanen erritmoak errespetatzea, berri orekatuagoa eta kontrastatuagoa ematearren.
- Komunikabide batetik jasotako informazioa, Udalak jasotzen duen informazio bakarra denean, arreta handiz hartu behar da ikerketaren ondoren azaltzen diren datuak askotan lehenbiziko informazioarekin bat etortzen ez direlako.

- Nahiz eta Udalak biktima edota gertatukoari buruzko informazioa izan, Datu Pertsonalen Lege Organikoaren Legea bete behar dela gogorarazi behar da.
- Eusko Jaurlaritzak emandako sexu erasoaren definizioa erabiliko dugu protokolo honetan. Sexu-erasoa: Beste pertsona baten sexu-askatasunaren aurkako indarkeriazko edo larderiezko jokaera oro, indarkeriatzat hartuta indar fisikoaren erabilpena, eta larderiezkat hartuta izaera psikologikoa duen jokaera, biktima beldurraraztea edo mehatxatzea helburu duena, hari edo haren hurrekoei berehalako kalte larriren bat eragitearekin. Bortxaketa Sexu-erasoen era ohikoenetako bat da; hau da, bagina, uzki edo aho bidezko kopulazio behartua, edota lehenengo bi bideetakoren batetik gorputz-atalak edo objektuak sartzea. Bestelako sexu-erasoak dira sexu-izaera duten eskukak, biktimaren baimenik gabe eta erasotzaileak eragindako indarkeriaz edo larderiez gertatuak.

Eman beharreko pausoak

1. Eraso sexista bati buruz edonondik edonora bidaltzen/ematen/jasotzen den informazioa Alkatetzaren Komunikazio Bulegoan zentralizatuko da. Informazioa, (prentsa bulegoko arduradunaren izen abizenak) helaraziko zaio ahalik eta azkarren.
 - Prentsa bulegoko arduradunaren emaila
 - Prentsa bulegoko arduradunaren telefonoa
2. Udaltzaingoak jasotzen dituen sexu delituen kasuen informazioa segurtasun zinegotziari pasako die. Eta informazio hau Alkatetzaren komunikazio Bulegoan zentralizatuko da eta (prentsa bulegoko arduradunaren izen abizenak) helaraziko zaio ahalik eta azkarren aurreko kasuan bezala.
3. Jakinaren gainean ez badaude, indarkeria matxistaren aurka lan egiten duten Departamentuei ere, gertatutakoaren berri emango zaie:

- Udaltzaingoa: Patxi Anguera.
- Berdintasuna: Ana Txurruka/Naiara Garate.
- Gizarte ongizatea: Edorta Aspiazu

4. Komunikabideek behartuta, ez da Udalaren aldetik bapateko erantzun bat emango jasotako informazioari egiaztatu arte. Erantzun bat ematekotan, sexu eraso eta bortxakeri matxistaren aurrean Udalak duen konpromezu eta jarrera azaltzeko izango da.

5. Berdintasun, Gizarte Ongizate eta Segurtasun zinegotziak bilduko dira, Alkateari informazioa emateko eta ohar instituzional bat prestatzeko.

6. Ohar Instituzional horren egiturak, ondoko mezu zerrenda jarraituko du:

- a) Jasotako informazioaren arabera, berriro gertatu da gure udalerrian sexu eraso bat.
- b) Ikertze eta Osasun zerbitzu publikoak ari dira gertatutakoari erantzuten eta, bereziki, biktimari laguntzen.
- c) Udal honek, gure gizarteak oraindik mantentzen duen jarrera soziokultural matxistari aurre egin nahi dio, gertatutakoa salatuz eta biztanleriari honelako gertakizunak ahalbideratzen dituen faktoreen kontra egunez egun jarduteko eskatuz.
- d) Udal honek biktimak behar dituen laguntza psikologiko, juridiko edo kasuak beharko lituzkeen bestelakoak, bere eskuetan jarriko ditu. Edonola saiatuko da biktima babesten, bere erabakiak eta jarrera pertsonala errespetatuz.
- e) Informazio gehiago jasotzen denean, beste ohar instituzional bat eman edota prentsaurrekoa konbokatuko da.

7. Udalaren komunikazio bulegoak, adostutako deialdiaren prentsa oharra egingo du eta aipatutako saileko zuzendariei, tokiko mugimendu feministari eta komunikabideei zabalduko die.

8. Berdintasun Departamentua bortxakeri matxistaren kontrari lan egiten duten elkarte eta hiri ekimenekin harremanetan jarriko da, gertakizuna salatzeko deialdi bateratu bat antolatzearen.

Eraiketaren kasuan

Eraiketaren kasuan, EUDEL elkarteak proposatutako protokoloa jarraituko da.

IV. ERANSKINA

ERASO SEXISTA ETA BORTXAKERIA MATXISTA GERTAKIZUNEN AURREAN KONTUTAN HARTU BEHARREKO PUNTUAK

- 1- Ez egin balorazio pertsonalak “leku horietan beti gertatzen da”, “biktimak ez zuen ondo baloratu egoeraren arriskua”, etab.).
- 2- Egiten ari den gertakizunen ikerketa errespetatu, eta ikerketaren emaitzen aurka joan daitekeen informaziorik ez azaldu.
- 3- Kontutan hartu Intimitatearen eskubidea eta Datu Babesaren Lege Organikoa.
- 4- Ez zabaldu momentuan edukitzen den informazioaren zehaztapen guztiak.
- 5- Kontutan hartu badaitekeela edukitzen den informazioa egia ez izatea .
- 6- Ez zentratu biktimari buruzko zehaztasunetan.
- 7- Erasoari duen garrantzia eman. Hiriaren irudi txarra edo alarma zabaltzearen beldurrez, ez kendu garrantzirik.
- 8- Ondoko ideiak indartu:
 - Inork ez luke erasorik izan behar.
 - Errua erasotzailearena da.
 - Erasoaren salaketa instituzionala egiten da.
 - Gizartearen gaitzespena oso garrantzitsua da.
 - Udalak hartzen du lidergoa gaitzespen horri bidea egiteko
 - Unitate tekniko guztien lanean konfiantza izatea.

9- Administrazio, elkarte eta hiritarren protestak elkarren arteko modu adostu batean bideratu.

10- Ez azaldu gertatutako erasoan esanguratsuak ez diren datuak: gizarte egoera, jatorri etnikoa, etab.

Indarkeria matxistaren biktimaren emakumeekin esku hartzeko udal protokoloa

IV. Eranskina

Dokumentu ereduak:

Datuen bilketa

- 12306n dokumentua: Indarkeria matxistari buruzko informazioa biltzea. IMBAZ.
- 12336n dokumentua: Balorazioa.

Esku hartze dokumentuak

- 12307n dokumentua: Esku hartze Plana.
- 12312n dokumentua: Esku hartzearen amaierako dokumentua.

Baliabideen eskaera

- 12311n dokumentua: Indarkeria matxistari buruzko jakinarazpena.
- 12343n dokumentua: Bikotekideak emakumearen aurka indarkeria erabiltzeko arriskua neurtzeko protokoloa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko dokumentua: Udalaren Gizarte Txostena

Informazio eskaera

- 12313n dokumentua: Indarkeria matxistaren biktimari buruzko informazioa eskatzea.
- 12314n dokumentua: Baimena indarkeria matxistaren biktimari buruzko informazioa eskatzeko eta/edo transmititzeko.

Indarkeria matxistari buruzko informazio biltzea ⁽¹⁾IMBAZ ⁽²⁾
Recogida de información de violencia machista ⁽¹⁾SAVMM ⁽²⁾

Espediente zk Nº de Expediente		Izen-Abizenak Nombre y Apellidos	
Profesionala / Profesional			
Arreta nori eman zaion Persona atendida	Biktima		Erasotzailea Agresora
IMBAZeko altaren data / Fecha Alta SAVVM			

1.-Egoerari nola antzeman zaion / Detección de la situación

<input type="checkbox"/>	Interesdunen eskaria / Demanda de la interesada
<input type="checkbox"/>	OGZn antzeman / Detección desde el CSS
<input type="checkbox"/>	IMBAZen antzeman / Detección del SAVVM
<input type="checkbox"/>	Udaltzaingoaren/Ertzaintzaren txostena / Parte de la GM / Ertzaintza
<input type="checkbox"/>	Senide baten informazioa / Información de un/a familiar
<input type="checkbox"/>	Osasun etxe baten txostena / Parte de un Centro de salud
<input type="checkbox"/>	BAZ / SAV
<input type="checkbox"/>	Ikastetxea / Centro Escolar
<input type="checkbox"/>	Osasun Mentaleko Zentroa / Centro de Salud Mental
<input type="checkbox"/>	Beste bideren bat / Otros

2.-Biktimaren datu pertsonalak: / Datos de la presunta víctima:

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	NAN-AIZ / DNI-NIE	
Helbidea / Domicilio ⁽³⁾	Udalerrria / Municipio	Lurraldea / Territorio
Gaur egungo helbidea / Domicilio actual ⁽⁴⁾	Telefonoa / helbide elektronikoa / Telefono / email ⁽⁵⁾	
Jaiotza-data / Fecha de Nacimiento	Jaioterrria (herrialdea) / País Nacimiento	Naziotasuna / Nacionalidad

Biktima-erasotzaile harremana / Relacion victima-agresor

Ahaidetasun harremana Ikus Emakunderen adierazleak eta jaso diren-direnean Relación de parentesco Ver indicadores Emakunde y recoger tal cual	<input type="checkbox"/>	Ezkontidea / izatezko bikotekidea / bikotekidea / bikotea Cónyuge / pareja de hecho / Pareja / noviazgo
	<input type="checkbox"/>	Ezkontide ohia / izatezko bikotekide ohia / bikotekide ohia / bikote ohia Exconyuge / Expareja de hecho / Expareja / Exnovio
	<input type="checkbox"/>	Aurreko ahaideak (aita-amak / aiton-amonak) Ascendiente (Padre- Madre / Abuelo- Abuela)
	<input type="checkbox"/>	Ondorengoak (seme-alabak / bilobak) / Descendiente (Hijo-Hija / Nieto- Nieta)
	<input type="checkbox"/>	Bestelako senideak / Otros familiares
	<input type="checkbox"/>	Izatezko bikotekide ohia / Expareja de Hecho
<input type="checkbox"/>	Ezaguna (familiakoa ez den pertsona): Zehaztu Persona conocida (no perteneciente al círculo familiar): Especificar	

2.1.-Beste udalerrri batetik dator? / Viene de otro municipio:

<input type="checkbox"/>	Bai / Si	Adierazi nondik /
--------------------------	-----------------	--------------------------



	Procedencia
<input type="checkbox"/>	Ez / No

2.2.-Harremanetarako beste pertsona batzuk / Otras personas de contacto:

	1	2
Izen-abizenak / Nombre y apellidos		
Helbidea / Dirección		
Telefonoa / Teléfono		
Biktimarekin duen erlazioa / Relación con la víctima		

2.3.-Egoera zibila: / Estado civil:

<input type="checkbox"/>	Ezkondua / Casada
<input type="checkbox"/>	Dibortziatua/Ezkontza deuseztatua / Divorciada / Matrimonio anulado
<input type="checkbox"/>	Banatzeko edo dibortziatzeko bidean / Trámite de separación o divorcio
<input type="checkbox"/>	Banandua (izatezko banaketa) / Separada (de hecho)
<input type="checkbox"/>	Banandua (legezko banaketa) / Separada (legal)
<input type="checkbox"/>	Ezkongabea / Soltera
<input type="checkbox"/>	Adostasunezko lotura, erregistratua / Unión consensuada con registro
<input type="checkbox"/>	Adostasunezko lotura, erregistratu gabea / Unión consensuada sin registro
<input type="checkbox"/>	Alarguna / Viuda

2.4.-Ikasketa maila / Nivel de estudios:

<input type="checkbox"/>	Alfabetatu gabea / Sin alfabetizar
<input type="checkbox"/>	Eskola ziurtagiririk gabea / Sin certificado de escolaridad
<input type="checkbox"/>	Eskola ziurtagiria / Certificado de escolaridad
<input type="checkbox"/>	Eskola graduatua / Graduado escolar/ ESO / EGB
<input type="checkbox"/>	BBB/UBI/IEE/ Goi mailako batxilergoa / BUP / COU / REM / Bachillerato superior
<input type="checkbox"/>	LH Gradu ertaina/LH I/II modulua / FP Grado medio / FP I / Modulo II
<input type="checkbox"/>	LH Goi maila/LH II/ III. Modulua / FP Grado superior / FP II / Modulo III
<input type="checkbox"/>	Diploma / Diplomatura
<input type="checkbox"/>	Lizentzia / Licenciatura
<input type="checkbox"/>	Doktoregoa / Doctorado
<input type="checkbox"/>	Prestakuntza ikastaroak / Cursos de formación
<input type="checkbox"/>	Atzerriko tituluak baliozkotzea / Convalidación de títulos extranjeros
<input type="checkbox"/>	Bestelakoa / Otros. Especificar

2.5.-Lan egoera: / Situación laboral:

<input type="checkbox"/>	Autonomoa / Autónoma/o
<input type="checkbox"/>	Langabea / Desempleo
<input type="checkbox"/>	LEE (lan erregulazio espediente) / ERE (Expediente regulación empleo)
<input type="checkbox"/>	Langile finkoa, lanaldi osokoa / Fijo jornada completa
<input type="checkbox"/>	Langile finkoa, lanaldi partzialekoa / Fijo jornada parcial
<input type="checkbox"/>	Aldi baterako langilea, lanaldi osokoa / Temporal jornada completa
<input type="checkbox"/>	Aldi baterako langilea, lanaldi partzialekoa / Temporal jornada parcial
<input type="checkbox"/>	Besteren konturako langilea, enplegua hobetu nahian / Trabajadora por cuenta ajena buscando mejora empleo
<input type="checkbox"/>	Freelancea / Freelance
<input type="checkbox"/>	Lan baimenak gabea / Sin permiso de trabajo



<input type="checkbox"/>	Bestelakoak. Zehaztu / Otros. Especificar
--------------------------	--

2.6.-Lanbidea: / Ocupación:

--	--

2.7.-Etxebizitza erregimena: / Régimen de tenencia de vivienda:

<input type="checkbox"/>	Etxebizitarik gabea / Sin vivienda
<input type="checkbox"/>	Jabetzako etxebizitza (norbanakoaren jabetza) / Vivienda en propiedad (privativa)
<input type="checkbox"/>	Jabetzako etxebizitza (irabazpidezko jabetza) / Vivienda en propiedad (gananciales)
<input type="checkbox"/>	Alokatutako etxebizitza / Vivienda en alquiler
<input type="checkbox"/>	Erabiltzeko lagatako etxebizitza / Vivienda cedida en uso
<input type="checkbox"/>	Ostatua edo apopilotza / Hospedaje o pupilaje
<input type="checkbox"/>	Berralokatua / Subarriendo
<input type="checkbox"/>	Maizter bat baino gehiago / Pluralidad de coarrendatarios
<input type="checkbox"/>	Ostatu turistikoa / Alojamiento turístico
<input type="checkbox"/>	Harrera egoitza edo etxebizitza / Piso o residencia de acogida
<input type="checkbox"/>	Infraetxea / Infravivienda
<input type="checkbox"/>	Bestelakoa. Zehaztu / Otros. Especificar

2.8.-Diru sarrerak (hilerokoak, gaur egun): / Ingresos económicos (mensuales y actuales):

Individuales / Banakakoak	
Guztirakoak (bikotearenak) / Totales (de la pareja)	

2.9.-Ezgaitasuna: / Incapacidad:

<input type="checkbox"/>	Fisikoa / Física
<input type="checkbox"/>	Psikikoa / Mentala / Psíquica / Mental
<input type="checkbox"/>	Entzumenekoa / Auditiva
<input type="checkbox"/>	Ikusmenekoa / Visual
<input type="checkbox"/>	GFaren kalifikazioa / Calificación DFG

2.10.-Bere gain dituen seme-alabak: / Hijos e hijas a su cargo:

